

**NAHIKO! PROGRAMARI
DAGOZKION IKASKUNTZA GIDA:
LABURPENA, ONDORIOAK ETA
ESPERIENTZIA PILOTUAK**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDA

31

EMAKUNDE-
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
VITORIA - GASTEIZ 2015



**AHIKO! PROGRAMARI
DAGOZKION IKASKUNTZA GIDA:
LABURPENA, ONDORIOAK ETA
ESPERIENTZIA PILOTUAK**

IZENBURUA: "Nahiko! programari dagozkion ikaskuntza gida: laburpena, ondorioak eta esperientzia pilotuak"

EDITOREA: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

AUTOREA: Orebe Hezkuntza S.L.

DISEINU GRAFIKOA

ETA MAKETAZIOA: Arrin. Komunikazioa eta Diseinua

DATA: 2015eko abendua

DESKRIBATZAILEAK: Hezkidetza, genero-indarkeria, berdintasuna, lehen mailako irakaskuntza, bigarren mailako irakaskuntza, ikasmateriala, gidak

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
1. NAHIKO! HEZKIDETZA PROGRAMAREN SARRERA	13
1A. NAHIKO! PROGRAMA:	
1.1. Testuingurua eta helburuak, esperientziak eta ezaugarriak	15
1.2. Aurrekariak eta aldez aurreko erronkak	21
1.3. Helburu orokorrak eta metodologia	24
1.4. Helburuak eta unitate didaktikoak hezkuntza-zikloen arabera	26
1B. EZARRITAKO ESPERIENTZIA PILOTUAK:	
1.5. NAHIKO! saio bereziak ikasleekin eta familiekin	30
2. NAHIKO! 1-2, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ETA BIGARREN MAILAK	33
2A. NAHIKO! PROGRAMA 1-2:	
2.1. Unitate didaktikoen planteamendua eta ibilbidea. Helburuak eta edukiak	35
2.2. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako Nahiko! material didaktikoak	41
2B. LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA:	
2.3. Deialdia, datuak eta partaidetza. 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetako esperientzia pilotua	48
2.4. Irakasleen prestakuntza	51

2.5. Saioak ikasleekin. Ondorioak	55
2.6. Saioak familiarekin. Ondorioak	65
2.7. Barne- eta kanpo-ebaluazioa. Emaitzak eta ondorioak	67
3. NAHIKO! 3-4, LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILAK	71
3A. NAHIKO! PROGRAMA 3-4:	
3.1. Unitate didaktikoen planteamendua eta ibilbidea. Helburuak eta edukiak ..	73
3.2. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako Nahiko! material didaktikoak	80
3B. LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA:	
3.3. Deialdia, datuak eta partaidetza. 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako esperientzia pilotua	87
3.4. Irakasleen prestakuntza	89
3.5. Saioak ikasleekin. Ondorioak	94
3.6. Saioak familiarekin. Ondorioak	105
3.7. Barne- eta kanpo-ebaluazioa. Emaitzak eta ondorioak	107
4. NAHIKO! 5-6, LEHEN HEZKUNTZAKO BOSGARREN ETA SEIGARREN MAILAK	113
4A. NAHIKO! PROGRAMA 5-6:	
4.1. Unitate didaktikoen planteamendua eta ibilbidea. Helburuak eta edukiak ..	115
4.2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako Nahiko! material didaktikoak	122

4B. LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUAK:

4.3. Deialdia, datuak eta partaidetza. 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetako esperientzia pilotua	130
4.4. Deialdia, datuak eta partaidetza. 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetako esperientzia pilotua	132
4.5. Irakasleen prestakuntza	134
4.6. Saioak ikasleekin. Ondorioak	139
4.7. Saioak familiekin. Ondorioak	149
4.8. Barne-ebaluazioa. Emaitzak eta ondorioak	152



AURKEZPENA




Hezkuntza funtsezko erreminta da, gure gizartean, sexuen arteko berdintasunean eta errespetuan oinarritutako balioak eta ereduak sustatzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko, hura ahalbidetzen duten osagaiak bertan nagusitzen diren kulturari, ohituretan, estereotipoetan eta jarrera-ereduetan sustraituta baitaude. Generoarekin lotutako aurreiritzi eta estereotipo horiek desmuntatzen ikastea gizarte osoak gainditu beharreko ikasgaia da, berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko gizarte-eredu baten alde eginez. Horretarako, pertsonen sozializazio-prozesuan jarduten duten erakunde, eragile eta mekanismo guztietan eragin behar da, eta horien artean, familiak, ikastetxeak eta komunikabideak ditugu, besteak beste.

Emakundek Nahiko! programa jarri zuen martxan 2003. urtean, berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza lortzeko hezkidetzeta-programa bat. Hark giza eskubideak hartzen ditu oinarritzat, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea du helburu, betiere hezkuntzan oinarrituz. Urte hauetan, Nahiko! programak ikastetxeetako ikasle eta irakasleekin nahiz horien familiekin lan egin du hezkidetzaren bitartez. Izan ere, hezkuntzan esku hartzeko metodo hori neska eta mutilen gaitasun eta banakotasunen aintzatespenean oinarritzen da, horien sexua eta garapenean zehar bereganatutako estereotipoak eta rolak denak direla, emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio mota guztiei uko eginez.

Gida honen bitartez, Nahiko! programarekin izandako esperientzia-urte hauek eragin dituzten ondorioak laburbiltzen dira, baita haren aplikazioak eragindako ikaskuntzak eta ondorioak ere. Horrenbestez, oso dokumentu baliagarria da eta erreferentzia gisa erabil daiteke antzeko beste esperientzia batzuetarako, ikasle parte-hartzaileen artean hura aplikatu izanaren ondorio positiboak egiaztatu ostean.

Azkenik, eskerrik asko Nahiko! programan parte hartu duten neska-mutil guztiei, irakasleei eta familieei, programaren talde teknikoari, eta hura ikastetxeetan garatzeko bereziki prestatu diren begirale guztiei. Urte hauetan zehar programak aurrera egiteko beharrezko osagaia eskaini dute guztiek, bakoitzak bere esparrutik.

Izaskun Landaia Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria



1. **AHIKO! HEZKIDETZA PROGRAMAREN SARRERA**

1A. NAHIKO! PROGRAMA:

1.1. TESTUINGURUA ETA HELBURUAK, ESPERIENTZIAK ETA EZAUGARRIAK

Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno korapilatsua da, dimentsio anitzekoa, eta emakumeek gizartean duten egiturazko desberdintasun-egoeran du jatorria. **Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko**, nahitaezkoa da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak desagerraraztea, horiek baitira indarkeriaren oinarria. Horretarako, behar-beharrezkoa da sozializazio-prozesuan aritzen diren erakunde eta mekanismo guztietan eragitea (familian, eskolan, komunikabideetan, publizitatean, hizkuntzan...), nagusi diren genero-rol eta -estereotipoak aldatuz eta sexuen arteko berdintasunean eta errespetuan oinarritutako balioak eta ereduak sustatuz.

Zentzu horretan, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak** hezkuntza esparruan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak arautzen ditu (III. kapitulua, 1. atala). Hain zuzen ere 29. artikuluan, hezkidetzako proiektuak egitea aipatzen du, beste alderdi batzuen artean, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen laguntzeko; eta horretarako, aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak irakatsi behar dira, besteak beste.

Pertsonen balioen berdintasuna oinarritzat hartuta heztea; hori esan nahi du hezkidetzak. Hezkuntzan esku hartzeko metodo bat da, nesken eta mutilen gaitasunak eta banakotasunak -sexua gorabehera- aitortzea oinarri duena. Sexuaren araberrako estereotipoak eta rola kon-tuan hartu gabe, pertsona osoki garatu nahi da, eta emakumeen aurkako indarkeria eta bereiz-keria modu oro arbuia.

Testuinguru horretan, 2003. urtean, Emakunde **"NAHIKO!" programa** jarri zuen martxan Lehen Hezkuntzarako, berdintasunean, errespetuan eta indarkeriarik ezan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko **hezkidetzak-programa bat**, eta gaur egun ere ha-ren inguruan lan egiten jarraitzen du. Programa Orebe hezkuntza-aholkularitzak sortu eta ga-ratu du, oso-osorik, Emakunderentzat. Hark giza eskubideak hartzen ditu oinarri, eta emaku-meen aurkako indarkeriaren prebentzioa hezkidetzatik lantzea du helburu, betiere hezkuntzan oinarrituz:

- Berdintasunez bizitzeko programa bat da, balio-hezkuntzaren bitartez, eta giza eskubideak eta genero-rolen azterketa oinarritzat hartuz.

- Emakundek hezkuntzaren esparruan aurretiaz garatutako lanaren jarraipena da (PAREKO Programa Europarra, Hezkuntzarako Ekintza Plangintza Integrala...).
- Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren sustatzeko beste aurrerapen bat da, Emakundek sustatua.

Emakundek NAHIKO! hezkidetzaren programarekin sustatzen eta ahalbidetzen duen euskal hezkuntza-sistemako **hezkidetzaren** helburua honako hau da:

- Norberaren autonomiarako, pertsona arteko harreman egokietarako eta herritartasun oso-rako neska-mutilen hezkuntza integrala lortzea.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazteko, sentitzeko, jarduteko, ikasteko, erabakitze eta bizitzeko ikasleentzako hezkuntza eskaintzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu eta hura sustraitik ezabatzeko batez ere.
- Esparru publikoan eta pribatuan giza eskubideak errespetatuz bizi eta elkarrekin biziko diren gizon-emakumeak prestatuko dituen balioen aldaketarako hezkuntza.
- Oro har, eta gizon eta emakumeen artean bereziki, bizikidetzaren arazoak eta diskrepantziak indarkeriarik gabe gainditzeko hezkuntza.
- Baterako erantzukizunean, pertsona arteko harreman egokietan eta maskulinitasun hegemonikoaren alternatibetan oinarritutako bizikidetzaren eredu berriak garatzeko hezkuntza.
- berdintasuna, gure ikasleak sozializatzen diren genero-rolen azterketa, eta giza eskubideen alternatibaren azterketarako hezkuntza, egunerokotasunean aplikatzeko, batez ere.

Testuinguru horretan, eta helburu horiek aintzat hartuta, NAHIKO! **ziklo ziklo eraiki den programa bat** da, **beren esperientzia pilotuetan** parte hartu duten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleekin, irakasleekin eta familiekin batera egindako esperientziaz, behaketan, ikerketan eta baterako jardunean oinarrituz:

- Programa 2003. urtean abiarazi zen eta lehen fasea Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetara bideratu zen, 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetan. Esperientzia pilotu horretan, 3 ikastetxe aitzindariki, 6 taldek eta 103 ikasle bakarrik parte hartu zuten.
- Lehen esperientzia pilotu horren emaitzak ikusita, bigarren esperientzia-fasea jarri zen martxan, lehenengoa baino zabalagoa. 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan aplikatu zuten hura. Bertan, 37 ikastetxe, 67 taldek, hezkuntzako 100 profesional inguruk, 1.312 ikasle eta horien familiekin hartu zuten parte.

- Gero, materialak eta baliabideak diseinatu ziren programa Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora hedatzeko, hau da 3. eta 4. mailetara. Beste esperientzia pilotu bat egin zen 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan: 11 ikastetxek, 21 taldek eta 468 ikaslek eta horien familiek parte hartu zuten.
- Azkenik, programa Lehen Hezkuntzako lehen ziklora hedatu zen, hau da, 1. eta 2. mailetara, eta esperientzia pilotua 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan zehar garatu zen. Bertan, 29 ikastetxek, 55 taldek, 1.137 ikaslek eta horien familiek parte hartu zuten.

ZIKLOA	IKASTURTEAK	LANTOKIEN KOPURUA	LANTALDEAK	IKASLEAK
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	2003-2004 eta 2004-2005	3	6	103
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	2005-2006 eta 2006-2007	37	67	1.312
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	2007-2008 eta 2008-2009	11	21	468
Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak	2010-2011 eta 2011-2012	29	55	1.137

Urte hauetan zehar ikastetxeetako irakasleekin batera lan egin eta ikasgelan ikasleekin esperimentazio praktikoa egin ostean, **Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan esku hartzeko proposamen oso bat** prestatu dugu eta, gainera, ikastetxean nahiz familia-testuinguruan erabiltzeko materialak eta baliabideak ditugu:

- 18 unitate didaktiko ditu, sei ziklo bakoitzerako (hiru ikasturte bakoitzeko, bat hiruhileko bakoitzeko); irekiak dira eta erraz egokitu daitezke ikastetxe bakoitzaren programazio personalizatuetera, horiek duten diseinu modular autonomoari esker.
- Ikasturte bakoitzerako materialak hiru unitate didaktiko ditu, lauhileko bakoitzean dagoen unitate didaktikoa jorratu dadin; izan ere, horietako bakoitzak gai bat jorratzen du, ikasturtean zehar gainerakoekin osatuz.
- Tutoretza, bizikidetza, etika eta antzekoetako denbora, espazio eta programetan bereziki landu arren, curriculumaren beste esparru batzuetan txertatzeko aukera eskaintzen dute, euskarari, gaztelanari, ingurunearen ezagutzan eta plastikan, adibidez.

- Programak Lehen Hezkuntzako etapa guztia estaltzen du, baina elkarrekin lotuta dauden hezkuntza-ziklo autonomoekin diseinatuta dago. Hau da, modu sistematizatuan eta jarraituan landu daiteke ziklo guztietan zehar, edo horietako batzuetan bakarrik txerta daiteke, ziklo bakoitzak norbere garrantzia, helburuak eta edukiak baititu.
- Ziklo bakoitzeko materialek programa oso bat osatzen dute eta bakoitza bere aldetik erabili daiteke. Dena den, hiru zikloek pixkanaka egin behar den ibilbide osatu bat osatzen dute, independenteak izan arren, elkarrekin lotuta baitaude.
- Bi ikasturteko ziklo bakoitzaren barnean, ziklo bakoitzeko lehen ikasturtearekin hastea gomendatzen da, programa zikloko hiru prozesu eta ibilbidetan diseinatuta baitago (lehen zikloak Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak hartzen ditu barne, bigarren zikloak Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, eta hirugarren zikloak, aldiz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak), 1. unitate didaktikotik 6. unitate didaktikora, kasu guztietan.

Haren esperimentazioan zehar, programa **lau jarduketa-ardatzen** inguruan egituratu da: irakasleen prestakuntza, ikasleen sentsibilizazioa eta prestakuntza, familien sentsibilizazioa, eta ikasleen garapenarekin eta Lehen Hezkuntzari dagokion hezkuntza-garaiko helburuekin eta edukiekin bat etorriko diren hezkidetzeta-materialen prestakuntza. Esperientzia pilotuen ostean, lau ardatz hauek mantendu eta berrantolatu dira: irakasleen prestakuntza, hezkidetzeta-materialen erabilera, ikasleen prestakuntza eta familien sentsibilizazioa. Izan ere, hezkidetzeta arloko esku-hartze bakar batekin aurrera egin ahal izango dugu ikasleen arteko berdintasunean, hau da, etorkizuneko gizon eta emakumeen berdintasunean, eta bidez batez, tratu onetan oinarritutako pertsonen arteko harremanak eta harreman afektiboak eraiki ahal izango ditugu.

Ikasleekin egiten den lana **hiruhileko unitate didaktiko baten** inguruan antolatzen da; guztira, sei unitate daude Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzean, hiru ikasturte bakoitzeko. Unitate didaktiko horiek irekiak eta malguak dira, eta oso erraz egokitu daitezke ikastetxe bakoitzaren programazioetara, horiek duten diseinu modularra dela eta. Unitate didaktiko horiek astero eta modu sistematikoan landu behar dira ziklo bakoitzeko bi ikasturteetan, ordena aldatu gabe eta horietako bakar bat ere ezabatu gabe. Batetik, unitate didaktikoak adin bakoitzaren bilakaera-momentura eta interesetara eta heldutasunera egokitzen direlako. Eta bestetik, diseinuan zehar, gizon eta emakumeen gizarte-desberdintasunaren errealitatea esparruka jorratzen delako, baita haren arrazoiak eta alternatibak ere, eta beraz, ezinezkoa izango litzateke beste modu batera jorratzea.

Pixkanaka, programak **berezko hizkuntza sinboliko bat** osatzen du (sentitzen, pentsatzen eta esaten laguntzen duen hitz egiteko modu bat) eta, haren bidez, azterketaren gai eta maila desberdinak planteatzen dira, horiek izendatzeko eta kudeatzeko baliabideak eskaintzen dituelarik. Ziklo bakoitzeko materiala prestatu eta probatzeko bi urteetako esperientzia pilotuetan parte hartu duten irakasleek bi ohar errepikatu dituzte behin eta berriz: batetik, ikasleek beren harremanak eta beren bizitza aurreikusitakoa baino modu helduagoan baloratzeko eta azter-

tzeko duten gaitasuna azpimarratu nahi izan dute; eta, bestetik, ziklo bakoitzeko bigarren ikasurtean jorratu eta lortu dena (Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, adibidez) ezinezkoa izango litzatekeela zikloko lehen ikasurtean aurretiko ibilbidea egin izan ez balitz (Lehen Hezkuntzako 1. mailan, adibidez).

Garai bakoitzeko irakasleek programari eskaintzen dizkioten asteko saioetan egin behar da prozesu hori. Esperientziak erakutsi duen moduan, pixkanakako lana eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan da programaren noizean behingo jarraipena baino. Urte hauetako esperientziak erakutsi duen moduan, programari astean ordu bat xedatu behar zaio gutxienez, eta emaitzak oso onak izan dira, batez beste, astean bi ordu xedatu dituzten ikastetxeetan. Nolanahi ere, dedikazio handiagoa edo txikiagoa eskaini zaien momentuak egon direla eta hark Nahiko! programaren inguruan garatutako jarduera guztia barne hartzen duela ulertu behar da, asteko ordutegiaren curriculum-eremu guztietan.

Unitate didaktiko bakoitzak honako material hauek hartzen ditu barne: irakasleen gida, ikasleen koadernoak, familien koadernoak, material eta baliabide osagarriak (jolasak eta ipuinak).

Irakasleen gida sailkatzaile batean aurkezten da eta, bertan, unitate didaktiko guztiei dagozkien diptikoak jasotzen dira. Gida didaktikoak honako elementu hauek hartzen ditu barne unitate bakoitzean:

- Hausnarketarako eta azterketarako funtsezko alderdiak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean oinarrituz. Horiek unitatearen gai nagusiei, gai edo ardatz nagusiari buruzkoak dira (gorputza, autonomia, zaintza, lanbideak, bizi-proiektua, familia-bizikidetzak eta abar).
- Helburu orokor eta zehatz horiek lortzeko proposatzen diren edukiekin eta lan-educiekin lortu nahi diren helburuak.
- Unitate bakoitzean proposatzen diren materialen deskribapena (ipuinak eta jolasak batez ere), eta horiek osatzen dituzten elementuak eta jolaserako dinamikak, baita proposatutako dinamikak garatzeko orduan landu eta ikus daitezkeen funtsezko alderdiak ere: egin beharreko galderak, hausnarketa egokiak, argitzea komeni den alderdiak, eta abar.

NAHIKO! jolasek eta ipuinek ipuin, jolas eta jarduera kolektiboen izaera ludikoa dute (ipuinak, karta sortak, loteria, rol-jokoak, "trivial" eta abar), eta unitate bakoitzaren hasierako elementu gisa planteatzen dira, gaiak jorratu eta eztabaida pizteko. Gainera, karga sinboliko handia dute, eta norbere hizkuntza komuna sortzen joaten dira. Unitate bakoitza ipuin eta jolas horiek erabiltzen abiarazi behar da, horien bitartez, ikasleek beren errealtatearen inguruko azterketa, hausnarketa eta alderaketa egin dezaten. Jolasten duten bitartean, ikasleek hainbat egoera esperimendatu, sentitu eta bizitu ditzakete, eta horien eraginez, hainbat gauza galdetu,

hausnartu, komentatu, eztabaidatu, ordezkatu... ditzakete. Horien funtzioak bizitutako esperientziak eta egunerokotasuneko errealitate inplizituak azpimarratzea da, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarrituz, horiek berariaz aztertzeko.

- NAHIKO! ipuinak (lehen zikloan bakarrik daude ipuinak) Berdinland-en garatzen dira, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspuntutik eredu positiboak (semaforo berdeak) eskaintzen dituen alegiazko herrialde bat. Askotan, gure ingurunean estereotipatuta dauden ohiko desberdintasunen ordezeko ereduak eta egoerak islatzen dituzte. Ipuinaren protagonistak ikasleen adin bereko neska-mutil batzuk dira. Ipuin bakoitzak gai nagusia laburbiltzen duen abesti bat gaineratzen du. Ipuinak hainbat formatuko CD batean eskaintzen dira: audio, irudiak, irudi audiodunak, testua...
- NAHIKO! jolasak (familia-kartak, puzzleak, memory, segida tenporalak, partxisa, antzara-jokoa, loteria, trivial, antzetzeko gidoiak...) ziklo guztietan gaineratzen dira eta bizitzako egoerak planteatzen dituzte. Horien bitartez, neska-mutilek beren gorputza, sentimenduak, autonomia eta abar ikasi, erabili eta garatzen dituzten aztertu daiteke. Gainera, neska-mutil horiek beren hezkuntzan semaforo berde eta gorri berdinak aurkitzen dituzten edo ez hautemateko balio dute, baita gorriak desaktibatu eta berdeak orokortzeko ere. Proposatutako mekanikarekin jolastu aurretik materiala eta edukiak ezagutu behar dira. Karten kasuan, adibidez, horiek familiara sailkatu behar dira, ulertzen ez diren hitzak argitu, marrazkien esanahia argitu, kontzeptuen arabera sailkatu, elementu berriak gehitu, eta abar.

NAHIKO! **koaderno**en helburua da esperientzia eta eztabaida horietan ateratako ondorioak laburbiltzea eta barneratzea, gelan egindako lana zehaztu eta hura familiara hedatzeko, hain zuzen.

- Ipuinak edo jolasak erabili ostean, **ikasle bakoitzaren koaderno**ei esker (ikasgelan egin behar da lan horiekin), ipuinaren eta jolasaren dinamikarekin bizitu, aurkitu eta eztabaidatu denaren laburpena, hausnarketa eta lanketa pertsonalagoa egin daiteke. Horregatik, ikaslearen koaderno ez da behin bakarrik osatu behar, pixkanaka baizik, ipuinak eta jolasak erabiltzen diren heinean. Irakasleak hura aurkeztu eta lehenik eta behin gelan edo taldeka landu behar du. Gero, banaka bete behar da.
- Amaitzeko, unitatean zehar bizitu, planteatu eta barneratutako alderdiak familia-eremura bideratu behar dira unitate bakoitzeko **familiaren koaderno**aren bitartez (unitatea amaitzean, hura etxera eraman behar da bertan lan egiteko, hiruhileko amaieran). Ikasleak berarekin bizi diren pertsonekin lan egiteko etxera eraman behar duen koaderno horren funtzioa ez da etxeko-lan bat izatea, etxean bizi den pertsonekin hitz egiteko eta partekatzeko proposamen bat izatea baizik. Haren funtzio nagusia familian hitz egiteko eta topaketarako guneak sortzea da, pertsona arteko harremanen, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren, emakumeen aurkako diskriminazioaren, sentimenduen eta abarren inguruan hitz

egiteko. Horretarako, beharrezko erremintak eskaini behar dira, ikastetxean landutakoa aintzat hartuta, hura modu gidatuan, eraikitzailean eta koherentean jorratzeko. Horrenbestez, ez da jaso eta zuzentzeko edo ikasgelan azaltzeko koaderno bat, ariketa puntuagarri bat balitz bezala. Familiaren intimitatea errespetatu behar duen gonbidapen bat da eta, beraz, haren erabilera familia bakoitzaren irizpide eta diskrezioaren araberakoa izango da. Dena den, irakasleek programaren barnean duen garrantzia eman behar diote koaderno horri, eta haren jarraipena egin behar dute, hau da, erabileraren eta erabilgarritasunaren jarraipena (zailtasunak, lorpenak, aukerak...), familien nahiz ikasleen kasuan.

1.2. AURREKARIAK ETA ALDEZ AURREKO ERRONKAK

EMAKUNDE- Emakumearen Euskal Erakundea sustapenerako erakunde bat da eta bi jarduketa-esparru handitan gauzatzen du eginkizun hori:

- Euskal Administrazioan. Hezkuntza-esparruan batez ere, hezkidetzak sustatuz.
- Gizartean, sentsibilizazio, prebentzio eta esperientzien, eredu berrien eta balio-aldaketen hedapenerako kanpaina eta programen bitartez, besteak beste.

Hezkuntza-esparruan sustapenerako eginkizun bikoitz hori garatzeko, Emakundek hainbat erreminta erabiltzen ditu, honako hauek, adibidez: ikerketa (azterlanak, azterketak, datu-bilaketak, Euskadiko gizon eta emakumeen egoera...), araudia (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEn Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Planak...), argitalpenak (orientazioak, gidak, liburuxkak, jardunaldiak, hezkidetzak, materialak...) eta hezkuntza arloko proiektuak eta programak (sentsibilizazioa, prestakuntza, material-prestaketa...).

Sortu zenetik, Emakundek garrantzia berezia eskaini die hezkuntza-proiektuei eta etengabeko lana egin du **hezkuntza arloko eragileak sustatu** eta ikastetxeetan zuzenean esku hartzeko proiektuetan, horretarako hainbat esperientzia pilotu abian jarritz:

HEZKUNTZA-PROIEKTUAK	DATA	EZAUGARRIAK
Bigarren Hezkuntzako kanpainak	1988. urtetik	Sentsibilizazioa
Ikastetxearen Hezkidetza Proiektua prestatzeko gida	1993-1996	Sentsibilizazioa Prestakuntza
Ikastetxeentzako Plan Integrala	1997-1999	Sentsibilizazioa Materialak
Europako PAREKO programa: Hezkidetzan oinarritutako eskola baterantz	1999-2002	Sentsibilizazioa Prestakuntza Materialak
NAHIKO! Hezkidetza Programa: Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.	2003-2012 2013tik gaur arte	Sentsibilizazioa Prestakuntza Materialak

Laburpen kronologiko honetan egiaztatu daitekeen moduan, "NAHIKO!" programaren aurrekaririk zuzenena Europako "PAREKO" programa izan zen. Izan ere, hezkuntza arloko desberdintasun-egoerak aztertzea eta irakasleei hezkuntza-etapa desberdinetan hezkidetza lantzeko baliabide monografikoak eskaintzea zen haren helburua.

NAHIKO! programaren aurretiaz egindako **Europako PAREKO Programan** 111 ikastetxek (Bigarren Hezkuntzako 63 eta, gero, Lehen Hezkuntzako 48), 1.805 ikaslek (Bigarren Hezkuntzako 1.112) eta 219 irakaslek hartu zuten parte, gehienak Bigarren Hezkuntzakoak, hasiera batean etapa horretara xedatu baitzen hezkidetza-programa hori.

Honako hauek izan ziren haren jarduketa-ardatzak: irakasleen prestakuntza, materialen lan-keta (24 elementu original sortu ziren hainbat gai monografiko eta hezkuntza-etapa jorratzeko) eta ikasleen sentsibilizazioa (saio berezietan eta ikastetxe parte-hartzaile guztien urteko lehia-keta batean parte hartuz). Materialetan zenbait gai monografiko joratu ziren, hala nola, orientazio akademiko profesionala eta enplegua, baterako erantzukizuna, ikastetxeko guneak, gazteentzako aldizkariak, maitasunaren eta bikote-harremanen inguruko gazteentzako musika, irrati-programak, zinea eta telesailak, haurrentzako ipuinak, eta abar. Horiek hainbat formatutan joratu daitezke: audio-zintak, bide-zintak, ariketa-koadernoak, zine-forumerako jarraibideak, eskola-azterketarako erremintak.

Europako PAREKO Programari esker hainbat **ondorio** atera ahal izan ziren genero-erolek eta -estereotipoek ikasleen nortasunean eta harremanetan dituzten ondorioei dagokienez, baita horien ikaskuntza eta erabaki akademiko-profesionalei dagokienez ere. Era berean, zenbait **premia** hauteman ziren neska eta mutilen gelako nahiz ikastetxeko berdintasun-egoerari dagokienez, eta NAHIKO! Programa horiei erantzuten saiatu da bere unitate didaktikoen bitartez.

Geletan egindako diagnostikoarekin lotuta, NAHIKO! programarekin landu eta indargabetu beharreko **funsezko alderdi** hauek hauteman ziren:

- Ikasleek modu desberdinean eta hierarkizatuan erabiltzen dute gelako eta ikastetxeko esparru fisikoa, komunikazionala eta ahozkoa, errepresentatiboa eta abar.
- Neska eta mutilen partaidetza eta erantzukizuna desberdinak dira ikasgelako eta ikastetxetako bizikidetza- eta diziplina-arazoetan, eta mutilek indarkeria erabiltzeko joera handiagoa dute arazo horiek konpontzeko orduan.
- Elkarrekiko ezagutzarik eza eta harremanetan jarri eta elkarrekin bizitzeko zailtasunak neska eta mutilen artean. Horiek argi eta garbi islatu ziren honako esaldi hauen bitartez: "mutil batzuk pasatu egiten dira neskekin" eta "neskek paso egiten dute mutilez".
- Eredu maskulinoa gero eta gehiago hedatzen ari da, hura hartzen baita pertsona bakoitzarentzako eta gizartearentzako eredu baliagarri bakartzat. Hori argi eta garbi islatzen da honako esaldi hauetan: "neskak mutilak bezalakoak izatea da berdintasuna", horrek femeniinoa eta neskena den guztia ikusezin bihurtu eta gutxietsi egiten baitu.
- Neskek eta mutilek genero-eredu tradizionalak hausten dituztenean balorazio desberdinak egiten dira. Mutilek eredu hegemoniko maskulinoa apurtzen zutenean modu zorrotzagoan zigortzen zitzaizkien, eta mota honetako esaldi esanguratsuak adierazten zituzten: "ondo ikusita dago neska bat pixka bat mutila bezalakoak izatea" eta "mutil batek ezin du, inola ere, neskek bezalakoak izan".
- Mutilek eta neskek beren etorkizunari buruzko itzaropen desberdinak zituzten, baita etorkizunean beren buruak ikusten eta irudikatzen dituzten moduari dagokionez ere, eta horrek desberdintasun garrantzitsuak eragin ditzake etorkizunean, beren egunerokotasunean: neskek esparru pertsonalean, profesionalean eta familiarrean ikusi zuten beren burua eta mutilek, aldiz, esparru pertsonalean eta profesionalean.
- Neskek eta mutilek norbere buruarekiko pertzepzio eta definizio desberdinak egin zituzten, eta horiek garapen, ikaskuntza eta desberdintasun garrantzitsuak eragin ditzakete batzuen eta besteen bizitzako aukeretan: neska txukunak, eskuzabalak, zintzoak, atseginak, adeitsuak, arduratsuak, lasaiak... irakasleak, idazkariak, saltzaileak, zaintzaileak, zerbitzariak, ile-apaintzaileak, erizainak, albaitariak, modeloak... eta mutil sendoak, iaioak, ausartak, bihurriak, azkarrak, alferrak... sendagileak, suhiltzaileak, arotzak, iturginak, mekanikoak, kamioilariak, irakasleak, kirolariak...

1.3. HELBURU OROKORRAK ETA METODOLOGIA

NAHIKO! programaren helburu nagusia da ikastetxeetan eta gizartean **balioak aldatzea**, gizon eta emakumeen artean berdintasun handiagoa lortu ahal izateko. Horretarako, honako hauek dira programaren helburu nagusiak: berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako hezteak, ikasleen arteko bizikidetzak eta harremanak hobetzeak, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea. Hori lortzeko, programak honako ezaugarri hauek dituzten hezkidetzak-materialak eskaintzen ditu **bizikidetzak-eredu berriak** garatzeko:

- Nortasun pertsonal anitzak.
- Neska eta mutil bakoitzaren erabateko garapena eta autonomia.
- Guztiok bizitzako esparru guztietan dugun erantzukizuna.
- Pertsonen arteko harremanak inolako indarkeriarik gabe eraikitzea, esparru guztietan.
- Errealitatearen eta harremanen azterketa eta hausnarketa genero-ikuspegitik.

Hau da, ikasle guztiek, **neskek eta mutilek**, honako hauek egin ditzatela du helburu:

- Tratu txarrak eragiten dituzten faktoreak (hau da, desberdintasuna eragiten dutenak) eta tratu onak eragiten dituzten faktoreak (hau da, berdintasuna eta Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak eragiten dituztenak) aitortzea. Kasu guztietan, faktore horiek egunerokotasunean oinarritzen dira eta askotarikoak dira, sozializatu, hezi eta ereduak eskaintzen dituzte, eta pertsona bakoitzarengan (barneratu egiten dugu) eta gizarte-ingurunearengan (eragin, baldintzatu eta behartu egiten gaituzte) jarduten dute.
- Faktore horiek aztertu eta balora ditzatela, horiek gizabanakoengan nahiz taldeengan eragiten dituzten ondorioak eta emaitzak aztertuz, eta ahalik eta modurik askeenean eta sexua kontuan hartu gabe aukeratu eta erabaki dezatela zer eta nola izan eta zer egin nahi duten, zer erabaki hartu eta zein bide jarraitu nahi duten, baita beren bizitzeko moduari eta harremanetan jartzeko moduari dagokionez ere, gaur nahiz etorkizunean.
- Generoarekin lotutako estereotipo, rol eta ereduak gain, beste aukera batzuk ezagutu eta baloratu ditzatela, pertsona bakoitzaren ezaugarriak oinarritzat hartuta garatutako aukera pertsonalak alegia, horien sexua dena dela.
- Elkarrekiko ezagutza eta onospena hobetu dezatela, baita pertsona arteko harremanen klima eta eskolako bizikidetzak ere, gatazkak indarkeriarik gabe ebazteak eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartuz.

- Ikastetxeetan horien ikaskuntza eta hezkuntza hobetu dezatela; horretarako, irakasleak prestatu beharko dira genero-ikuspegiaren analisiari dagokionez, berdintasunerako eta giza eskubideetarako hezi ahal izateko hezkuntza-baliabideak erabiliz, berdintasunean oinarritutako harremanak aztertu eta eraikitzeke baliabideak erabiliz, eta azterketan, hausnarketan eta eskolako nahiz familiako elkarrizketan oinarrituz.

NAHIKO! programak honako ezaugarri hauek dituen **metodologia** erabiltzen du helburu horiek lantzeko:

- Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko ikaslearen adinaren bilakaerara egokitzen da, baita haren bilakaera-garapenera, eta haren interes eta premietara ere. Era berean, hezkuntza-garai horretako eta ziklo bakoitzeko eskola-curriculumaren helburuetara eta edukietara egokitzen da.
- Erraz egokitu eta txertatzen da tutoretza-esparruetara eta eskola-curriculumaren eremuetara. Gainera, erraz koordinatu eta bateratu eta txertatzen da ikastetxeak garatu ditzakeen beste programa batzuekin.
- Formatu erakargarria eta ludikoa du, mahai-jokoak, ipuinak, marrazkiak, abestiak eta abar erabiltzen baititu. Formatu berritzailea eta dibertigarria du, eta egindako esperientzia pilotuetan oso harrera eta balorazio ona izan ditu ikasleen aldetik.
- Ikaslearengana eta haren eguneroko errealitatera hurbiltzen da, hau da, ikasleen bizipen eta esperientzietara gerturatzen da, horien bizi-errealitatera eta ohiko interesetara, alegia. Ezohiko eduki horiek direla-eta, partaidetza oso altua izan da eta haren zentzu praktikoak oso balorazio ona jaso du egindako esperientzia pilotuetan, irakasle nahiz ikasleen aldetik.
- Pertsona arteko harremanetan (familian, ikastetxean...) eta norbere burua ezagutzeko, komunikatzeko, ulertarazteko, onartzeko, eraikitzeke... gaitasun sozialetan oinarritzen da, lagunekin nahiz irakasleekin, senitartekoekin, lagunekin... Esparru honetan mundu guztia da aditua, esparru horretan jende guztiak parte hartu, partekatu, ikasi eta irakatsi baitezake.
- Familiek ere parte hartu behar dute, horiek elkarrekin nahiz ikastetxearekin hitz egin, hausnartu, eztabaidatu, partekatu... behar baitute gaiei dagokienez eta baliabide berberak erabiliz, betiere neska eta mutilen arteko berdintasunerako hezkuntzan ikastetxearen eta familien arteko koordinazioa eta koherentzia bilatuz.
- Egindako esperientzia pilotuetan zehar, hura are gehiago indartu eta Emakunderen behaketa zuzenerako erreminta gisa, programak etengabeko jarraipena eta laguntza eskaini die irakasleei, saio bereziak diseinatu eta egin dira ikasle eta familiekin Emakunderen prestatutako langile batzuen kontura, eta zikloa amaitzeko topaketa eta ariketa bat egin dira, NAHIKO! Topaketa, esperientzian parte hartu duten ikastetxe guztiekin.

1.4. HELBURUAK ETA UNITATE DIDAKTIKOAK HEZKUNTZA ZIKLOEN ARABERA

Aurreko paragrafoan adierazi diren NAHIKO! programaren helburu orokorrak hurrengo helburu orokorretan eta hezkuntza-ibilbideetan (hiruhileko sei unitate didaktiko) zehazten dira, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan:

NAHIKO! 1-2: NI ETA NIK EGIN DEZAKEDANA. (ZU ETA ZUK EGIN DEZAKEZUNA).

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailerako NAHIKO! programa bi ideia nagusi hauek dituen lan-ardatz nagusi baten inguruan gauzatzen da: "Ni, neska edo mutila, eta nik egin dezakedana" eta "Zu, neska edo mutila, eta zuk egin dezakezuna".

- **Helburua:** Neska eta mutilen garapen integral osoa sustatzea, horien gaitasun guztietan, horien sexua dena dela eta gaitasun maskulinoak nahiz femeninoak baloratzuz eta nesken "nik egin dezakedan" horrek mutilen "nik egin dezakedan" horren eduki bera duen aztertuz, adin horretako ikasleen garapenarekin lotutako alderdi guztietan (gorputza, sentimenduak, autonomia, borondatea, bizikidetzeta eta abar).

— **Unitate didaktikoak:**

UD-1: Gorputza.

UD-2: Sentimenduak.

UD-3: Autonomia pertsonala.

UD-4: Mugak.

UD-5: Borondatea.

UD-6: Bizikidetzeta.

NAHIKO! 3-4: NI ETA MUNDUA, MUNDUA ETA NI.

- **Helburua:** Gizon eta emakumeen bizitzan eta autonomia pertsonalean zaintzak eta enpleguak duten balioa eta zentraltasuna azpimarratzea, horien harreman pertsonaletan eta sozialetan, eta gizartearen beraren garapenean, betiere gizon eta emakumeen berdintasunaren eta aniztasunaren ikuspegitik bizitzaren eta gizartearen interpretazio-narrazio handiak aztertuz (ipuinak eta narrazioak, komunikabideak eta abar).

— **Unitate didaktikoak:**

UD-1. Zaintza.

UD-2. Aniztasuna.

UD-3. Berdintasuna.

UD-4. Lanbideak.

UD-5. Komunikabideak.

UD-6. Elkarbizitza berdintasunez.

NAHIKO! 5-6: NI ETA NIRE FAMILIA, NIRE FAMILIA ETA NI.

- **Helburua:** Bikote-harremanak eta familia-harremanak berdintasunaren ikuspegitik aztertzea, betiere gizon eta emakumeek beren banako bizi-proiektua izateko eta aldatzeko duten eskubidea errespetatuz (mota guztietako harreman sentimentalak eta pertsona arteko harremanak aldatzea barne), tratu oneko familia-harremanak eta tratu txarreko familia-harremanak eragiten dituzten faktoreak identifikatuz, bizikidetza-unitatearen eredua dena dela.

— **Unitate didaktikoak:**

UD-1. Nor naiz ni?

UD-2. Bizitza-proiektua.

UD-3. Konpromisoa.

UD-4. Ez naiz bakarrik bizi.

UD-5. Giza eskubideak familian.

UD-6. Familian berdintasunez bizitzea.

Unitate didaktiko bakoitzak dagokion **irakasleen gida** gaineratzen du. Gida horretan behar bezala laburbiltzen dira unitateak duen gai nagusiaren funtsezko alderdiak eta kontzeptuak, haren helburuak eta edukiak, eta materialen deskribapena, helburuak eta edukiak (jolasak, ipuinak, koadernoak...), baita jolasak erabiltzeko arauak ere.

Gida didaktikoa erabilera-ildoak eta -jarraibideak barne hartzen dituen gida orokor ireki bat da, irakasle bakoitzak ikastetxe eta talde bakoitzaren premietara, aukeretara, estiloetara eta ohituretara erraz egokitu dezan, baita curriculum-eremu, lan-eremu, ordutegi-aukera eta programa desberdinetara ere. Horrenbestez, xedea ez da hiruhileko programazio xehatua izatea. Era berean, ez da irakasleentzako prestakuntza-gida oso bat. Egindako esperientzia pilotuetan,

prestakuntza hori hiruhileko bakoitzaren hasierako mintegietan garatu da. Prestakuntza presentzial horretan erabilitako txostenak eta materialak programaren behin betiko materialaren CD-an gaineratzen dira ("prestakuntza" karpeta). Prestakuntza-mintegi horietako txosten guztiak jasotzen dira bertan, gaiaren nahiz txostengilearen arabera artxibatuta, horien irakurketak unitate didaktiko bakoitzean jorratzen den gaia eta ikuspegia hobeto ulertzen lagun baitezake.

Bestalde, hiruhileko unitate didaktiko bakoitzak **jolas (jolasak eta ipuinak) eta ariketa-koaderno batzuk proposatzen ditu, ziklo bakoitzeko, ikasgelan bertan eta familian** erabiltzeko. Horiek adin bakoitzaren arabera egokituta daude eta ikasleen azterketa, hausnarketa, oharrak eta eztabaida eragitea dute helburu; horretarako (mota horretako dinamikak garatzen diren gainerako esparruetan bezala), ezinbestekoa da irakasleek motibazioa agertzea, parte hartzea eta ariketetan nahastea. Zentzu horretan, ez da ikasleak bere aldetik jarraitu eta erabil dezakeen testuliburu edo material bat egin nahi izan, taldean erabili eta lan egiteko material bat baik, galderak, hausnarketak, beste aukera batzuk, eztabaidak, argudiaketak eta abar proposatu-ko dituen, eta ez ziurtasunak eta erantzun unibokoak eskaintzen dituen.

- Hiruhileko unitate didaktiko bakoitzeko material kantitatea (jolasak eta koadernoak) oso zabalzat baloratu da ziklo guztietan, hiruhileko bateko tutoretza-orduetan erabil daitekeena baino zabalagoa. Unitate bakoitzak bi edo hiru material (jolasak eta ipuinak) eta dagozkien ikaslearen koadernoak dituela hartu behar da kontuan. Ikastetxe gehienetan maiz erabili dituzte materialak ikastetxeko beste jarduera eta curriculum-eremu batzuetarako (euskara, gaztelania, ingelesa, gizarte-zientziak, musika, plastika, gorputz-hezkuntza eta abar).
- Lehen zikloko ipuinen kasuan (unitate bakoitzak jolas bat eta koaderno batzuk ditu ipuinaz gain), ipuin bakoitzaren formatu ugari eskaintzen dira saioetan baliabide desberdinak erabili ahal izateko: audioa, irudiak, audioa eta irudiak, testu laburra, testu luzea... Horien birtartez, ahoz erabil daitezke hala egin nahi duten ikastetxeetan, edo irakur-idazketaren laguntzarekin, hala nahiago duten ikastetxeetan.

Jolasak eta ipuinak gelan taldean lan egiteko materialak eta dinamikak dira. Behatu, aztertu eta eztabaidatzeko aukera eskaintzen dute, besteak beste. Dinamika sinpleak eta ezagunak erabiltzen dituzte: familia-kartak, dominoa, bingoa, antzara-jokoa, partxisa, egia ala gezurra... Ikaslearen egunerokotasuna lanerako gai bihurtzea da horien helburua: esperientziak kontatu, gogoratu, hausnartu eta egoerak, sentimenduak eta harremanak aztertu...

Ziklo guztietarako **NAHIKO!** materialek irudi batzuk eta berezko hiztegi terminologiko, kontzeptual eta sinboliko jakin bat sortu eta garatzen dute, eta ziklo bakoitzaren hasieran batez ere, ahalegin handia eska dezakete ikasle eta irakasleen aldetik. Hiztegi hori ere programaren helburu garrantzitsu bat da. Kontzeptuzko aberastasun handiagoa eta azterketa eta komunikaziorako erraztasun eta matizazio handiagoa eskaintzen ditu. Kontzeptu, termino edo material jakin bat ikasle talde batentzat egokiena ez izatea gerta baliteke ere, oro har, zailtasun-sentimendu hori txikiagotzen joan da zikloan zehar materialen ibilbide osoa egin duten ikasleentzat

eta irakasleentzat egindako esperientzietan zehar. Gainera, "hizkuntza edo hiztegi propio" horren erabilerak eta balorazioak gora egin du ziklo bakoitzeko bi ikasturteetan zehar, esperientzia pilotu bakoitzaren lorpen handienetako bat izatera iritsi arte. Izan ere, beste modu batera jorratzea ezinezkoa izango lirakekeen egoerak eta gaiak lantzeko aukera eskaintzen du, naturaltasunez eta baliabideak erabiliz.

Unitate didaktiko bakoitzak **bi jarduera-koaderno** ditu: "ikaslearen koadernoak" (ipuinak eta jolasak taldean landu eta jolastu ostean gelan lan egiteko) ikasitakoa laburbiltzea eta barnertzea ahalbidetzen du, baita ikasitakoa finkatzea eta ondorioak ateratzea ere; "familia-koadernoak" (etxera eraman eta bertan lan egiteko), aldiz, familiak sentsibilizatu eta horiekin hausnartu, partekatu eta eztabaidatzeko aukera ematen du, eskolan landutakoa etxera hedatzeko.

1B. EZARRITAKO ESPERIENTZIA PILOTUAK:

1.5. NAHIKO! SAIO BEREZIAK IKASLEEKIN ETA FAMILIEKIN

NAHIKO! programaren esperientzia pilotu bakoitzeko bi ikasturteetan zehar, Orebe hezkuntza-aholkularitzak diseinatu, prestatu eta koordinatu zituen hiruhileko saio bereziak Emakunderentzat, Emakundek horiek ikasleekin eta familiekin zuzenean gauzatu zitzen. Horiei guztiei esker, horiek burutu dituzten irakasleen ohar eta ondorio interesgarriak atera ahal izan dira. Horiek bi urtez behin egindako esperientzia pilotu bakoitzeko paragrafoetan jasotzen dira.

IKASLEEKIN egindako saioak bereziak izan dira, horien iraupenagatik (bi ordu), eduki ludi-koagatik (ez dira oso ohikoak hezkuntza formalean) eta parte hartu duten ikastetxeetatik kanpoko langileek egin dituztelako (saiotarako bereziki hautatutako, trebatutako eta prestatutako begiraleak), hain zuzen. Begirale horiek hezkidetzaren eta aisialdi-dinamiken inguruko aurretiko prestakuntza eta esperientzia zuten kasu guztietan, eta egindako esperientzia pilotu gehienetan, Urtxintxa Eskolako begiraleak izan dira.

Hiruhileko unitate didaktikoarekin zuzenean lotuta zeuden eta talde edo ikasgela parte-hartzaile guztiekin egindako saio horiei esker, ikasleen azterketa eta jarraipen zuzena egin ahal izan da programaren eta haren helburu eta edukien garapenari dagokionez.

Parte hartu duten irakasleek oso modu positiboan baloratu dituzten saio horiek honako **helburu** hauek izan zituzten:

- Ikasleei programarekin jarraitzeko motibazio berezia eskaintzea, eta familiei hura ezagutu eta familia-hezkuntzan ikastetxearekin batera txertatzeko informazioa eta prestakuntza eskaintzea.
- Irakasleei laguntza berezia eskaintzea, hala, ikasleekin egindako asteko lana sustatu eta sendotzeko, eta familien ulermena eta konplizitatea areagotzeko.
- Unitate didaktikoen material eta dinamika osagarriak eta koherenteak txertatzea.
- Programaren garapenaren jarraipen zuzena egitea eta, hura ebaluatu ahal izateko, talde parte-hartzaile guztietan ariketa estandar bera egitea.

Erabilitako **metodologiak** jolasa, esperientziak, azterketa eta hausnarketa izan zituen oinarri. Horretarako, taldean jolastu eta lan egiteko dinamikak erabili ziren, ikasleek jolas sinboli-

koen bitartez beren egunerokotasuna bizitu eta aztertu ahal izateko. Begiraleek (neska bat eta mutil bat) jarduera horiek dinamizatu zituzten talde guztietan.

Batzuetan, jolasak sexuaren arabera bereizitako taldeetan egin ziren (neskak begirale nekarekin eta mutilak begirale mutilarekin), talde berezien bitartez neska-mutilen partaidetza handiagoa baitzen jarduera jakin batzuetan. Gainera, talde horiek galderak egin, hausnartu, eztabaidatu, laburbildu eta ondorioak ateratzeko erraztasun edo erosotasun handiagoa eskaintzen zuten. Kasu horietan, saioaren aurretik eta, batez ere, saioaren ostean, neska-mutilek talde bereizietan bizitutako esperientzia alderatzen zuten.

FAMILIEKIN egindako hiruhileko saioak (sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak) ere oso bereziak izan ziren, horien iraupenagatik (ordu eta erdi), edukiagatik (ez oso ohikoa ikastetxeetan) eta ikastetxetik kanpoko pertsonak burutu zituztelako (saioetarako bereziki hautatu eta prestatutako begiraleak). Pertsona horiek berdintasunarekin eta pertsona helduen prestakuntza-prozesuekin lotutako aurretiko esperientzia eta prestakuntza zuten, kasu guztietan.

Familiekin gauzatutako saio berezi horiek hiru zati berezi eta osagarri osaturiko **programa** bat izan zuten oinarri gisa:

- Hiruhileko unitate didaktikoaren ezagutza. Bertan, honako saio hauek egin ziren: ikasleek gelan erabilitako materialen aurkezpena, irakasleek ikasleekin izandako esperientzia eta hiruhileko ondorio garrantzitsuenak.
- Unitatea amaitzean, hau da, hiruhilekoaren amaieran, ikasleek etxera eraman zuten familiaren koadernoaren aurkezpena. Haren helburua gelan jorratutako gaiak familian partekatzea, galdetzea, hitz egitea... zen, hau da, eskolan egindako funtsezko ikaskuntzak laburbiltzea eta finkatzea eta, batez ere, ikastetxearen eta familien arteko koordinazioa, koherentzia eta lankidetzaren sendotzea.
- Hiruhileko unitate didaktikoaren gai nagusiari buruzko azterketa, prestakuntza eta elkarrizketa. Horietan hainbat saio egin ziren berdintasunaren, hezkidetzaren, hiruhileko gai nagusiaren eta abarren inguruko material osagarrien laguntzarekin (power point aurkezpenak eta abar), familien zalantzei, zailtasunei, gomendioei eta abarrei erantzunez.



**2. LAIKO! 1-2, LEHEN
HEZKUNTZAKO LEHEN
ETA BIGARREN MAILAK**

2A. NAHIKO! PROGRAMA 1-2:

2.1. UNITATE DIDAKTIKOEN PLANTEAMENDUA ETA IBILBIDEA. HELBURUAK ETA EDUKIAK

Ni eta nik egin dezakedana (zu eta zuk egin dezakezuna) gisa adierazitako unitate didaktikoaren helburu nagusia neska-mutilen garapen integralari dagokio, horien potentzialtasun osoa kontuan hartuta eta sexua dena dela.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa ikasleen **bilakaera-momentu** bati dagokio eta, bertan, ikasleek hazteko eta ikasteko interes handia adierazten dute, gauzak beren kabuz egiteko nahia, alegia. NIK NEUK EGIN DEZAKET:

- Lehen egiten ez nituen gauza asko egin ditzaket. Jakin-min handia izan. Familia-ingurune-tik atera.
- Helduen ereduak kopiatu. Aita edo amen irudiak. Nire sexua identifikatu.
- Bizikidetzarako arauak eta balioak ikasi eta praktikan jarri. Emozio eta beldur berriak sentitu. Enpatia sentitu.
- Jolasaren ezagutza fisikoa eta soziala bereganatu. Lankidetzan eta lehian jarduteko jolasak.
- Arreta, humorea, memoria, arrazoibidea eta abar garatu.
- Jarrera eta arnasketa, albokotasuna eta gorputzaren eskema kontrolatu.

Ziklo honetako ikasleek lehen egiten ez zituzten gauza asko egin ditzaketela deskubritzen dute. Bakarrrik egin ditzakete gauza horiek guztiak, pertsona helduen laguntzarik gabe. Helduak direla aldarrikatzen dute, probak egiten, ikasten, egiten... uztea nahi dute. Hazi! Oro har, konfiantza maila altua dute beren gaitasunei dagokienez: Nik jantzi, jan, zapatak lotu, eraman, eka-
rri, kokatu, garbitu, korri egin, salto egin, piztu, itzali, margotu, erosi, moztu, irakurri... dezaket. Nik pentsatu, hitz egin, kontatu, amestu, sentitu, aukeratu, egin, esan, isildu, kontatu, sailkatu, laburbildu... dezaket. Nik negar egin, barre egin, gozatu, sufritu, maitatu, kanporatu, itsatsi, errespetatu, gaineratu, musu eman, besarkatu, laztandu... dezaket. Nik egin dezaket!

Lehen Hezkuntzako **1. eta 2. mailetako NAHIKO! logoak** oinezkoen pasabide bateko bi semaforo irudikatzen ditu.

Lehenengoak ez igarotzeko semaforo gorri bat irudikatzen du eta geldirik dauden mutiko baten eta neska baten siluetak ditu. Bata eta bestearen artean, elkarrengandik bereizten dituen lerro bat dago, desberdintasuna, errespeturik eza eta indarkeria irudikatzen dituena. Neska-mutilen "nik egin dezaket" horri aplikatutako genero arloko rol, estereotipo eta aurreiritzien emaitza da: ezin dute aurrera egin (semaforo gorri asko daude neskentzat nahiz mutilentzat), eta baimenduta dauden alderdiei dagokienez, ezin dute modu berean aurrera egin (semaforo berde batzuk daude neskentzat eta beste batzuk mutilentzat).

Bestea, berdintasunean, errespetuan eta indarkeriarik ezan oinarrituz ibili eta hazten diren mutiko eta neskato baten siluetak agertzen diren aurrera jarraitzeko semaforo bat da. Ikasleen "nik egin dezaket" horri giza eskubideak eta berdintasuna aplikatzearen emaitza da: biek egin dezakete aurrera (ez dago semaforo gorririk horien sexuagatik) eta modu berean egin dezakete aurrera (semaforo berdeak unibertsalak dira, neskentzat nahiz mutilentzat).

Bi semaforoaren artean, NAHIKO! programaren bitartez berde bihurtu nahi dira semaforo gorri guztiak (desberdintasunetik berdintasunera eta giza eskubideetara), baita gure ikasleek semaforo horien eta "nik egin dezaket" horren inguruan duten ikuspegia ere. Ikasle guztiek beren gaitasun berriak garatzeko aukera eta baldintza berdinak dituzten ala ez ikustea da kontua. Hau da, nesken "nik egin dezaket" eta mutilen "nik egin dezaket" horiek berdinak ote diren edo, aitzitik, desberdinak diren eta, hala bada, desberdinak zergatik diren aztertzea. Nesken "egin dezaket" horrek mutilen "egin dezaket" horren aukera berak, babes berak, errespetu eta balio berberak izan ditzala lortzea da helburua.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren lehen unitatearen, hau da, "Gorputza, berdintasunez hazi" unitatearen helburu nagusia gorputzaren garapen psikomotorrarekin lotutako alderdiak lantzea da, garapen hori funtsezkoa baita neska eta mutilen arteko autoestimua, berdintasuna eta elkarrekiko tratua onak lortzeko. Ikasleak gorputzean eta bertan gertatzen diren aldaketa guztietan konturatzen dira, hain zuzen, hazten ari direla eta gaitasun berriak egin eta garatu ditzaketela. Lehenengo unitate didaktikoaren bitartez, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Ikasleek neskek balora ditzatela, beren gorputzak, aukerak eta gaitasunak, ikaskuntzak eta lorpenak mutilenak bezainbeste baloratuz. Nesken autoestimua handiagoa eta mutilen errespetu handiagoa lortu nahi dira, neskek eta nesken gorputzek mutilek baino balio gutxiago dutela pentsa ez dezaten.
- Ikasleek neska-mutilek beren gorputzekiko duten pertzepzioa, onospena eta balorazioa ezagutu dezatela eta, beraz, neska-mutilek beren gorputzen aukerak eta gaitasunak ezagutu eta horien artean desberdintasunik ba ote dagoen egiazta dezatela.

- Ikasleek neskek (salto egin, jaurti, bota, errodatu, oiuhu egin...) eta mutilek (negar egin, besarkatu, laztandu, dantza egin, ukitu...) beren gorputzei dagokienez barneratuta dituzten semaforo gorriak identifika ditzatela. Horiek aztertu eta desaktiba ditzatela. - Mutilek beren gorputzekiko barneratuta dituzten (negar egin, besarkatu, laztandu, dantza egin, ukitu...) eta neskek beren gorputzekiko barneratuta dituzten (salto egin, jaurti, bota, errodatu, oiuhu egin...) semaforo gorriak identifika ditzatela. Horiek aztertu eta desaktiba ditzatela.
- Neskek beren gorputzei eta mutilen gorputzei dagokienez barneratuta dituzten semaforo berdeak identifika ditzatela. Horiek aztertu eta edozein neska edo mutilentzat unibertsalizatu ditzatela. Mutilek beren gorputzei eta nesken gorputzei dagokienez barneratuta dituzten semaforo berdeak identifika ditzatela. Horiek aztertu eta edozein neska edo mutilentzat unibertsalizatu ditzatela.
- Norbere gorputzean eta bakoitzak dituen aukeretan oinarritutako "egin dezaket" bat eraiki dezatela, eta ez sexuan oinarrituz.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren bigarren unitatearen, hau da, "Sentimenduak, berdintasunez sentitu" unitatearen bitartez, genero-estereotipoek emakume eta gizonentzat finkatzen dituzten sentimenduak aitortzeko, izendatzeko eta kudeatzeko modu desberdinak jorratzen dira. Ikaskuntza emozional horren bidez nortasun pertsonal, adimen emozional eta harreman sozial desberdinak garatzen dira kolektibo horien artean, eta hori norbanakoen aniztasun eta garapen emozional orekatuaren aurka dago, zalantzarik gabe.

- Oro har, mutilek nesken emozioak eta sentimenduak garatu ezin ditzaketela eta garatu behar ez dituztela pentsatzen dugu. Hau da, semaforo gorri bat jartzen dugu nesken jarrera "natural" eta "egokitza" jotzen ditugun esperientzia, ikaskuntza eta garapen emozionalen aurrean (sentsibilitatea, samurtasuna, enpatia, alaitasuna, maitasuna, lasaitasuna, lotsa, beldurra...). Eta alderantziz, neskei semaforo gorria jartzen diegu (edo berdea mutilentzat bakarrik) mutilen jarrera "natural" eta "egokitza" jotzen ditugun esperientzia, ikaskuntza eta garapen emozional jakin batzuen aurrean (oldarkortasuna, balioa, haserrea, harrotasuna, baikortasuna, amorrua, zeloak, poztasuna, urduritasuna...).
- "Mutilek ez dute negarrik egiten" eta "Neskek sentiberagoak dira" esaldiek generoaren aurreikuspen eta mandatu soziala irudikatzen eta laburbiltzen dute nesken eta mutilen hezkuntza emozionalari dagokionez. Hau da, neska eta mutilengandik espero dena. Horrenbestez, negarrik egiten ez duten eta "horren sentiberak ez diren" neskek eta, batez ere, negar egiten duten eta "sentiberagoak diren" mutilek zailtasun erantsiak dituzte, espero den eta beren sexua kontuan hartuta kontzienteki nahiz inkontzienteki, inplizitu nahiz esplizituki irakasten zaien genero-ereduari erantzuten ez dietelako.
- Unitate didaktiko honen helburua da neska-mutil guztiek beren sentimenduak adierazteko eta esperimentatzeko aukera berdinak izan ditzatela, onespren eta babes berarekin, erres-

petu eta balio berarekin. Horretarako, unitate honen bidez neska-mutilek beren emozioak onartu eta identifikatu eta, horrela, horiek kudeatzen ikas ditzatela lortu nahi da, sexuaren arabera desgoki edo hutsaltzat jotzen direnak katalogatu eta erreprimitu gabe.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren hirugarren unitateak, hau da, "Autonomia, berdintasunez jardutea" unitateak garapen autonomoa eta erantzukizun pertsonala proposatzen ditu, pertsona bakoitzaren sexua dena dela. Horrela, pertsona bakoitza gainerakoekin berdintasunean oinarrituz izan dadila eta berdintasunez jardun eta harremanetan jar dadila bermatzen da.

- "Mutilak ez dira geldirik egoten" eta "Neskek lasaiagoak eta txukunagoak dira" esaldiek generoaren aurreikuspen eta mandatu soziala irudikatzen eta laburbiltzen dute, gure gizartean, neskek eta mutilek duten autonomiari eta jarduteko erantzukizunari dagokionez. Hau da, nesken eta mutilengandik espero den jarduteko modua, nesken eta mutilen autonomiari dagokionez sustatzen eta garatzen dena. Hori dela-eta, neskek eta mutilek beste modu batera ikasten dute pertsona autonomoak izaten eta arduradun izaten, norbere buruari, objektuei, jardueri, etxeari, sozibilitateari, harremanei, bizitza partekatuari, inguruko pertsoneri eta abarrei dagokienez.
- Oro har, neskek beren buruarekiko, irudiarekiko, higienearekiko... arduradun eta autonomo izaten ikasten dute, baita beren objektuei, jolasei, arropi, motxilari, idazmahaiari... beren jokoei, jardueri, ikasketei... beren oheari, armairuari, logelari, etxeari... beren komunikazioei, trukeei, harreman pertsonalei... beren esku-hartzei, horien ondorioei... elkarrekin egin beharreko lanei, lan partekatuei... inguruko pertsoneri, taldeari eta abarrei dagokienez ere.
- Oro har, mutilek beren garapen fisikoarekiko eta motorrarekiko arduradun eta autonomo izaten ikasten dute, baita beren aukera zinetikoei, beren itxurari eta inpaktu bisualari... beren espazio fisikoaren kontrolari, ekintza-inguruneari, hedatzeko aukerei... aurreko jarduketetarako beharrezkoak diren erremintei, jolasei... jolasetatik, ariketatik, jarduketetatik... eratorritako trebetasunei eta gaitasunei... beren munduari eta mugitzeko, esperimentatzeko, esploratzeko, ihes egiteko... aukerei, beren gustuei, lehentasunei, proiektuei, ideiei... beren lorpeni, erronkei, arrakastei, porrotei... beren independentziari, originaltasunari, espezifikotasunari... beren aurkariei, aliatuei... dagokienez ere.
- Neskek eta mutilek modu autonomoan eta arduratsuan jarduteko aukera berberak izan ditzatela lortzea da unitate didaktiko honen helburua, beren bizitzetako esparru guztietan. Horretarako, motibazio, ikaskuntza eta balorazio sozial berberak jaso behar dituzte. Hori dela-eta, unitate honen bitartez neska-mutilek autonomiaz jarduteak esan nahi duena aitortu eta identifikatu dezatela lortu nahi da, beren bizitzako esparru guztietan eta neskek edo mutilak diren axola gabe.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren laugarren unitateak, hau da, "Mugak, berdintasunez ikasi" unitateak neska eta mutilentzako ikaskuntza- eta gaikuntza-esparru desberdinak ikustarazten ditu, betiere erabaki akademiko-profesionalei eta estereotipo bihurtutako prestakuntza-ibilbideei jarraitu gabe.

- Oro har, mutilei semaforo berde gehiago jartzen dizkiegu autoberrespenarekin, presentzia fisikoarekin, garapen zinetikoarekin, jarduera motorrarekin, esperimentazioarekin, esplorazioarekin eta mugimenduarekin lotutako esperientzien, ikaskuntzen eta jarrerren kasuan, eta semaforo gorri edo muga gehiago norberaren zaintzarekin, komunikazioarekin, erantzukizunarekin, zaintzarekin eta jarduera sozialarekin, elkarrizketarekin, egokitzapenarekin eta malgutasunarekin lotutako esperientzien, ikaskuntzen eta jarrerren kasuan.
- Oro har, neskei semaforo berde gehiago jartzen dizkiegu norberaren zaintzarekin, komunikazioarekin, erantzukizunarekin, zaintzarekin eta gizarte-jarduerarekin, kontserbazioarekin, egokitzapenarekin eta malgutasunarekin lotutako esperientzien, ikaskuntzen eta jarrerren kasuan, eta semaforo gorri edo muga gehiago norberaren berrespenarekin, presentzia fisikoarekin, garapen zinetikoarekin, jarduera motorrarekin, esperimentazioarekin eta esplorazioarekin lotutako esperientzien, ikaskuntzen eta jarrerren kasuan.
- Gizarteak jarrera desberdinak ahalbidetzen eta saritzen ditu neska eta mutilengan. Gizartemuga horiek gabe, neskek eta mutilek gauza berak ikasi eta antzeko emaitzak lor ditzakete. Askotan, gizarteak diskriminazio hori sustatzen du batzuei eta besteei gauza desberdinak "gustatzen zaizkiela" esanez. Baina gustua ikasi, sustatu, saritu, irakatsi eta erraztu egin daiteke gizartearen aldetik, horiei sariak, jolasak, esker onak, laguntzak eta abar eskainiz, horrela, neskak eta mutilak heziz.
- Neskek mutilen gauza berberak ikas ditzakete. Baina, kasu batzuetan, gizartean ez dira horiek espero edo sendotzen, eta neskek mota horretako gauzak ikasi behar ez dituztela ulertzen dute. Eta gauza bera gertatzen da mutilekin. Bistakoa da neskek eta mutilek gizartean nahiz familian batzuei edo besteei bakarrik esleitzen zaizkien gauzak ikas ditzaketela. Hori hala izango litzateke ikasteko mugarik izango ez balute, neska edo mutila izateagatik jarritako etiketak desagertuko balira, eredu tradizionalak mugatu, pobretu eta sailkatu besterik egiten ez baitute. Horrela, beren gaitasunen eta gustuen arabera ikasi ahal izango lukete.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren bosgarren unitatearen, hau da, "Borondatea, berdintasunez aukeratzea" unitatearen helburua da neska eta mutil bakoitzak bere etorkizuna aukeratzeko, planifikatzeko eta sortzeko duen gaitasuna sustatzea, betiere bakoitzaren gus-tuak, premiak, ezaugarriak... kontuan hartuta, eta inolako genero-konnotaziorik gabe.

- Denbora-erabilerei, ohiturei eta bizitzeko moduei buruzko estatistikek erakusten diguten moduan (kirol-jarduera, kontsumoa, harremanak, jarrera arriskutsuak...), neskak eta mutilak modu desberdinean bizi dira. Horiek egindako ikasketei eta lanbideei buruzko datuen

arabera, eta azken urteetan nolabaiteko bilakaera bizi arren, eremu batzuek oso maskulinizatuta (teknikoak, teknologikoak) eta beste batzuek oso feminizatuta (osasun arlokoak, gizar-tezientziak) jarraitzen dute oraindik ere. Datu horiek oinarritzat hartuta, nesken eta mutilen nahiak, gustuak eta borondatea nola eraikitzen diren galdetu eta hausnartu dezakegu, baita neskek eta mutilek duten aukeratzeko benetako askatasunari eta horiek "normaltzat" jotzen dituzten aukeren aniztasunari dagokienez ere, hau da, batzuei eta besteei eskaintzen dizkiegun aukerei dagokienez.

- Sozialki, emakumeentzat eta gizonezkoentzat aproposagoak diren bizitzeko moduak, nahiak, gustuak, proiektuak, ohiturak, lanbideak, zaletasunak, eginkizunak, ikaskuntzak, ikasketak... daudela pentsatzen dugu. Eta askotan, aukera horietatik dira, hain zuzen, gizar-tearen, familiaren, ikastetxearen eta abarren aldetik gure ikasleei eskaintzen dizkiegunak, eta "normaltzat eta naturaltzat" jotzen dugu neska batek aukera femeninoak aukeratzeko (gimnastika erritmikoa edo balleta, panpinekin jolastea, neskekin harremanetan jartzea...) eta mutilek, aldiz, aukera maskulinoak (futbola, autoekin jolastea, mutilekin harremanetan jartzea...) aukeratzeko. Eta hori guztia sexuaren arabera, eta ez beren ezaugarri pertsonalen arabera.
- Gure ikasleek kolore arrosa edo urdina "aukeratu", "nahiago" edo "gustukoa" izateak genero aldetik egiten diren muga sozialak irudika ditzake modu sinbolikoan eta sinplean. Gure ikasleek duten adinerako, mutilek ikasi dute dagoeneko arrosa ez dela beraientzako kolorea, neskenentzako kolorea dela, alegia, eta neskek ere bai arrosa beren kolorea dela. Ez da beharrezkoa berariak esatea, jaiotzen direnetik ikusten baitute jantzen dituzten arropetan, beren bizikletaren kolorean, logelako hormetan, oparietako begiztetan... beren bizitzan nahiz inguruan dituzten neska-mutilen bizitzetan. Aukerak bi kolore horietara mugatzen dira, ikasle bakoitzak bere gustuaren arabera aukeratu zitzakeen beste kolore asko izan arren.
- Unitate didaktiko honen bitartez, ikasleek urdina eta arrosa (eta horiek duten eduki sinboliko guztia) beste bi kolore gisa ikus ditzatela lortu nahi da, neskek nahiz mutilek aukeratu ditzaketen bi kolore gisa, alegia. Ahalik eta gehien handitu nahi da bizitzako (koloreen) aukeren sorta, "nik nahi dut/aukeratzen dut" hori modu pertsonalean eta askean egin dezaten. Neskek eta mutilek aukera sorta osoa kontuan hartuta aukeratzeko gai izan behar dute gustuei, nahiei, proiektuei, ametsei, ohiturei, harremanei, zaletasunei, jarduera fisikoari, kirol-jardunari, arropa motari, ikasketei, lanbideei eta abarrei dagokienez.

1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren seigarren unitatearen bitartez, hau da, "Bizikidetzaren berdintasunez elkarrekin bizitzea" unitatearen bitartez, ziklo osoan zehar garatutako programa indarkeriarik gabeko bizikidetzaren proposamen batean laburbiltzen da, berdintasunean, giza eskubideetan eta elkarrekiko tratuan onetan oinarrituz.

- Sexuen arabera bereizitako bizikidetzarako hezkuntzak oso ondorio txarrak eragiten ditu neska eta mutilengan nahiz bizikidetzan, gizarteak eta ikastetxeak "normaltzat" jo arren. Oso rol, aukera eta estatus desberdinak esleitzen dizkiete neska-mutilei, batzuk protagonista (oro har, mutilak) eta beste batzuk bigarren mailako pertsonaia (oro har, neskak) bihurtuz. Bestalde, sexuaren arabera bereizitako hezkuntza hori bizikidetzako arazo eta gatazka askoren oinarria da, batzuen oldarkortasuna eta indarkeria (oro har, mutilena) eta besteen pasibotasuna eta mendekotasuna (oro har, neskena) sustatzen baitira.
- Unitate didaktiko honen helburua da neskek eta mutilek beharrezko gaitasunak identifikatu eta garatu ditzatela eta beren harremanak eta bizikidetzak berdintasunean, errespetuan eta indarkeriarik ezan oinarrituz eraiki ditzatela. Horretarako, neskek eta mutilek gaitasun horiek garatu behar dituzte, bereizketak egiten dituen sozializazioa gaindituz eta horiek beren gaitasunen arabera garatuz, eta ez sexuaren arabera.
- Unitatearen bitartez bizikidetzaren azken zentzua identifikatu eta aitortu dezatela lortu nahi da: bizikidetzak horri esker, elkarrekin bizi diren pertsona guztien bizitza hobea izan dadila. Hau da, pertsona bakoitzak bere bizi-proiektua garatzeko baldintza hobek izan ditzala, erantzukizunen eta eginkizunen banaketa aztertuz eta elkarrekin bizi diren pertsona guztiek elkarrekiko zaintza eta ongizatea jasotzen dutela bermatuz.
- Unitate didaktikoak aldaketa, krisi eta bizikidetzazailtasunei emandako irtenbideak bilatu eta aztertu ditzatela proposatzen du. Halere, irtenbide horiek bat etorri beharko dute berdintasunarekin eta giza eskubideekin, eta pertsona bakoitzaren bizi-aukerak bermatu beharko dituzte, horiek gainerakoentzat inposatzaileak edo kaltegarriak ez direla bermatuz: errespetua agertu, parte hartu, enpatia erabili, elkarri entzun, iritzia eman, ados jarri, erabakiak taldean hartu, onartutako akordioak eta arauak errespetatu...

2.2. LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! MATERIAL DIDAKTIKOAK

Orebe hezkuntza-aholkularitzak Emakunderentzat sortu eta garatutako NAHIKO! materialak **hiruhileko unitate didaktiko baten** inguruan egituratzen dira. Horregatik, Lehen Hezkuntzako lehen zikloari dagokion materialak ipuin eta joko originalez osaturiko sei unitate didaktiko hartzen ditu barne, hiru ziklo horretako maila bakoitzeko.

NAHIKO! ipuinen ekintza (ziklo honetan bakarrik dago material hori) Berdinlandean gartzen da, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspuntutik eredu positiboak (semaforo berdeak) eskaintzen dituen alegiazko herrialde bat. Askotan, gure ingurunean estereotipatuta dauden ohiko desberdintasunen ordezkotako ereduak eta egoerak islatzen dituzte. Ipuinaren

protagonistak ikasleen adin bereko neska-mutil batzuk dira. Ipuin bakoitzak gai nagusia laburbiltzen duen abesti bat gaineratzen du. Ipuinak hainbat formatuko CD batean eskaintzen dira: audio, irudiak, irudi audiodunak, testua...

UNITATEAK	JOLASAK	IPUINAK ETA ABESTIAK
LHKO 1. MAILA		
1. Unitate didaktikoa. Gorputza	"Gorputzaren altxorra"	"Luze eta Txiki"
2. Unitate didaktikoa. Sentimenduak	"Sentimenduen altxorra"	"Bero eta Hotz"
3. Unitate didaktikoa. Autonomia	"Kamera eta... ekin!"	"Indar eta Atsegin"
LHKO 2. MAILA		
4. Unitate didaktikoa. Mugak	"Bizitza biderkatzeko taula"	"Trebe eta Tximista"
5. Unitate didaktikoa. Borondatea	"Zerrenda"	"Buru eta Sorgin"
6. Unitate didaktikoa. Bizikidetzak	"Gakoa"	"Una noche en el albergue"

Material horiek guztiak Emakunderen web orri honetan aurkituko dituzu (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde ➔ Nahiko! ➔ Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (1. eta 2. mailak), unitate didaktikoak:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahikcon/es/contenidos/informacion/nahiko_materialak/es_unidades/primer_ciclo_primaria.html

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 1. UNITATE DIDAKTIKOA: GORPUTZA

"LUZE ETA TXIKI" IPUINA:

- Ipuinak nesken eta mutilen artean gorputz desberdinak eta anitzak dituzten pertsonaiak islatzen ditu. Norberaren gorputzarekiko eta elkarren artean duten harremanarekiko pertzepzio eta balorazio positiboaren ereduak. Pertsonaiak, hau da, Berdinlandeko neska-mu-

tilak, oso kontentu daude beren gorputzekin. Beren aukerak, zailtasunak eta gaitasunak onartu, errespetatu eta baloratzen dituzte. Baita beste pertsonen gorputzenak ere.

- Ipuinaren helburua da gizabanakoen aniztasunak onura eta desabantaila pertsonalak sor ditzakeela erakusten duen eredu bat ezagutaraztea, horrek batu egiten baitu eta, beraz, abantaila eta aberastasun bat baita talde osoarentzat eta gizartearentzat (ipuinaren kasuan, sute-alarmaatik ikastetxea hustu behar denean).

"GORPUTZAREN ALTXORRA" JOLASA:

- Jolasak 5 familiaz osaturiko 4 karta sorta ditu: pertsonaiak (4 neska eta 4 mutil), gorputzaren funtzioak (salto egin...), gorputzeko atalak (ahoa, garuna...), gorputzaren ekintzak (jollatu, ikasi...), gaitasunak (adimena...). Jolasaren dinamika: domino moduan.
- Jolasaren helburua da ikasleek beren gorputzeko zati berdinak eta desberdinak identifikatzea, baita neskek eta mutilek beren gorputzekin egin ditzaketan gaitasunei, funtzioei eta jardueri dagokienez desberdintasunik ez dagoela ikastea ere, horien sexua dena dela.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

2. UNITATE DIDAKTIKOA: SENTIMENDUAK

"BERO ETA HOTZ" IPUINA:

- Ipuinak emozio-ezaugarri desberdinak dituzten bi pertsonaia gaineratzen ditu: Berok hunkiberatasun gehiegi eta kontrolik eza irudikatzen ditu: kontraesana eta blokeo emozionala. Hotzek, berriz, hunkiberatasunik eza eta enpatia adierazten ditu: "autismo" emozionala.
- Helburua da sentimenduak identifikatu, izendatu eta kudeatzen diren alternatiba bat eskaintzea, horiek oso ohikoak baitira ikaskideen artean. Bi pertsonaia nagusiek ulermen- eta harreman-arazoak dituzte ikaskideekin. Lagunekin batera, elkarren artean beren emozioak identifikatzen, komunikatzen eta kudeatzen dituzte, nahi duten bezala bizi eta jolasteko (elurrarekin gozatuz).

"SENTIMENDUEN ALTXORRA" JOLASA:

- Jolasak 4 karta sorta ditu eta karta sorta bakoitzak 18 karta (9 sentimendu x horietako bakoitzaren 2 irudi, neska bat eta mutil bat).

- Ikasleek norbere burua identifikatu eta sentimenduak identifikatzea da jolasaren helburua, neskak nahiz mutilak izan, hau da, horien sexua dena dela.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

3. UNITATE DIDAKTIKOA: AUTONOMIA

"INDAR ETA ATSEGIN" IPUINA:

- Ipuinak jarduteko oso modu desberdinak dituzten bi pertsonaia aurkezten ditu: Indar presentzia handiko eta fisikoki oso aktiboa den neska bat da, eta honako hau dio beti: "Zergatik ez? Heldua naiz dagoeneko". Atsegin, aldiz, oso komunikatzaile eta argudiatzaile ona den mutil bat da, eta honako hau proposatzen du beti: "konbentzituko ditugu. Denon artean egin dezakegu!".
- Ipuinaren helburua da bi pertsonaiek beren jarduketak batu eta beren proiektuaren (ikas-tolaren ondoan parke bat sortzea) lidergoa partekatzen duten alternatiba bat aurkeztea. Hura taldearekin partekatzen dute eta, beraz, pertsonaia guztiek jarduten dute eta batzen dute, bakoitzak nahi duen, dakien edo ahal duen neurrian.

"KAMERA ETA...EKIN!" JOLASA:

- Jolasak 6 fitxa multzo ditu eta bloke bakoitzak 16 fitxa ditu 4 puzzle egiteko. Puzzle bakoitzak lau fitxa ditu. 4 puzzleek (agertokiak) denborazko sekuentzia 1 osatzen dute behar bezala ordenatuz gero. Hau da, bloke bakoitzeko 16 kartek lau puzzle (agertoki) osatzen dituzte eta horiek sekuentzia bat osatzen dute (istorio bat) behar bezala ordenatuz gero.
- Jolasaren helburua da sei sekuentzia edo istorio islatzea, horiek ikasleen adinean abiarazi ohi diren jarduketa autonomoak, genero-estereotipoek markatu gabeko jarrera-ereduak, mahaia jartzen duten edo beldurra duten mutilen ereduak, bizikletan ibiltzen diren edo igeri egiten duten neska ausartak eta abar irudikatzen baitituzte. Honako sei egoera hauek irudikatzen dira: mahaia zerbitzatu, jantzi eta biluzi eta igeri egiten ikasi, bakarrik lo egin, bizikletan laguntzarik gabe ibili, kalea gurutzatu eta ogia erosi, hondartzan galtzean laguntza bilatu.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

4. UNITATE DIDAKTIKOA: MUGAK

"TREBE ETA TXIMISTA" IPUINA:

- Ipuinak beren bizitzetan zehar oso gauza desberdinak ikasi dituzten bi pertsonaia islatzen ditu: Trebe eskulan eta josketa-lanetan nabarmentzen den mutil iaioa da eta Tximista, aldiz, jolas eta jarduera fisikoetan nabarmentzen den neska kirolari bat. Biek honako esaldi hau errepikatzen dute: "Ni ez naiz jakinda jaio. Ikasi egin dut!". Izan ere, horretan oinarritzen dira ipuinaren garapen osoa eta ipuineko protagonisten jarrera eta ekintza guztiak.
- Helburua da ikasketei dagokienez estereotipatu gabe dauden neskak eta mutilak islatzea eta, gainera, gainerakoen partaidetza, lankidetzeta eta ikaskuntza islatzen dituen proiektu baten lidergo partekatua islatzea (bakoitzak dakiena gaineratzen du). Pertsonaia guztiek proiektuarengandik ikasi eta beren ekarpenak egiten dituzte (festa bat, ospakizun bat), horien sexua dena dela, eta bakoitzak nahi duen eta ahal duen moduan.

"BIZITZA BIDERKATZEKO TAULA" JOLASA:

- Jolasak biderkatzeko 32 taula desberdin ditu. Taula bakoitzak Berdinlandeko bi neska eta bi mutil eta bi ikaskuntza gaineratzen ditu. Guztira, 64 ikaskuntza irudikatzen dira. Era berean, 128 emaitza irudikatzen dituzten fitxak, lorpenak irudikatzen dituzten 128 fitxa, ekintzak... gaineratzen dira. Horiek tauletan lortutako ikaskuntzekin eskuratu daitezke (ezagutzak, josi, ekonomia...).
- Helburua da ikasleek bizitzan zehar lor daitezkeen lorpenak eta emaitzak egiten ditugun ikaskuntzekin eta gure aukeren eta ahaleginen bitartez lortzen ditugun gaitasunekin lotu ditzatela, emakumeak nahiz gizonezkoak izan.
- Bestalde, fitxetan jasotzen diren lorpenak eta emaitzak elkarrekin lotuta dauden bizitzako hiru esparru handietan esleitzen dira: etxea (etxeko lanak...), lana (enplegua, lanbideak...) eta gizartea (aisialdia, zaletasunak, lagunak...). Izan ere, hiru esparru horiek nahitaez garatu behar ditugu, emakumeak nahiz gizonezkoak izan, bizitza osoa eta orekatua garatu nahi badugu.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

5. UNITATE DIDAKTIKOA: BORONDATEA

"BURU ETA SORGIN" IPUINA:

- Ipuinak etorkizunerako plan eta aukera desberdinak dituzten bi pertsonaia irudikatzen ditu: Buru oso neska azkarra da eta informatika eta matematiketan nabarmentzen da gehien, eta Sorgin, aldiz, bere taldeko plan eta ekimen guztietan parte hartzen duen jakin-min handiko mutil bat da.
- Bi pertsonaia lortu nahi duten etorkizunerako prestatzen ari direla ikustea da helburua, horretarako eman behar dituzten urratsak, etorkizun hori lortzeko hartu behar duten bidea eta jarraitu beharreko ibilbidea ikasiz. Gainerako ipuinetan bezala, horien aniztasuna aberasgarria da eta biek proiektu baten lidergoa partekatzen dute (etorkizunerako bidaia), elkarrekin parte hartuz eta gainerakoengandik ikasiz. Pertsonaia guztiek bakoitzak aukeratzeko eta prestatzeko duenaren arabera aukeratzeko eta batzeko dute.

"ZERRENDA" JOLASA:

- Jolasak helburuen 30 fitxa ditu: pertsonen bizitzan zehar proposatu ditzaketen 30 helburu pertsonal, bizitzako esparru guztietan (bizitza pertsonala, lana, gizartea... eta ez lanbideari dagokionez bakarrik); horiek esaldi edo marrazki baten bidez irudikatzen dira. Eta gaitasunak, ezagutzak, ondasunak... gaineratzen dituzten planen 30 fitxa horietatik, helburuak lortzeko eman behar diren urrats edo eskaileretara.
- Jolasaren helburua jolasaren izenburuan bertan jasotzen dena da, hau da, plan-zerrendak egitea (plan-fitxen beharrezko pausoak), horrela, bizitzan proposatutako helburuak lortzeko (helburuen fitxak). Helburu horiek bizitzako hiru garai edo esparru nagusiak irudikatzen dituzte (bizitza pertsonala, lana eta aisialdia): neskek eta mutilek bizitzan zehar proposatutako helburuak lortzeko ikasi behar dituzten premien, baliabideen, gauzen... zerrenda.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

6. UNITATE DIDAKTIKOA: BIZIKIDETZA

"UNA NOCHE EN EL ALBERGUE" IPUINA:

- Ipuineko istorioak edozein giza taldetan egon daitezkeen interesak eta nahiak islatzen ditu. Hau da, neskek eta mutilek interes eta nahi desberdinak dituzten egoera bat agertzen da, horien sexua dena dela, eta horiek egoera zailak eta gatazkatsuak eragiten dituzte bizikidetzan, elkarrekin adostasun eta irtenbide bat bilatu behar delarik.
- Gure gizartean horien sexurako oso ohikoak ez diren bizikidetzaz-gaitasunak eta -eskumenak islatzen dituzten neska-mutileen adibideak agertzea da ipuinaren helburua, horiek gartzeko genero-muga sexistarik gabe (entzun eta garbitu egiten duten mutilak, lidergoa duten eta proposamenak egiten dituzten neskak...). Ipuinean, bakoitzak modu aktiboan parte hartzen du bizikidetzan, eta bakoitzak berariaz onartu, baloratu eta errespetatzen ditu gainerakoen ekarpenak.

"GAKOA" JOLASA:

- Jolasak 72 fitxa ditu guztira: 36 fitxatan, NAHIKO! programako sei unitate didaktikoetako ipuinetako irudiak jasotzen dira eta, horien bitartez, Berdinlandeko neska-mutilek bi ikasturteetan zehar bizitzen dituzten bizikidetzaz-egoerak islatzen dira. Gainerako 36 fitxetan, bizikidetzarako beharrezkoak diren gaitasun positiboak adierazten dituzten hitz gakoak jasotzen dira.
- Ikasleek hitz gakoak jasotzen dituzten fitxak (entzumena, enpatia, ordena, garbitasuna...) bi ikasturteetan zehar ezagutu dituzten NAHIKO! ipuinetan jasotako irudiekin lotu ditzatela da ipuinaren helburua.

2B. LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA:

2.3. DEIALDIA, DATUAK ETA PARTAIDETZA. 2010-2011 ETA 2011-2012 IKASTURTEETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA

Emakundek 2010eko maiatzean egin zien EAEko ikastetxe guztiei Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan NAHIKO! programaren esperientzia pilotuan parte hartzeko gonbidapenaren **deialdia**. Deialdi hori egiteko, Emakunderen zuzendariaren gonbidapen-eskutitz bat, NAHIKO! programak hurrengo bi ikasturteetan izango zituen ezaugarrien dokumentu bat eta parte hartu nahi zuten ikastetxeen datuak jasotzeko partaidetza-eskaeraren orria bidali ziren.

Gonbidapenean argi eta garbi adierazten zen, esperientzia pilotuan parte hartu nahi zuten ikastetxeentzat doakoa izateaz gain, NAHIKO! programa Berdintasunerako, Errespeturako eta Indarkeriarik Ezarako Hezkidetzeta Programa bat dela eta, haren bidez, elkarrekin berdintasunez bizitzeko balio-hezkuntza irakasten dela, betiere giza eskubideak errespetatuz eta horiek egunerokotasunean aplikatuz, eta ikasleek bereganatzen dituzten genero-rolak aztertuz.

Eskaerak aurkezteko epea 2010eko ekainaren 15ean amaitu zen. Plaza kopurua mugatua zenez, eskaeren aukeraketa egiteko orduan aniztasun-irizpideak hartu ziren kontuan, ikastetxeen ezaugarriak oinarritzat hartuta. Ekainaren 25a baino lehen, ikastetxe eskatzaileei NAHIKO! esperientzian parte hartuko zuten ikastetxeen zerrenda jakinarazi zitzaien. Esperientzia pilotua 2010eko irailean abiarazi zen eta 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan zehar garatu zen.

Esperientzia pilotuaren ezaugarrien dokumentuan honako elementu, baldintza eta konpromiso hauek jaso ziren, funtsean, bi ikasturteetarako, Emakunderen nahiz ikastetxe parte-hartzaileen aldetik:

- Ikastetxeetan abian jarritako esperientziaren prestakuntzarako, ebaluaziorako eta jarraipenerako hiruhileko mintegi presentzialak esperientzian parte hartuko zuten irakasleentzat.
- Sei unitate didaktiko, hiru maila eta ikasturte bakoitzeko, bat hiruhileko bakoitzeko. Unitate bakoitzak gida bat du irakasleentzat, baita gelan lan egiteko materialak eta ikasle eta familiarientzako koadernoak ere.
- Unitate bakoitzerako materialak bi ikasturteetan zehar prestatu, erabili eta ebaluatu ziren, ikastetxe parte-hartzaileetako irakasleen laguntzarekin.

- Ikastetxe bakoitzari unitate didaktikoetako material guztiak eta ikasle eta familientzako ko-adero guztiak helarazi zitzaizkion, guztiz doan.
- Ikastetxeentzako jarraipen-, koordinazio- eta aholkularitza-zerbitzua programaren edukiari, materialen erabilerari eta programako saio bereziekin eta prestakuntza-jardunaldiekin lotutako guztiari dagokionez.
- Emakundek diseinatu eta prestatutako hiruhileko saio bereziak ikasle eta familiekin, ikastetxeetatik kanpoko langileen aldetik.

2010eko ekainean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren **onarpenera ongietorri**-eskutitza bidali zitzaien ikastetxe parte-hartzaileei, eta esperientzia pilotua inskribatutako irakasleak prestatzeko lehen mintegi batekin abiarazi zen, irailean. Irailaren 1ean, ikastetxe parte-hartzaileei jardunaldiaren programa xehatua igorri zitzaien. Mintegi horretan esperientziaren xehetasun guztiak zehaztu ziren. Esperientzia Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleekin gauzatu zen 2010-2011 ikasturtean, eta ikasle berdinekin 2. mailan, 2011-2012 ikasturtean.

2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetako 1. eta 2. mailetako NAHIKO! esperientzia:

- Ikastetxeak: 29 ikastetxe, horietatik 22 publikoak eta 7 itunduak.
- Taldeak: 55 ikasle talde.
- Irakasleak: 53 emakumeak eta 3 gizonezkoak, gehienak ikasleen tutoreak.
- Berritzeguneak: Berritzeguneetako 10 aholkulari, gutxi gorabehera.
- Ikasleak: 1.137 ikasle, horietatik 553 neskek eta 584 mutilak.

Parte hartu duten Arabako ikastetxeak:

- ANGEL GANIVET-IZARRA-STA. LUCIA. Vitoria–Gasteiz.
- EP RAMÓN BAJO LHI. Vitoria–Gasteiz.
- CEP ZABALGANA LHI Vitoria–Gasteiz.

Parte hartu duten Bizkaiko ikastetxeak:

- ANDRA MARI IKASTOLA. Zornotza.
- BARRUTIA IKASTETXEA. Barrutia.
- CEP ELORRIO LHI. Elorrio.

- CEP GORONDAGANE LHI. Sondika.
- CEP OTXANDIO LHI. Otxandio.
- CEP URDUÑA LHI. Urduña.
- CEP ZEANURI LHI. Zeanuri.
- DIMA-UGARANA HI. Dima.
- EL CARMELO IKASTETXEA. Zornotza.
- ELORTZA LHI. Urduliz.
- ISPASTERKO HERRI ESKOLA. Ispaster.
- KONTXAESKOLA LHI. Karrantza Harana.
- KURUTZIAGA IKASTOLA. Durango.
- LANDAKO ESKOLA. Durango.
- LEKEITIO HERRI IKASTETXEA. Lekeitio.
- LEZAMA H.I. Lezama.
- MAIZTEGI H.E. Iurreta.
- MUNITIBAR LHI. Munitibar.
- SAGRADO CORAZÓN IKASTETXEA. Bermeo.
- SAN FELIX IKASTETXEA. Ortuella.
- SAN PEDRO APÓSTOL. Bilbo.
- SAN PELAYO IKASTETXEA. Ermua.
- ZALDUPE ONDARROAKO EP. Ondarroa.

Parte hartu duten Gipuzkoako ikastetxeak:

- HARRI BERRI OLETA. Donostia.
- J.A. MOGEL IKASTOLA. Eibar.
- SAN MILLAN IKASTETXEA. Zizurkil.

2.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ikasturte bakoitzeko hiru prestakuntza-mintegi egin ziren. Horien helburua irakasleei hezikidetzaren inguruko prestakuntza eskaintzea zen batetik, eta ziklo bakoitzeko unitate didaktikoen inguruko prestakuntza zehatza eskaintzea, bestetik (unitate didaktiko bakoitzaren gai nagusia, helburuak eta edukiak, eta material, jolas eta ipuinen deskribapena, helburuak, ariketak eta arauak), baita ikastetxeetan ikasleekin eta familiekin egindako lanaren jarraipena, trukea eta ebaluazioa egitea ere.

Gainera, ikasturte bakoitzaren amaieran NAHIKO! programaren ikasturteko esperientzia ebaluatzeko mintegi bat egin zen eta, bertan, hurrengo ikasturterako aurreikuspenak eta iradokizunak jaso ziren.

Programan parte hartu zuten ikasleen irakasleez gain, mintegi horretan parte hartu zuten, halaber, tutoreek, berritzeguneetako erreferentziazko aholkulariek (irakasleentzako laguntza eta berrikuntzarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko zentroak) eta, batik bat, garaian garaiko (Lehen Hezkuntza) aholkularitzek edo ikastetxe parte-hartzaileen erreferentziazko aholkularitzek.

Prestakuntza eta jarraipenerako mintegiak **programa** batean oinarrituz garatu ziren. Hark hiruhileko aldaketa txiki batzuk izan zituen, unitate didaktiko bakoitzaren premien arabera, eta honako urrats hauetan laburbildu genitzake:

- Dokumentazioa jasotzea.
- Jardunaldiaren aurkezpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Programa eta Prestakuntza Eremuko arduradunaren eta zuzendari nagusiaren aldetik.
- Hurrengo hiruhilekoan landuko den unitate didaktikoaren gai nagusiari buruzko txostena, hezikidetzan eta dagokion gaian adituak diren txostengileen aldetik.
- Mahai-ingurua txostengileekin.
- Atsedenaldia.
- Aurreko hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren eta hiruhilekoan zehar ikasleekin eta familiekin egindako saio berezien laburpena, ikaskuntzak eta ondorioak.
- Ikastetxe parte-hartzaileen laburpena, ebaluazioa eta ondorioak, taldekako bilera eta lanen bitartez. Horrela, horien esperientziak eta praktika egokiak ezagutu daitezke, baita aurreko

hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren inguruko ebaluazioak eta ondorioak ere.

- Atsedenaldia.
- Orebe aholkularitzaren aurkezpena. Izan ere, hura arduratu da NAHIKO! programaren garapenaz eta koordinazioaz, eta hurrengo hiruhilekoan landu beharreko unitate didaktiko berriko helburuez, edukiez eta materialez (jolasak, ipuinak, koadernoak, saio bereziak, egutegia...).
- Jardunaldiaren amaiera.

Hiruhileko mintegi horiek hezkidetzaren, genero-ikuspegiaren eta berdintasunerako hezkuntzaren ikuspegitik unitate didaktikoekin lotutako edukiekin zerikusia duten honako TXOS-TENGILE ETA TXOSTEN hauek izan zituzten:

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 1. UNITATE DIDAKTIKOA: "GORPUTZA. BERDINTASUNEZ HAZI".

Marina Subirats i Martori andrea: "Tratu txarrei ikastetxetik aurrea hartzea"

- Tratu txarrak, genero-sozializazioaren icebergaren tontorra. Genero-identitateen sozializazio- eta eraikuntza-prozesua. Genero-identitateak eta -harremanak emakumeen aurkako indarkeriaren eta emakumearekiko gizarte-permisibitatearen oinarri gisa.
- Ikastetxearen eginkizun igorlea eta/edo eginkizun aldatzailea. Hezkidetzako esku-hartzea. Ikastetxeak egin dezakeena: berdintasunerako hezkuntza integrala.

Marina Subirats i Martori andrea: "Nesken eta mutilen gorputza. Neska gisa eta mutil gisa haztea"

- Gure ikasleen sexua eta gorputzaren generoa. Egin dezaketena eta egin ez dezaketena. Beraiengandik espero duguna, arrunt eta naturaltzat jotzen dena... Estereotipoen eredia eta genero-rolak oinarritzat hartuta egitea proposatzen dieguna.
- Hezkidetzan oinarritutako alternatibak: berezko ezaugarriak eta banakako ikaskuntzak. Auto- eta hetero-ezagutza, balorazioa, errespetua, garapena... aniztasuna eta berdintasuna.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 2. UNITATE DIDAKTIKOA: "SENTIMENDUAK. BERDINTASUNEZ SENTITU".

María Ángeles Rebollo Catalán andrea: "Neska eta mutilen sentimenduak eta emozioak. Berdintasunez sentitzea"

- Hezkuntza emozionala: sentimenduak ezagutzen, identifikatzen, adierazten eta kudeatzen ikastea.
- Neska eta mutilen hezkuntza emozionalaren eta sentimenduen inguruko mitoak eta errealitateak.
- Ikasle mutil eta nesken arteko ikaskuntza emozional bereziak: beren nortasunerako, auto-estimurako, traturako, harremanetarako eta bizikidetzarako ondorioak.
- Hezkidetzan oinarrituriko alternatibak: berdintasunerako hezkuntza emozionala.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 3. UNITATE DIDAKTIKOA: "AUTONOMIA PERTSONALA. BERDINTASUNEZ JARDUTEA".

Amparo Tomé González andrea: "Neska eta mutilen autonomia pertsonala. Berdintasunez jardutea"

- Autonomia pertsonala: nor bere kasa modu autonomoan eta arduratsuan moldatzen ikastea, bizitzako alderdi eta esparru guztietan.
- Autonomia eta beste pertsona batzuekiko elkarrekintza. Familian bizitzea, taldean jolastea, taldean lan egitea...
- Neska eta mutilen autonomiaren inguruko mitoak eta errealitateak: presentzia eta jarduketak, espazioen eta denboren erabilera... Beren autonomia pertsonalerako ondorioak.
- Hezkidetzan oinarritutako alternatibak: berdintasunerako eta autonomia pertsonalerako hezteak.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 4. UNITATE DIDAKTIKOA: "MUGAK. "BERDINTASUNEZ IKASI".

María Antonia Moreno Llana *andrea*: "Nesken ikaskuntza-mugak eta mutilen ikaskuntza-mugak"

- Muga biologikoak eta/edo muga kulturalak. Natura eta/edo hezkuntza. Jaio ala egin egiten da?
- Gure ikasleen ikaskuntza mugatu, sailkatu eta txirotzen duten ereduak eta erreferentziak.
- Ikasleentzako etiketak eta itzaropenak: espero dena ikasten da. Ohiturak eta modak, txalotzen dena ikastea.

María Antonia Moreno Llana *andrea*: "Hezkidetzaren alternatiba: mugarik gabe, aniztasunean eta inklusioan oinarrituz ikastea."

- Ikastetxeak hezkuntzan duen eginkizun igorlea eta/edo aldatzailea.
- Ikastetxearen hezkidetzaren arloko esku-hartzea. Ikastetxeak egin dezakeena: erabakitzen ikasi eta ikasten ikasi, genero-mugarik gabe.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 5. UNITATE DIDAKTIKOA: "BORONDATEA. BERDINTASUNEZ AUKERATZEA".

Graciela Hernández Morales *andrea*: "Borondateak norbere bizitza erabaki, aukeratu eta sortu behar du"

- Neska eta mutilen nahietan, premietan, helburuetan eta proiektuetan dauden desberdintasunak eta bestelakotasunak.
- Neskek eta mutilek beren borondatean oinarrituz beren harremanak eta proiektuak, beren etorkizuna eta beren mundua aukeratu, planeatu eta garatzeko dituzten aukerak eta zailtasunak.
- Garapen paregabea izateko ikastetxeen hezkidetzarako alternatibak eta ereduak.

1. ETA 2. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 6. UNITATE DIDAKTIKOA: "BIZIKIDETZA. BERDINTASUNEZ ELKARREKIN BIZITZEA".

Bea Ugarte Maiztegi andrea: "Neska eta mutilen arteko bizikidetza, hezkidetzaren ikuspegitik"

- Gurekin bizi diren pertsonen, emakume nahiz gizonezkoen, neska zein mutilen premia, interes, nahi, proiektu... pertsonalak eta premiak, interesak, nahiak, proiektuak...
- Generoaren sozializazioak eta genero-erolek neska eta mutilen arteko bizikidetzan duten eragina, ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo.
- Nola bizi eta norekin bizi aukeratzeko eskubidea: nesken zailtasunak, aukerak eta ikaskuntzak; mutilen zailtasunak, aukerak eta ikaskuntzak.
- Hezkidetza-proposamena: neskek eta mutilak berdintasunez elkarrekin bizi ahal izateko funtsezko ildoak eta gakoak.

OHARRA: Txosten horiek guztiak Emakunderen web-orri honetan aurkitu daitezke (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde → Nahiko! → Irakasleen formakuntza → Ponentziak:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahikcon/es/contenidos/informacion/nahiko_materialak/es_ponencia/ponencias_presentadas.html

2.5. SAIOAK IKASLEEKIN. ONDORIOAK

Ikastetxeetako irakasleek egindako (bertan izan ziren, beren ikasleak aztertzen) Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako saio berezien **balorazio nagusi kuantitatiboa** oso al-tua izan zen, batez beste:

Irakasleen ebaluazioa: 1etik (baxuena) 6ra (altuena)

Ikasleekin egindako saio bereziak	5,5
Saio bereziek ikastetxerako duten balioa (neska-mutilak, irakasleak...)	5,2
Saio berezien eta NAHIKO! programako unitate didaktikoen arteko lotura	5,3
Neskak diren ikasleekiko ezagutza eta ulermen hobearrekiko balioa	4,8
Mutilak diren ikasleekiko ezagutza eta ulermen hobearrekiko balioa	4,8
Ikasle taldearen eta horien arteko harremanen arteko ezagutza eta ulermen hobeari dagokion balioa	4,8

Batez besteko balorazio kualitatiboa ere oso altua izan da ikastetxeetako ikasleen nahiz irakasleen aldetik. Gainera, egindako saio bakoitzetik hainbat **behaketa, ondorio eta ikaskuntza** azpimarra daitezke.

Jarraian, behaketa eta ondorio horietako batzuen laburpena jaso dugu saio bakoitzeko; horiek saioak egin zituzten Nahiko! programako begiraleen ebaluazioetan jasota geratu dira, eta ikasleen eta begiraleen aipamen testual batzuk komatxo artean adierazi dira.

2.5.1. 1. UNITATE DIDAKTIKOAREN (GORPUTZA) SAIO BEREZIA: ARGİ ETA ITZALEN TAILERRA

Gure gorputza eta gainerako lagunen gorputza ezagutzea eta onartzea zen jardueraren helburua. Horretarako, gorputzeko hainbat ezaugarri neurtu zituzten (neska eta mutil bakoitzak bere gorputza duela frogatzeko) eta gorputza bera eta haren aukerak aztertu zituzten, lehenik eta behin jarduerak aitortuz (itzalen jolasa) eta, gero, bizitzako esparru guztietan jarduerak irudikatuz, "Egun bat Berdinlanden" (istorio baten antzezpena jolas sinboliko bat eta musuzapi handi bat erabiliz).

Oro har, **ikasle gehienek** argi eta garbi eta modu grafikoan ulertu zuten saioaren helburua eta edukia: pertsona bakoitzak bere gorputzeko ezaugarriak dituela, neska ala mutila izan, bere abantaila eta desabantailekin. Baita eredu bakar eta unibertsal bat ez dagoela eta eredu bakar bat dagoela pentsatzeak aniztasun naturalak baino ondorio txarragoak dituela ere.

Era berean, alde handia ikusi zen **teoriaren eta praktikaren** artean, hitzen (esparru formal) eta jolasen (esparru informala) artean. Teoria (lezioa) ikasita zegoen. Baina jolastean, kontraesanak ikusi ziren diskurtsoaren eta jarreraren artean (sozialazioa eta bizitutako esperientziak, sentimenduak, usadioak, ohiturak...).

Saio osoan zehar talde mistoetan elkarrekin izan ziren **neska eta mutilei** dagokienez:

- Saioen martxa mutil eta nesken proportzioaren arabera izan zen.
- Talde askotan, neskak neskekin jolasten, esertzen, hitz egiten... zutela ikusi zen, eta gauza bera gertatzen zen mutilekin ere.
- Jolasean zehar, neska eta mutilen aldetik argi eta garbi bereizitako eta estereotipatutako jarrerak ikusi ziren genero-ikuspegitik.
- NESKEK, oro har: jarrera lasaiagoa agertu zuten (talderen batean oso isilik egon ziren, pasibo), arreta gehiago jarri zuten, jolasaren txandak errespetatu zituzten (lasai itxaron zuten), amore ematen zuten beharrezkoa izanez gero eta jolasaren garapenean lagundu zuten (materiala ordenatuz).
- Neska askok arrosa koloreko materiala nahi izan zuten eta materiala bihotzekin eta abarrek in apaindu zuten. Batzuek argi eta garbi adierazi zuten "hitz egiteko arazo gehiago ditugula, taldeak ez baitu gure hitza onartzen". Batzuen arabera, "mutilek futbola eta guk beste gauza batzuk".
- MUTILAK, oro har: "aspertu" egin ziren eta gehiago mugitu ziren, gehiago kostatu zitzaizkien txandak errespetatzea (asko mugitzen dira zain daudenean), lehenengoak izan nahi zuten eta batzuetan tranpak egiten saiatzen ziren (neskak baino askoz gehiago), burugogorrago agertu ziren eta arreta gehiago behar izan zuten (ni, ni, ni...).
- Askok konparazioak eta lehiaketak egiten zituzten gorputzarekin ("ni altuagoa naiz, handiagoa..."), lehenengoak izan nahi zuten (asko kostatzen zitzaizkien "amore ematea") eta ez zuten arrosa koloreko materialik nahi (errotuladoreak, musuzapiak...). Batzuen arabera, "neskek hitz egiten dute eta guk jolastu egiten dugu".

Gorputza unitate didaktikoaren edukiari dagokionez, oro har:

- Neskak lotsatu egiten ziren beren gorputza altuagoa, handiagoa, nabarmenagoa... bazen. Mutilak, aldiz, arrotz sentitzen ziren horrekin. Oro har, mutilengan elkarrekin lotuta zeuden gorputza eta harrotasuna. Naturaltasunez okupatzen zuten eremu fisikoa. Batzuetan indarra erabiltzen zuten.

- Mutilek kirol esparrua aukeratu eta irudikatu zuten batez ere. Neskek zaintzarekin lotutako jolasak eta jarduerak irudikatu nahi izan zituzten.
- Neska eta mutil askok nolabaiteko erresistentzia agertu zuten musu eta besarkaden gisako jarduerak irudikatzean (mutilengan handiagoa izan zen erresistentzia eta horiek antzesten zituztenekiko "astintze" jarrerak agertu zituzten). Askotan, neskek eta mutilak blokeatu egiten ziren, ez zituzten horiek irudikatu nahi eta, hala egiten bazuten, elkar ukitu gabe egiten zuten (kasu horietan, ikasle gehienek "nobioak" zirela esaten zuten). Mutil batzuen arabera, etxean ama zen musuak ematen zizkiena, eta ez aita.
- Mutil askok zailtasun "teknikoak agertu zituzten (ez zekiten nola egin) ohea egiterakoan, musuzapia tolesterakoan eta abarretan.
- Neska batzuek nolabaiteko erresistentzia agertu zuten jarduera fisiko batzuk garatzeko orduan, surfa egiteko orduan, adibidez, "neskek ez baitute surfik egiten" (gelakide batzuek hala egin arren).
- Jarrera eta partaidetza antzekoak izan ziren neska eta mutilengan. Ikastetxeren batean, mutil batzuek ez zuten parte hartu nahi izan.
- Talde batzuetan, mutil batzuek jarrera oldarkorrak agertu zituzten, "Egun bat Berdinlanden" jolas sinbolikoan batez ere (erratzat pasatzerakoan musuzapiarekin kolpeak ematen zituzten, hanken tuneletik igarotzean ipurdia ukitzen zuten eta abar).

2.5.2. 2. UNITATE DIDAKTIKOAREN (SENTIMENDUAK)

SAIO BEREZIA: MIMOEN TAILERRA

Gure sentimenduak eta gainerako ikaskideen sentimenduak sentitzea, ezagutzea, onartzea eta kudeatzea zen jardueraren helburua. Horretarako, masaje suabe eta erlaxagarri bat eman zioten elkarri (mimoak eta zaintzak eman eta jasotzeak sentimendu ugari piztu zituen ikasleengan) eta, horrela, hainbat sentimendu ezagutu, irudikatu eta komunikatu zituzten, mimo-jardueraren bidez (sudur gorria eta eskularru zuriak jarrita) nahiz bizitzako hainbat esparrutan istorio bat antzetzuz (jolas sinbolikoa, musuzapi handi bat erabiliz).

Oro har, **ikasle gehienek** oso ondo pasatu zuten saioan eta neskek eta mutilek sentimendu berdinak bizitu, ulertu eta adierazi zituzten, hau da, euren buruari utziz gero, gauza bera sentitu dezaketela ulertu zuten, barregarri gelditzeari edo esango dutenari beldurrik izan gabe.

Era berean, salto handia hauteman zen **teoriaren eta praktikaren** artean, hitzen (esparru formala, ikastetxean) eta jolasen (esparru informala) artean. Teoria (unitate didaktikoa) ikasita

zegoen. Baina jolastean (masaje bat eman, sentimenduak komunikatu...), hainbat kontraesan ikusi ziren diskurtsoaren eta jarreraren artean (sozializazioa eta bizitutako esperientziak, sentimenduak, usadioak, ohiturak...).

Saio osoan zehar talde mistoetan elkarrekin izan ziren **neska eta mutilei** dagokienez:

- Saioen martxa talde bakoitzeko mutil eta nesken proportzioaren araberakoa izan zen.
- Talde askotan, neskak neskekin jolasten, esertzen, hitz egiten, masajeak ematen... ziren, eta gauza bera gertatu zen mutilekin ere.
- Jolasean zehar, neska eta mutilen aldetik argi eta garbi bereizitako eta estereotipatutako jarrerak ikusi ziren genero-ikuspegitik.
- Oro har, NESKAK lasai eta gustura agertu ziren jardueretan zehar.
- Gauzak ongi egiten saiatu ziren (masajea ematerakoan arreta handia eskainiz, hura arduraz eta kalitatez eginez, nola egin entzunez...).
- Era berean, ariketetan zehar eta ondoren hainbat ekarpen eta hausnarketa baliagarri egin zituzten.
- Oro har, MUTILEK erresistentzia handiagoa agertu zuten jardueren garapenean zehar. Arreta eta protagonismo handiagoa eskatzen zuten. Mutil batzuekin jarrera-, partaidetza- eta portaera-arazoak izan ziren. Dena den, talde askotan mutil lasaiak eta parte-hartzaileak izan ziren.
- Unitate didaktikoa asko landu zuten ikastetxeetan saioak garapen hobea izan zuen; jarduerak hobeto ulertu zirela eta ekarpen, hausnarketa eta ondorio gehiago eta hobeak egin zituztela hauteman zen.

Sentimenduak unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Masaje-bikote gehienak (beraiek aukeratu zezaketen beste pertsona) sexu berekoak izan ziren. Neska eta mutilen kopuruak hala behartzen zuenean bakarrik sortu ziren bikote mistoak.
- Neskek nolabaiteko beldurra, lotsa, urduritasuna, deserosotasuna... sentitzen zutela aitortu zuten, beren masaje-bikotea mutila zenean batik bat. Mutil askok beldurrik edo lotsarik sentitzen ez zutela esan arren, askok uko egin zioten neska bati masajea emateari.

- Oro har, masajea oso gustukoa izan zen neska eta mutilentzat, eta asko gozatu zuten harekin (ikastetxe askotan masajeak ematen jarraitu zuten saioa amaitu ostean). Gehienek nahiago zuten masajea jaso. Oro har, masajea eman nahi zutenen artean neskak gailentzen ziren. Talde batzuetan, masajea ematean mutil batzuek nolabaiteko oldarkortasun-jarrerak agertu zituzten gorputzarekin kontaktuan jartzean.
- Masajearekin hitzez adierazitako sentimenduak: lotsa, lasaitasuna, alaitasuna, urduritasuna, mina... Batzuetan blokeatu egiten ziren. Oro har, mutilei gehiago kostatu zitzaien lotsa sentitu zutela esan eta aitortzea.
- Gainera, zailtasunak ikusi ziren laztanen bidez nor bere burua adierazi eta komunikatzean edo sentimendu asko irudikatzean. Are gehiago mutilen kasuan, neskek baino erresistentzia handiagoa agertu baitzuten sentimendu batzuk irudikatzeko orduan (beldurra, negarra, samurtasuna...); batzuetan, horiek irudikatzen zituzten mutilekiko "astintze" jarrerak, asaldura eta egoskorakeria handiagoak agertu zituzten.
- Talde batzuetan, neska eta mutil batzuek ez zuten parte hartu saioko jarduera batzuetan.
- Neskek sentimendu-aniztasun eta lasaitasun handiagoa agertu zuten. Mutilek naturaltasunez betetzen zuten espazio fisikoa (ikasgelaren, taldearen... erdigunea) eta, batzuetan, indarra erabiltzen zuten (mutilen artean batez ere). Gainera, beren maskulinitasunarekin lotu zituzten sentimendu jakin batzuk (beldurra, lotsa...) (sentimendu horien edo horien gabeziaren isla gisa).

2.5.3. 4. UNITATE DIDAKTIKOAREN (BERDINTASUNEZ IKASI) SAIO BEREZIA: JOLASEN TAILERRA

Gainerakoak ez bezala, saio berezi hau ikastetxe parte-hartzaileetako irakasleek egin zuten; horiei gidoi xehatu bat eta hura gauzatu ahal izateko beharrezko materialak helarazi zitzaizkien. Neskek eta mutilek ikasteko aukera berberak dituztela frogatzea eta onartzea zen saioaren helburua, baita sexuaren araberako muga genetikorik ez dagoela ulertzea ere.

Horretarako, hainbat jarduera egin zituzten edozein ikaskuntza ikasteko aukerarekin lotuta, neska nahiz mutilen aldetik; era berean, ikasitakoa bizitu eta antzetzeko jarduerak egin zituzten jolas sinbolikoaren bitartez, betiere musuzapi handi baten laguntzarekin (jarduera eta dantza mota ugari barne hartzen dituen jaiegun bat).

Oro har, irakasleek oso positibotzat ebaluatu zuten saioa, haren baitan egindako jarduerak eta ikasleen partaidetza, neska eta mutilen artean desberdintasun nabarmenak ageri arren. Irakasleen ustez, ikasleek ondo ulertu zuten mezua ("inor ez da jaio dena jakinda"), baina ge-

nero-rol sozialak nahiko barneratuta zeudela konturatu ziren, mutilek "mutilen gauzak" bakarrik egin nahi zituztelako eta neskek, aldiz, "nesken gauzak" egin nahi zituztelako.

Neska eta mutilei dagokienez –jarduera batzuk sexuaren arabera bereizitako taldeetan egin zituzten eta beste batzuk, aldiz, talde mistoetan–, irakasleek honako behaketa hauek egin zituzten, oro har:

- NESKEK errazago ikasi eta antzestu zituzten zaintzarekin lotutako jarduerak, musuak eta besarkadak, adibidez; dena den, neska gutxi batzuek nazka-aurpegia jarri eta ez zuten horrelakorik egin nahi izan. Oro har, neskek errazago egin zituzten ikaskuntza eta jolas guttiak, beste neskekin nahiz mutilekin.
- MUTILEK urduritasun eta zailtasun gehiago agertu zituzten zaintzak ikasteko orduan (lo egin, musuak eta besarkadak eman...). Lotsa eta barre urduriak agertu zituzten. Ikastetxe batzuetan, mutilek oso azkar egin eta amaitu nahi izan zituzten ariketak.

Mugarik gabe ikasi unitate didaktikoaren edukiari dagokionez, oro har:

- Neskek pazientzia gehiago agertu zuten, baita alde zurretiko ezagutza, garbiketa eta zaintzarekin lotutako gaitasun gehiago ere (musuzapiak tolestu, adiskideak estali, irudiak egin...). Era berean, ausartagoak izan ziren eta lotsa gutxiago agertu zuten ikasitakoaren emaitzak sinbolikoki irudikatzeke orduan.
- Mutil batzuek zailtasunak izan zituzten dantza egiten ikasteko orduan, lotsatu egiten baitziren. Horien artean, mutil batzuk ez ziren bakarrik egitera ausartu eta beste mutil batzuekin elkartzeko ziren, "taldean" dantza egiteko. Batzuek gainerako dantzaldia eragozten zuten eta beste batzuek ez zuten dantzarik egin, gainerako ikasleak eta irakasleak behin eta berri saiatu arren.
- Mutilei gehiago kostatu zitzaizkien dena orokorrean, jolasteko pazientzia gutxi agertu zuten (jolasten ikasi) eta nolabaiteko ondoreza agertu zuten "nesken" jardueratzen jotzen zituzten ariketa batzuk egiteko orduan ("arropa neskek sartzen dute garbigailuan, beti izan da horrela", "ez, nire etxean aitak egiten du"). Gauzak ondo eta zuhurtziaz egiteko interes gutxiago agertu zuten.

2.5.4. 5. UNITATE DIDAKTIKOAREN ("BORONDATEA") SAIO BEREZIA. JOLASEN TAILERRA

Mundu guztiak du objektuak aukeratu eta planak egiteko borondatea, eta ikasleek hori frogatu eta ulertzea zen, hain zuzen, jardueraren helburua; izan ere, neskek eta mutilek helburu

bera lor dezakete hala nahi izanez gero, horien sexua dena dela. Horretarako, beren etorkizunerako helburuak aukeratu eta beren planak ezagutu zituzten, baita gainerako ikaskideenak ere; horrez gain, horiek lortzeko eman beharreko urratsak eta ikaskuntzak ezagutu zituzten (horiek sinbolizatzen zituzten jolasak identifikatuz) eta, musuzapi handi bat erabiltzen duen jolas sinbolikoaren bitartez, bizitzako esparru guztietarako etorkizuneko helburuak eta planak irudikatatu zituzten.

Ikasle gehienek beren bizitzako esparru guztietarako etorkizuneko planak eta helburuak irudikatzen eta adierazten lan egin eta gozatu zutela ikusi zen (eta ez lan esparruan bakarrik).

Era berean, salto handia hauteman zen teoriaren eta praktikaren artean, hitzen (esparru formalak, ikastetxean) eta jolasen (esparru informala) artean. Teoria (unitate didaktikoa) ikasita zegoen. Baina jolastean, kontraesanak ikusi ziren diskurtsoaren eta jarreraren artean (sozializazioa eta bizitutako esperientziak, sentimenduak, usadioak, ohiturak...).

Saio osoan zehar talde mistoetan elkarrekin izan ziren **neska eta mutilei** dagokienez:

- Ikastetxe batzuetan zailtasunak izan zituzten talde mistoak egiterakoan, eta horretarako erresistentziak eta arazoak izan zituzten.
- Zailtasunak hauteman ziren, halaber, saioak eskatzen zuen entzumen, itxaronaldi, argudio, adostasun eta komunikazio maila garrantzitsuarekin. Zentzu horretan, neskek entzuteko eta hitz egiteko jarrera hobea agertu zuten.
- Talde mistoetan, askotan mutilek beren lehentasunak eta nahiak ezarri zituzten taldean egin beharreko aukeraketetan, eta neskek amore ematen zuten, beren erabakiak bigarren lekuan utziz.
- Oro har, mutilek begiraleen arreta handiagoa eskatu zuten eta protagonista izateko gogo handiagoa agertu zuten.

Aukeratzeko borondatea unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Oro har, neskek mutilek baino aniztasun handiagoa agertu zuten beren etorkizuneko aukeraketak egiteko orduan. Zaintzarekin lotutako helburuak eta objektuak aukeratzeko joera garbia hauteman zen (irakaslea, medikua, ama, ile-apaintzailea, albataria...).
- Oro har, mutilek aukera-aniztasun txikiagoa eta batik bat kirolarekin lotutako helburuak aukeratzeko joera handiagoa agertu zuten (futbolaria, kirolari profesionala, polizia...), baita aukera horiekin lotutako jolasik geratzen ez zenean ere.

- Mutil batzuk bereziki deseroso sentitu ziren "haurra zaindu" eta hari laztanak egiteko orduan, eta nahiko zakar eta oldarkor agertu ziren "musuzapi-haurrarekiko".

2.5.5. ZIKLO AMAIERAKO TOPAKETA (2012KO EKAINA): NAHIKO! TOPAKETA

Ikastetxeei ekitaldia egiteko daten inguruko kontsulta egin ostean, 2012ko ekainaren 6an NAHIKO! programaren Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxe guztien topaketa egin zen Barakaldoko BECen. Topaketa horretara gonbidatu ziren, parte hartu zuten ikasle eta irakasleez gain, ikasleen familiei, berritzeguneetako aholkulariei eta programan parte hartu zuten begiraleei.

Topaketa honako **programa** honi jarraiki garatu zen:

- Agurra. Ongietorria.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren aurkezpena.
- Ikastetxe bakoitzak UD batekin lotutako jarduera-saio bat egin zuen: antzerkia, ppt, dantza, bertsoak, abestiak...
- Jarduketa bakoitza amaitzean, Emakundeko zuzendariak taula oroigarri bat eman zien ikastetxe parte-hartzaileko ikasle eta irakasleen argazkiarekin, eta argazki bat atera zuen talde osoarekin.
- Parte-hartzaile guztiei "berdintasunerako semaforo berdeak", musuzapiak eta disko hegalarri berdeak eman zitzaizkien programaren oroigarri gisa, bereganatutako konpromisoa hedatzeko.

2010-2012 esperientziaren NAHIKO! topaketa esperientzia aitzindaria eta paregabea izan zen, beti bezala. 7 eta 8 urte arteko 1.000 neska eta mutil inguru elkartu ziren, beren irakasle eta senitartekoekin, hala, beren ikaskideekin prestatutako gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eta, oro har, programaren sei unitate didaktikoen inguruan prestatutako eta jorratutako jarduketak alaitasunez eta urduritasunez bizi eta gozatzeko.

Topaketa amaitzeko, ikastetxe guztiek bertso bat abestu zuten elkarrekin:

BERDINLAND

*Berdintasuna dugu, esan eta egin,
Neskek eta mutilek gogoz luze ekin,
Semaforo berdeak piztu eta eragin,
Neskek eta mutilek, ahal dugu berdin (bis).*

Ikastetxe parte-hartzaileek 1etik (puntuaziorik txikiena) 6ra (puntuaziorik handiena) ebaluatu zuten topaketa, programako gainerako elementuak bezala:

2012ko ekainaren 6ko TOPAKETA	1 eta 6 bitartean
Aldez aurretiko antolakuntza, informazioa, materialak eta koordinazioa	5,4
Topaketaren aretoa eta lekua (Barakaldoko BEC)	5,8
Topaketan zehar eskainitako harrera eta tratua	5,7
Topaketan zehar izandako antolakuntza eta koordinazioa	5,3
Ikastetxe parte-hartzaileek egindako ekarpenen edukiak	5,2
Irakasleek eta ikasleek topaketarekiko izan duten asetasun maila	5,3
Topaketaren balioa NAHIKO! programari dagokionez	5,3
NAHIKO! programari buruzko panelen, semaforoen eta abarren eta Topaketaren beraren power point aurkezpenak	5,5
Ikasleei eta ikastetxe parte-hartzaileei emandako panel oroigarria	5,8
Parte-hartzaile guztiei emandako musuzapi berdea eta disko hegalaria ("semaforo berdea")	5,3
Ikastetxeetako ikasleek Topaketan zehar izan duten partaidetza	5,7
Ikasleak gustura egotea Topaketari dagokienez	5,3

2.6. SAIOAK FAMILIEKIN. ONDORIOAK

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako familiekin egindako lau saioetara ikastetxe guztietako familien % 19 **bertaratu** ziren, batez beste (1, 2, 4 eta 5. unitate didaktikoak). Saioetara bertaratu ziren pertsona horien artean, % 89 emakumeak izan ziren eta % 11 gizonak.

Jarraian, saio hauek gauzatu zituzten Nahiko! programako begiraleek egindako ebaluazioetan jasotzen diren behaketa, ondorio eta balorazio kualitatibo batzuk laburbiltzen dira, saioetan izan ziren pertsonen hitzez hitzeko adierazpen batzuk komatxo artean jasoz.

Oro har, **bertan izan ziren pertsona gehienek** adostasuna agertu zuten beren seme-alaben berdintasunerako hezkuntza jorratzen duten hezkidetzaprogramei dagokienez, baita NAHIKO! programaren planteamenduari, edukiei eta metodologiari dagokienez ere:

- Oro har, gaiarekiko interes eta arreta maila egokia hauteman zen saio guztietan. Gehienek berdintasunez eta berdintasunerako heztearen premia ikusi zuten.
- Salbuespenak salbuespen, partaidetza eta oharrak oso positiboak izan ziren, mota honetako jarduketan eta NAHIKO! programaren aldekoak, alegia.
- Oso positiboki baloratu zen familiaren koadernoaren aurretiaz ezagutzeko aukera izatea eta haren helburua eta erabiltzeko modua behar bezala ulertu ahal izatea, baita etxean aurreko hiruhileko koadernoekin izan zuten esperientzia adierazi ahal izatea ere.
- Era berean, oso positiboki baloratu ziren irakasleek programaren aplikazioari dagokionez egindako laburpena eta oharrak.
- Etxeetan izandako elkarrizketen oso testigantza esanguratsuak jaso ziren ("nire alabak uste zuen gizonak ezin zutela negarrik egin", "inoiz hitz egin ez genuen gauzez hitz egin dugu", "asko hitz egiten du ipuinetako pertsonaiez"...).
- Gai zailak zirela azpimarratu zuten gehienek, baina oso garrantzitsuak seme-alaben hezkuntza eta garapen osoa lortzeko.
- Pertsona askok beren egunerokotasunera eraman zuten eta beren seme-alaben hezkuntzari, familiako nahiz gizarteko giza harremanei, gizartean nagusitzen diren balioei, gaitasun sozialei, harremanetarako gaitasunei eta abarrei buruzko galderak egin zituzten norbere buruari.

- Kezka orokorra jaso zen, familiak ez baitira hezkuntzaren agente bakarrak. Gainerakoen garrantzia gailentzen ez dela uste dute, eta horiek gero eta eragin handiagoa dute beren seme-alabengan (kalea, komunikabideak, telebista, internet...). Hori guztia dela-eta, pertsona askoren ustez oso zaila da askatasunez aukeratzea, eta are gehiago beren seme-alabentzat. Horregatik, eragin horiei kontrapisua egin beharra azpimarratu zuten.
- Hainbat ikastetxetan, beren seme-alabek esparru jakin batzuetan dituzten erreferente positiboan gabezia azpimarratu zen (neskak kirolean, mutilak etxeko zaintzan, eta batzuk zein besteak esparru profesional eta enplegu batzuetan...).
- Ikastetxe batzuetan, saioen eraginez etxeetara bidali ziren, txandaka, ikasgelan erabilitako ipuinak eta jolasak.
- Hainbat ikastetxetan, diskriminazio- eta sufrimendu-egoerak bizitzen ari ziren seme-alaben testigantzak jaso ziren familia batzuen aldetik, ikastetxeko patioan (futboleak, sexu desberdineko harremanak...) eta eskolaz kanpoko ekintzetan (dantza, balleta...) batez ere.

Familiekin egindako saio horietako batzuetan, bertaratu ziren pertsona batzuek zituzten **premiak, erresistentziak eta zalantzarik ohikoenak** hauteman ziren emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, oro har, eta NAHIKO! programaren gisako hezkidetzaprogramen bitartez horietan eragiteko premia eta garrantziari dagokionez, bereziki:

- Irakasle askorentzat eta familia gehienentzat berria zen gaia eta, beraz, horrek garapenerako zailtasunak eta prestakuntza-premia zehatzak eragiten ditu. Esaterako, sentimenduen inguruan hitz egiteko, horiek identifikatzeko, adierazteko eta izendatzeko zailtasunak aitortu ziren.
- Garapen bereizgarria eragiten duten ("neskek eta mutilek modu desberdinean sentitzen dute", "jaiotzen direnetik dira desberdinak", "neskak modu batekoak dira eta mutilak beste batekoak", "mutilak astoak dira") arrazoi biologizistak (genetika, garunaren funtzionamendua, hormonak) adierazi ziren.
- Gaur egun familia-hezkuntza eta hezkuntza-sozializazio berezia ulertu eta onartzeko zailtasunak hauteman ziren ("nik hezkuntza bera ematen diet neskei eta mutilei", "hori lehen gertatzen zen", "gaur egun modu askean aukeratzen da lanbidea", "dagoeneko badago berdintasuna").
- Generoan oinarritutako oso aurreiritzi eta estereotipo gordinak adierazi ziren ("nik (aita) ez dut nesken jarrerarik sustatuko semearengan, bestela maritxua izango da eta", "ez dut nire alaba mutila bezalakoa izatea nahi").

- Aldaketa denbora igaro ahala iritsiko dela argudiatu zuten, bere horretan ("gure seme-alabak pixkanaka aldatuko dira, hazten joan ahala").
- Beldurra eta seme-alabak babesteko nahia hauteman ziren, sufrimendurik eta gizartearen penalizaziorik jasan ez dezaten, horiek arautik eta genero-rol orokorretik ateratzea eragin baitezakete.

2.7. BARNE- ETA KANPO-EBALUAZIOA. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

2.7.1. BARNE EBALUAZIOA

Programaren esperientzia pilotuan zehar, ikastetxeek haren barne sartutako elementu guztiak erabili eta ebaluatu zituzten, modu jarraituan: materialak, saio bereziak, txostenak, txostengileak... Batetik, eta mintegi bakoitzaren aurretik, landutako unitate didaktikoaren ebaluazioa bidaltzen zen ikastetxeetara, eta ebaluazio hori partekatu egiten zen kasuan kasuko mintegian. Bestalde, ikasturte bakoitzaren amaieran dagokion ebaluazioa egiten zen eta, Lehen Hezkuntzako bigarren mailaren bukaeran, aldiz, ziklo osoarena.

Mintegiei dagokienez, honako hau izan zen irakasleen batez besteko ebaluazioa:	1 eta 6 bitartean
Mintegiaren balioa, oro har	5
Mintegiaren edukia, oro har	5
Txostenen eta txostengileen kalitatea	5,2
Landutako unitate didaktikoaren laburpena eta analisisa	4,8
Unitate didaktiko berriaren aurkezpena	4,9
Talde-lana eta esperientzien trukea ikastetxeen artean	5,7
Mintegien antolaketa	5,2
Helarazitako dokumentazioa eta materiala	5,3

**Irakasleek honela baloratu zituzten Lehen Hezkuntzako
1. eta 2. mailetako NAHIKO! programan erabilitako materialak:** **1 eta 6
bitartean**

Batez besteko orokorra	4,7
Gida didaktikoak	5,1
Ipuinak	4,7
Jolasak	4,4
Ikasleen koadernoak	4,6
Familiaren koadernoak	4,5

Beste alderdi batzuen balorazioak: **1 eta 6
bitartean**

Ikasleekin egindako saio bereziak	5,5
Familiekin egindako saio bereziak	4,7
1. eta 2. mailetako NAHIKO! programaren planteamendu orokorra	5,2
Talde-lanera egokitzapena eta ikasle guztien partaidetza	5,1
Programaren balorazioa irakasleei dagokienez (prestakuntza, pertsonalki...)	5,3
Lankidetzeta eta laneko giroa programan zehar	5,3
Hasieran aurreikusten zenarekiko gogobetetze maila	5,1
Familiei eskainitako informazioa eta prestakuntza	5,1
Familiekin egindako saioetan izandako komunikazioa eta laneko giroa	4,2
Ikastetxearentzako balioa, oro har	4,9

2.7.2. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK EGINDAKO KANPO EBALUAZIOA

2011-2012 ikasturte amaieran, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak NAHIKO! programaren kanpo-ebaluazio bat egin zuen. Erabilitako diseinua ia esperimentalak izan zen: programa amaitu ondoko neurketa, eta kontrol talde ez-baliokidea. Ebaluazioa NAHIKO! programa garatu zuten ikastetxeetan (300 neska eta 258 mutil) eta bertan parte hartu ez zuten ikastetxeen kontrol talde batean (129 neska eta 118 mutil) egin zen, baita bertako irakasle eta familiengan ere. Honako alderdi hauek aztertu ziren:

- Estereotiporik gabeko usteak, neskaiten eta mutikoen inguruan: Zer egin dezakete? Zer egin nahi dute? Nolakoak dira?
- Berdintasun- eta autonomia-egoeren antzemate maila.
- Genero-estereotipoak: Nolakoak dira neskek? Nolakoak mutilak?
- Generoari buruzko autokontzeptua: Nola definitzen dituzte beren buruak?
- Aurreiritzia: besteei zenbateraino aitortzen dizkieten gaitasun berberak, albo batera utzita generoa, jatorria edo aniztasun funtzionala.
- Emozio batzuen identifikazioa: alaitasuna, tristura, haserrea, beldurra, atsekabea, harrotasuna, lasaitasuna eta segurtasunik eza.
- Jokaera oldarkorrak: ahozkoak eta fisikoak.
- Norberarekiko kontzeptua: fisikoa, soziala, familiakoa, akademikoa.
- Enpatia: sentimenduak ulertzea, tristura sentimenduak, eta negarrekiko erreakzioa.

Lortutako ondorioen artean, honako hauek laburbildu eta azpimarratuko ditugu:

- NAHIKO! programan parte hartu duten ikasleek programan parte hartu ez duten ikasleek baino emaitza hobekak lortu dituzte genero-estereotipoen dagokienez. Emaitza hori garrantzitsutzat jo daiteke, zeren eta estereotipoa litzateke aurreiritziaren osagai kognitiboa, zeina jokabide diskriminatzaileekin lotuta dagoen.

- NAHIKO! programan parte hartu duten ikasleek emaitza hobekak lortu dituzte erantzukidetasun-egoerak antzemateari dagokionez. Alderdi hori funtsezkoa da harreman pertsonal zuzenagoak eraiki ahal izateko (familian, bikotekidearekin, eskolan, lagun artean...).
- NAHIKO! programan parte hartu duten mutilek puntuazio hobea lortu dute enpatiari dagokionez, eta sendoago atxiki dira ezaugarri psikologiko eta jokabide prosozialak (samurra izatea, sentimenduak partekatzea...) nagusi diren genero-identitateari. Emaitza hori garrantzitsutzat jo daiteke, kontuan hartzen badugu jokabide prosozialaren eta enpatiaren artean dagoen lotura positiboa, eta jarrera oldarkorarekin dagoen lotura negatiboa.
- Emaitzek agerian utzi dute neskak eta mutikoen artean desberdintasun handiak eta estatistikoki esanguratsuak daudela enpatiari, autokontzeptuari eta ahozko zein hitzeko oldarkortasunari dagokienez. Hori bat dator beste ikerketa batzuetan aurkitutako emaitzekin.
- Ez dugu baztertu behar emaitzen zati handi batean errepikatu den alderdi bat. Zehazki: NAHIKO! taldeko neska-mutikoen arteko desberdintasunak ez dira kontrol-taldean aurkitutakoak bezain garrantzitsuak, aztertutako hiru aldagaietan: erantzukidetasun- eta autonomia-egoerak antzematea; autokontzeptua; eta enpatia. Baliteke neskak eta mutikoen artean oro har aurkitu ohi diren desberdintasunak murriztu izana NAHIKO! programari esker; horrela uler liteke emaitza hori. Hala ere, erabilitako ebaluazio-motak, hau da, aurretiazko neurririk gabeko ebaluazioak, ez du uzten hipotesi hori berresten, ez baitakigu zein izan zen talde bietako neska-mutikoen abiapuntua.
- Neskak eta mutikoen artean dauden desberdintasunen ondorioz eta hezkuntza-jarduerak ustez horien eragin desberdinaren ondorioz, hausnartu eta ikertu egin behar genuke emakumeen eta gizonen genero-identitateen eraikuntzan dauden desberdintasunek duten zeresanaren inguruan; ondoren, emaitzak hezkuntzako esku-hartze programetan sartu behar genituzke, programen eragina hobetzeko.
- Metodologiari dagokionez, ikerketa-diseinu (ebaluazio) zorrotzagoak hartu behar dira (aurretiazko eta ondorengo neurriak, kontrol-taldeak); izan ere, ebaluazio horiei esker, ziurtasun handiagoz baieztatu izango baikenuke programak zer nolako gaitasuna duen espero diren emaitzak edo ondorioak sortzeko.
- Aipatutako mugak gorabehera, gure ustez, nahiko emaitza onak lortu dira ebaluazio honetan, eta hori nahikoa arrazoi da NAHIKO! programarekin jarraitzeko Lehen Hezkuntzako ikasleekin. Are gehiago, kontuan hartzen badugu ikastetxeek oso balioespen positiboak egin dituztela; horren erakusgarri dira NAHIKO! programaren ezarpenean egindako ebaluazio jarraituaren emaitzak.



**3. U AHIKO! 3-4, LEHEN
HEZKUNTZAKO HIRUGARREN
ETA LAUGARREN MAILAK**

3A. NAHIKO! PROGRAMA 3-4:

3.1. UNITATE DIDAKTIKOEN PLANTEAMENDUA ETA IBILBIDEA. HELBURUAK ETA EDUKIAK

Honako hauek dira Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetarako NAHIKO! programaren helburu nagusiak:

- Programaren jarduerak eta materialak ziklo honetako ikasleen bilakaerara egokitzea.
- Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako NAHIKO programari jarraitutasuna ematea, baina zikloa autonomiaz eta zentzuz eraikitzea.
- Eredu maskulinoak erreferente bakar gisa izan duen unibertsalizazioa modu kritikoan aztertzea.
- Eredu femeninoaren ezagutzak, ikaskuntzak, ekarpenak, balioak... esplizitatu eta balortzea.

Ni eta mundua, mundua eta ni gisa adierazitako helburu nagusia da ikasleak beren inguruan arrakastaz kokatu eta ezagutu daitezela, zaintzak eta enpleguak gizon eta emakumeen autonomian eta bizitzan duten balioa eta nagusitasuna azpimarratuz, baita beren harreman pertsonaletan eta sozialetan eta gizartearen garapenean ere.

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa ikasleen bilakaera-momentu bati dagokio eta ikasleek interes handia agertzen dute munduarekiko, hau da, hura ezagutu eta deskubritzeko, ulertu eta kontatzeko jakin-min handia agertzen dute:

- Nola bizi naiz? Zer behar dut bizitzeko? Norekin bizi naiz? Zer nolako harremanak ditut? Nola bizi naiteke ondo? Nola izan dezaket bizitza arrakastatsua?
- Munduarekiko ezagutza eta elkarrekintza, bi modu osagarri hauetara adierazten delarik: narrazioa-fikzioa (ipuinak eta mota guztietako ahozko nahiz idatzizko narrazioak, ikus-entzunezkoak...) eta fikzioa ez den informazioa (komunikabideak, ezagutza zientifikoa...).

Lehen Hezkuntzako **3 eta 4. mailetako NAHIKO! logoak** munduaren bi erdiak irudikatzen ditu.

Logo honek ezkerreko erdialdea irudikatzen du, berdintasunik ezaren eta tratu txarren ondorioz negar egiten duen munduaren erdialde grisa. Eskuinaldean, berdintasunari eta tratu onei esker irribarre egiten duen berde koloreko munduaren beste erdia dugu. Bi mundu horien erdian, NAHIKO! programaren helburua da mundua aldatu eta ziklo honetako ikasleek mundu horrekiko duten ikuspegia aldatzea.

Izan ere, ziklo honetako programaren sei unitate didaktikoen bitartez (hiru hirugarren mailan eta beste hiru laugarren mailan), NAHIKO! programaren helburua da ikasleek tratu txarrak eta tratu onak eragiten dituzten faktoreak hautematea. Programaren hizkuntza sinbolikoan, ikasleek beren inguruko berdintasunik ezaren puntu grisak eta berdintasunaren puntu berdeak identifikatu behar dituzte. Horiek antzematen lagundu nahi zaie, neska-mutilek lehenengoak saihestu eta bigarrenak bilatu ditzaten.

Faktore gris eta berde horiek (berdintasunik ezaren eta berdintasunaren faktoreak, hurrenez hurren) oso anitzak eta askotarikoak dira. Etxean, ikastetxean, auzoan, enpresetan, telebistan, prentsan eta abarretan gure egunerokotasuna osatzen duten jarrerak, ekintzak, portaerak, hitzak, harremanak, sentimenduak, usteak, ereduak eta abar dira. Faktore horiek sozializatu eta hezi egiten gaituzte, "normala" dena eta ez dena esaten digute, gure errealitatea ikusten eta ulertzen erakusten digute, gertatzen zaiguna eta nahi duguna interpretatzen eta kontatzen erakusten digute, gure ingurunean, munduan eta gure bizitzan ezagutzen eta jarduten erakusten digute.

Pertsona bakoitzean eragiten duten faktoreak dira, eta aldi berean, pertsona bakoitzak bere modura barneratu, bereganatu, erreproduzitu, transmititu... edo aztertu, kritikatu, saihestu, eragotzi... ditzake. Horrenbestez, joera nagusiari jarraitu diezaiokegu, hau da, "dagoenari", nagusitzen denari, jasotako balio tradizionaleri eta, beraz, eman zaiguna koptatu dezakegu. Edo bestela, inizatiba eta erantzukizuna hartu eta aldatzeko aukeren inguruko galdera egin dezakegu, hau da, jarrera eta portaera berriak garatu eta aukera bidezkoago eta egokiagoak proposatu ditzakegu.

Ziklo honetan, programaren helburua da ikasleek ekiteko bi aukera horiek daudela eta uneoro horietako baten aldeko apustua egiten dugula jakin dezatela. Hura ezagutu eta kasu bakoitzean egokiena dena aukeratzea da kontua, modu askean, horrela, beren bizitzan arduradun eta jabe izan daitezen, eta beren mundua eraiki dezaten. Horretarako ezinbestekoa da faktore horiek ezagutzea, horiek identifikatzea, pertsonen arteko harremanetan dituzten ondorioak ikustea (tratu txarrak edo tratu onak) eta beren egunerokotasunera gehitu nahi dituztenak eta gehitu nahi ez dituztenak erabakitzea.

Lehen unitate didaktikoak, "Zaintza", bi helburu nagusi ditu. Batetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako NAHIKO! programaren planteamendu orokorra aurkeztea. Eta bestetik, zaintzaren kontzeptua eta harekin lotutako guztia aztertu eta jorratzea. Zaintza nahitaezkoa eta beharrezkoa dela (pertsonarentzat berarentzat nahiz familiarentzat eta gizarte-

arentzat) ulertu behar dute ikasleek, eta nork zaintzen duen eta zaintzaren zein eginkizun egiten dituen, horretara zenbat denbora xedatzen duen eta abar aztertu behar dute. Hau da, egunerokotasuneko nahiz momentu jakinetako zaintzak identifikatu behar dituzte, baita zaintzaren erantzukizuna eta zaintzaren eginkizunak, zaintzaren erantzule egitearen edo zaintzan laguntzearen arteko desberdintasuna eta abar. Zaintza nola baloratzen den eta zaintzarekin lotutako ñabardura horiek guztiek gizon eta emakumeen bizitzetan zer ondorio dituzten aztertu behar dute.

- Zaintzarako hezteak tratu onetarako heztea esan nahi du, giza eskubideetarako heztea. Eredu femeninoa eta zaintza (ugalketa-eginkizuna) gutxiesten dituen eredu maskulinoa orokortzearen aurka egitea esan nahi du, eredu horrek garrantzitsuena lortzeko (maskulinoa dena, enplegua, ugalketa-eginkizuna) karga eta denbora-galera bat balitz bezala definitzen baitu hura. Neska eta mutilen autonomia eta garapen osoa lortzeko heztea esan nahi du, norberarekiko zaintza eta elkarrekiko zaintza neska eta mutilen lan- eta gizarte-bizitzarekiko bereizezinak eta interdependentek baitira (txanpon beraren beste aurpegia, bizitzaren beste aurpegia).
- Lehen unitate didaktiko honek zaintza aldarrikatzen du eta, harekin batera, eredu femeninoaren balioak, jakintzak eta praktika onuragarriak. Gainera, horiek ez dira beharrezkoak neskentzako bakarrik, baita mutilentzat ere, hau da, gizon eta emakumeentzat. Horiek gabe, emakumeak eta gizonak ez dira guztiz garatutako pertsonak izango. Eta hala izateko, behar-beharrezkoa da zaintzaren alderdi eta osagai guztiak ezagutzea eta horiek norberaren, pertsonaren, familiaren eta gizartearen berezko erantzukizun gisa bereganatzea.
- Zaintzak humanizatu egiten gaitu. Zaintzaren lege sozialak indartsuenaren biziraupenari dagokion lege naturalarengandik bereizten eta ezaugarritzen gaitu. Gizon eta emakumeak elkarri zaintzen bakarrik bihurtzen gara pertsona. Zaintzeak ondo tratatzea esan nahi du, elkarri tratu onak eskaintzea, elkarri babestea eta tratu txarrak saihestea. Horregatik, zaintza eta tratu onak berdin gisa aitortzen garenean bakarrik lortu daitezke, estatus bereko pertsona gisa aitortzen garenean, alegia. Berdintasuna da zaintzaren eta tratu onen oinarria. Berdintasunik eza tratu txarren oinarria eta jatorria da, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunik eza da, hain zuzen, emakumeek jasaten dituzten tratu txarren oinarria eta jatorria.
- Zaintza ez da berezkoa. Ez gara zaintzen jakinda jaio. Ez dago zaintzarako generik. Zaintza ikusiz eta eginez ikasten da, praktikatuz. Zaintza gizartean ikasten da (familiar, ikastetxean, hirian, hedabideetan...). Gure gizartean, batez ere emakumeek ikasi eta eskaini dituzte zaintzak, horiek familiaren ongizatera gehituz. Gizonek ere modu berean ikas dezakete. Gure gizarteari dagokio (eta, beraz, baita gure ikastetxeei ere) funtsezko giza ezaugarri hori aldarrikatu eta berreskuratzea, hau da, zaintzari eta haren ikaskuntzari balioa eman eta hura duin bihurtzea. Hori da, hain zuzen, NAHIKO! programaren bitartez lortu nahi dena. Hori da puntu berdeek esan nahi dutena, berde bihurtzen baitute (berdintasuna eta

tratu onak) oraindik grisegia den mundu hau (berdintasunik gabea, bidegabea eta krudela).

Bigarren unitate didaktikoak, "Aniztasuna", emakume eta gizon bakoitzaren eta neska eta mutil bakoitzaren baldintza paregabea eta errepikaezina jorratzen du. Giza aniztasun hori jaio eta egin egiten da, jaio eta ikasi egiten da, jaio eta errespetatu egiten da, sustatu eta txalotu egiten da... Edo ez. Ikasleei eskaintzen zaizkien hezkuntzaren, ereduaren eta erreferenteen araberakoa da. Horiei genero-estereotipoen ereduak eskaintzen bazaizkie (gizon guztiak berdinak dira eta modu batera jardun behar dute, eta emakume guztiak ere berdinak dira eta beste modu batera jardun behar dute), ez dago aniztasun pertsonala lortzeko aukerarik, askatasun pertsonalerako espaziorik:

- Genero-estereotipoen ereduak aniztasuna eta askatasuna eragozten ditu, eta diskriminazioa eta berdintasunik eza eragiten ditu (puntu grisen fabrika bat dira). NAHIKO! programaren hizkuntza sinbolikoan, "Antzara arrosak" eta "Antzara urdinak" (haurrentzako ipuin eta narrazioetatik laburbildutako neska eta mutilentzako ikaskuntza desberdinak, hezkuntza desberdinak eta ibilbide desberdinak) bizitza, rol eta estatus desberdinak sortzen dituzte (pasibotasuna, mendekotasuna, etxeko esparrua, zaintza, bigarren plano... neskentzat eta aktibitatea, independentzia, boterea, lan eta gizarte esparruak, ekoizpena, ekintza, protagonismoa... mutilentzat). Gainera, hierarkizatutako bikote- eta gizarte-harremanak sortzen dituzte askotan (mutilak lehen mailako pertsonak eta herritarrak eta neskek bigarren mailako pertsonak eta herritarrak balira bezala).
- Narrazioek, literaturak, arteak, zineak, musikak, gizarte-jolasek... hezkuntza-baliabide garrantzitsuenetako bat osatzen dute. Hezkuntza-balioak eta ereduak helarazteko ibilgailuak dira. Horietan, gizon eta emakumeek imitatze ereduak, bizitzeko estiloak eta moduak, bizitzako egoerei aurre egiteko baliabideak... bilatzen ditugu. Horiek erabiltzen ditugu bizitzako esperientziak eta erreferenteak helarazteko. Unitate didaktikoak gizarte-narrazioek eskaintzen dituzten genero-ereduak hautematen ikastea proposatzen du (haurrentzako ipuinek, batez ere), horiek bertan jasotzen diren pertsonaien aniztasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik aztertze eta, horrela, gizarte-ereduak aldatu egiten direla eta guk horiek aldatu ditzakegula, horiek ikasi eta "desikasi" egiten direla, baloratu eta beste eredu, pertsonaia, jarrera... batzuk bilatu ditzakegula ulertuz, berdintasunean oinarritutako aukera anitzagoak eta askeagoak bilatuz.
- Hori guztia behar-beharrezkoa da gure ikasleak pertsona anitzak, paregabeak eta errepikaezina izatea nahi badugu eta elkarrekiko zaintzan eta tratu onean oinarritutako berdintasuneko harremanak bizitzea nahi badugu. Gure ikasleak beren familian, ikastetxean, adiskideengan, hirian, ipuinetan eta abarretan bizitzen dituzten ereduak eta erreferenteak oinarritat hartuta garatzen eta hezten dira pertsona gisa. Bere mundua osatzeaz gain, ikastetxeak hura ezagutu eta baloratzeko, ulertu eta irudikatze, bizitzeko, interpretatzeko eta

kontatzeko erremintak eta irizpideak eskaintzen dizkie. Horregatik, gure erantzukizuna da horren jakitun izan eta horrekin bat etorri jarrotea.

Hirugarren unitate didaktikoak, "Berdintasuna", aurreko bi unitate didaktikoak laburbiltzen eta osatzen ditu, eta berdintasunean oinarritutako erreferenteak eta ereduak ("Antzara berdea") proposatzen ditu genero-erreferente eta -ereduen ordean ("Antzara arrosa" eta "Antzara urdina"). Bizitzako ibilbide desberdin horrek ("jolas" desberdin bat) ikaskuntza berdina, hezkuntza berdina, bizitza pertsonalerako eta gizarte-estatuserako aukera berdina eskaintzen eta ahalbidetzen dizkiete ikasle guztiei, hala, neska eta mutilek garrantzia eta protagonismo bera izan dezaten etxean (zaintza, enpatia, afektuak eta abar) nahiz esparru publikoan (lana eta gizartea, ekoizpena, kultura, politika eta abar). Ikastetxeak gizon eta emakumeen aniztasunerako eta errespeturako hezkuntza eskaini dezake, bi genero-ibilbideen alternatiba bat proposa dezake, eta taula horiek eralda ditzake beste taula batera, beste jolas batera, beste hezkuntza batera iritsi arte.

- Berdintasunak elkarrekiko zaintza, aniztasuna, autonomia eta askatasun pertsonala ahalbidetzen eta bermatzen ditu. Berdintasunerako hezteak zera esan nahi du, neskek eta mutilek beren bizi-ibilbide propioa eta pertsonala eraikitzeko moduan hezteak (aniztasunerako hezteak), horretarako, bi genero-antzeren beharrezko elementu positiboak eskainiz (gure gaur egungo gizartean, antzara arrosa berreskuratzea esan nahi du horrek, zaintzarako eta bizitzarako hezkuntza, alegia). Hezkidetzarako antzara bat da, bi genero-ereduen eta horietako bakar baten unibertsalizazioaren (gaur egun, eredu maskulino bakarra) aurkako diskriminazioaren kontrako hezkidetzak-eredu bat. Gure ikasleek, neskek zein mutilek, pertsona oso gisa garatzeko beharrezko ikaskuntzak izan ditzatela da helburua, hau da, beren bizitzako esparru guztietan autonomiaz bizitzeko eta bizitzan nahiz bikote-harremanetan berdintasuneko harremanak izateko gai izan daitezela.
- NAHIKO! proiektuak proposatzen duen berdintasunean, askatasunean, aniztasunean eta elkarrekiko zaintzan oinarritutako bizitza pertsonaleko eta familia- nahiz gizarte-harremanetarako proiektu hori da, hain zuzen, NBEren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarria eta helburua. Adierazpen hori emakume eta gizonezko guztien berdintasunaren aitortzearen inguruan garatzen da, gizon eta emakume guztien, neska eta mutil guztien duintasun, askatasun eta eskubide berdinetan, alegia. Berdintasunerako hezkuntzak baino ez du bermatzen zaintzarako eta aniztasunerako hezkuntza, giza eskubideetarako eta tratatu onetarako hezkuntza.

Laugarren unitate didaktikoak, "Lanbideak", lan-mundua jorratzen du, hau da, ekoizpen-lana, hura baita, zaintzaz gain, beharrezko beste giza jarduerarik garrantzitsuena. Jarduera horrek gizabanakoen eta kolektiboen aberastasuna, garapena, ongizatea... eskaintzen ditu eta, gainera, pertsona bakoitzaren nortasuna eta bizitzeko modua konfiguratzeko, baita pertsona bakoitzak bere familian eta gizartean duen rola eta estatus soziala ere. Enplegua, hau da, esparru publikoko lan ordaindua, gizonei esleitu izan zaie tradizioz (antzara urdina) eta etxeko

esparru pribatuko ordaindu gabeko lana, aldiz, emakumeei (antzara arrosa). Gaur egun, emakumeen antzaran ere kokatzen da enplegua (gizonen baldintza beretan ez bada ere), baina zaintza ez, ordea, gizonen antzaran. Horrenbestez, antzara arrosak eta antzara urdinak hor jarraitzen dute oraindik:

- Emakumeak presenteago daude pertsonen zaintzara xedaturiko zerbitzuen sektorean, lanaldi partzialeko eta ordainsari eta izen txikiagoko enpleguetan (izan ere, enplegu eta lanbideek balioa galtzen dute horietan emakumeak gailentzen badira). Kontziliazio-neurri gehienak emakumeek erabiltzen dituzte; gainera, emakumeek egiten dituzte ordaindu gabeko familiako lan gehienak (horrek ondorio jakin batzuk eragiten ditu lan-munduan).
- Berdintasunerako hezkuntzak ("berdintasunaren antzara") ordaindu gabeko lana eta zaintza txertatu eta horiei balioa ematen die (lan zehatza egin behar da zentzu horretan, mutilen artean batez ere); gainera, enplegua txertatu eta hari balioa ematen dio, hura ezinbestekoa eta beharrezkoa baita pertsona bakoitzarentzat (lan zehatza egin behar da, neskekin batez ere). Hau da, neskak eta mutilak bi lan mota horietarako prestatu eta erakutsi nahi zaie. Hori gabe ezinezkoa da pertsonaren garapen osoa eta orekatua lortzea. Hori gabe, hau da, etxean baterako erantzukizunik gabe, ezinezkoa da gizon eta emakumeentzako baldintza eta aukera berdinetan oinarritutako berdintasuneko enplegurik lortzea.
- Enplegu bat izatea ez da aukeraketa bat gure gizartean, premia bat baizik, neskentzat zein mutilentzat. Enplegu bat aukeratu dezakete eta aukeratu behar dute (ikasi). Neskak eta mutilak ez dira jaiotzen enplegu jakin baterako neska edo mutil jaiotze hutsagatik, baina ondorengo aukerak oso bereizita daude, eta ezinbestekoa da neskek eta mutilek enplegu guztiak benetako aukera gisa ikus ditzatela (bakoitzak bere burua mota guztietako enpleguetan ikus dezala), hura gauzatzeko beharrezko ezagutzak eta gaikuntzak ikasteko baldintza hutsekin.

Bosgarren unitate didaktikoak, "Komunikabideak", gure gizartean horren indartsua eta nonahikoa den eragile hezitzaile hori jorratzen du. Komunikabideetan, presentziarekin, harremanekin eta gizarte-arrakastarekin lotutako oinarritzko ereduak ikasten ditugu. Hau da, gizartean eta bizitzan arrakasta izan duten ereduak transmititu eta ikasten ditugu, aintzatespena eta hedapena merezi duten ibilbide arrakastatsuak:

- Neska eta mutilentzako gizon eta emakumeen ereduak, oso presentzia desberdina dutenak. Hedabideetan agertzen diren gizon eta emakumeak zenbatzean, eta horiek agertzen diren atalak, albiste motak, protagonismo mota, orrialdea, argazkien tamaina eta tipografia eta abar aztertzen ditugunean, komunikabideek gizonezkoen jarduerak, gauzak eta mundua jasotzen dutela egiaztatu dezakegu. Emakumeak, biztanleriaren beste erdia, munduaren beste erdia, ez dira horietan jasotzen, ikusezinak dira.

- Bestalde, sekzio desberdinetan eta oso tratamendu eta protagonismo desberdinekin agertzen direla egiazta dezakegu. Sekzio "garrantzitsuak" gizonezkoentzat dira batik bat (izokin prentsa, ekonomia, politika, kirolak...) eta sekzio "ez garrantzitsuak", aldiz, emakumeentzat (prentsa arrosa, txutxu-mutxuak, bitxikeriak, azken orrikoak, biluziak...). Horrek guztiak gizonezkoen gizarte-arrakasta (arrakasta ekonomikoa jarduera profesionalari esker, hura dena dela, baita delituzkoa bada ere) eta emakumeen gizarte-arrakasta (arrakasta sentimentala edertasunari esker, nola edo hala eta kostatzen dena kostatzen dela) definitzen du. Arrakasta eta, hala badagokio, porrota.
- Neskek eta mutilek gizonak non dauden ikusten eta ikasten dute, hau da, mutilak etorkizunean non egongo diren eta horiei dagokien lekua, mutilak izate hutsagatik. Neska eta mutilek emakumeak non ez dauden ikusten eta ikasten dute, hau da, neskek etorkizunean non egongo ez diren, ez dagokien eta egokitzen ez zaien lekua, neskek izate hutsagatik. Bizitzako ibilbide desberdinen proposamen bat ikusi eta ikasten dute: protagonismoa mutilentzat eta bigarren mailako eginkizunak neskentzat (antzara urdina eta antzara arrosa).
- Horren alternatiba gisa, emakumeen jarduera, interesak, kezak eta balioak jaso, ikustarazi eta baloratuko dituzten bitartekoak ditugu. Emakumeak eta gizonak atal berdinetan eta trataera eta protagonismo berarekin jasoko dituzten bitartekoak. Errealitatea islatuko duten bitartekoak, eta ez aurreko pentsamendu sinbolikoa. Errealitatean, emakumeek gizonezkoek bezala, horien esparru berdinetan jardun, lan egin eta laguntzen baitute. Horiek ikusaraztea falta da, horien izenak ezagutu, zergatik ezagutzen ez genituen aztertu, emakumeak ezkutuan utzi eta diskriminatzen dituzten mitoak, aurreiritziak eta ideia faltsuak aztertzea, alegia.

Seigarren unitate didaktikoak ,*"Elkarrekin berdintasunez bizi"*, aurreko bost unitateak laburbiltzen eta txertatzen ditu. Elkarrekin berdintasunez bizitzeak elkarrekiko tratu onak, hau da, bidezko harreman zuzenak eskaintzea esan nahi du, bizitzari eta egunerokotasuneko harremanei giza eskubideak aplikatuz. Programaren hizkuntza sinbolikoaren arabera, puntu berde eta gris txikiez (ekintzak, oharrak, jarrerak, portaerak, begiradak, keinuak, isiltasunak...) eraikitako elkarbizitza izango litzateke. Kolorerik gabeko puntu (ohiturak, usteak, harremanak...) neutrorik existitzen ez den elkarbizitza, hau da, puntu grisez (berdintasunik gabeko mundu bat eraikitzen dute) edo puntu berdez (berdintasunean oinarritutako mundua eraikitzen dute) osaturiko elkarbizitza, beti ari baikara gure mundua (ber-)eraikitzen, norabide batean zein bestean.

- Elkarrekin berdintasunez bizitzeak hirugarren eta laugarren mailetako ikasturteetan zehar aztertu ditugun elementuak hartzen ditu barne: elkarrekiko zaintza eta gizon eta emakumeen baterako erantzukizuna, aniztasuna eta elkarrekiko errespetua, duintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako berdintasuna, autonomia pertsonala eta neska eta mutilen garapen osoa, emakumeen eta eredu arrakastatsu berrien eta gizartearen jarduteko eredu berriak ikusaraztea, eta partaidetza, lankidetzeta eta kooperazioa.

- Horretarako, aniztasunaren eta askatasunaren aurkakoak diren aurreiritziak, txisteak, isekak, diskriminazioak, erasoak... identifikatu behar dira, baita aniztasuna eta askatasuna eragiten duten jarrerak, esaldiak, ekintzak... ere. Baina, horretarako, elkarbizitzako aldaketa, zailtasun eta krisialdiei aurre egin behar zaie, berdintasunean, errespetuan, partaidetzan, lankidetzan, enpatian, entzunaldian, elkarriketan, adostasun-proposamenetan, elkarrekin hartutako erabakietan eta adostutakoarekiko errespetuan oinarrituz.

3.2. LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! MATERIAL DIDAKTIKOAK

Orebe hezkuntza-aholkularitzak Emakunderentzat sortu eta garatutako ziklo honetako materialen helburu nagusia da, berdintasunean oinarrituz, ikasleek munduaren eta gizartearen aldetik jasotzen duten **errealitatearen eta ereduaren interpretazioa** aztertzea. Horretarako, narrazioetan (haurrentzako ipuinetan, ilustrazioetan, filmetan eta abarretan) eta informazioetan (prentsa, telebista, internet eta abar) gaineratzen diren eredu maskulinoak eta femeninoak barneratzen dituzte.

Eredu horiek giza jardueraren oinarritzko bi euskarriri egiten diete erreferentzia: emakume eta gizonen zaintza (ugalketa-eginkizuna) eta enplegua (ekoizpen-jarduera) gure gizartean. Jolasen bitartez, gure ikasleek jasotzen dituzten bizi-ereduek neska eta mutilentzako oso ibilbide desberdinak osatzen dituztela ikusi eta ulertu dezakegu (nesken antzara arrosa eta mutilen antzara urdina). Ibilbide horietako ikaskuntzak, hezkuntza, baliabideak, gaikuntzak eta abar oso desberdinak dira, eta oso rol eta estatus desberdinetan jartzen dituzte neskak eta mutilak. Gainera, berdintasunaren eta giza eskubideen alternatiba aurkezten dute (berdintasunaren antzara berdea), elkarrekin egin beharreko bizitzako ibilbide horri esker, pertsona bakoitza modu autonomoan bizi eta guztiz garatu baitaiteke.

Horretarako, ikasleen koadernoak honako paragrafo hauek guztiak jasotzen ditu, unitate guztietan: "Jolasten" (unitateko jolasei buruzko laburpena eta hausnarketa), "Kontu-kontari" (unitateko edukiei buruzko hausnarketa, haur-literaturaren bitartez), "Munduari begira" (unitateko edukiei buruzko hausnarketa, komunikabideen bitartez) eta "Inguru-minguru" (unitateko edukiek ikasleen gertuko eta egunerokotasuneko bizitzarekin duten lotura).

Eta familiaren koadernoak honako paragrafo hauek hartzen ditu barne: "Ikastetxean" (ikastetxean landutako jolas, saio eta koadernoen laburpena) eta "Etxean" (unitateko edukiekin lotutako eta familiako bizitzan oinarritutako elkarriketa eta ariketa gehigarriak).

Gainerako zikloetan bezala, ziklo honetako NAHIKO! materialak **hiruhileko unitate didaktiko baten** inguruan egituratzen dira. Horregatik, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloari dagokion materialak sei unitate didaktiko hartzen ditu barne, hiru ziklo horretako maila bakoitzeko.

UNITATEAK

JOLASAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILA

1. Unitate didaktikoa. Zaintza	"Zainketa" Piramidea" "Sena ala heziketa?"
2. Unitate didaktikoa. Aniztasuna	"Ipuinen loteria" Jolasa: "Nesken antzara" Jolasa: "Mutilen antzara"
3. Unitate didaktikoa. Berdintasuna	"Berdintasunaren antzara"

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

4. Unitate didaktikoa. Lanbideak	"Hitz debekatuak" Jolasa: "Laukoteak"
5. Unitate didaktikoa. Komunikabideak	"Pertsonaiak" "Komunikabideen partxisa"
6. Unitate didaktikoa. Elkarbizitza berdintasunez	"Elkarbizitzaren antzara berdintasunez"

Material horiek guztiak Emakunderen web orri honetan aurkituko dituzu (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde → Nahiko! → Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (3. eta 4. mailak), unitate didaktikoak:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahikcon/es/contenidos/informacion/nahiko_materialak/es_unidades/segundo_ciclo_primaria.html

Jolas horietan guztietan, adierazitako dinamikekin **jolastu aurretik** (dominoa, puzzlea, familiak, memory eta abar), ikasleak ezagutzeko aldez aurretiko jarduera batzuk egitea gomendatzen da, esate baterako:

- Kartak eta fitxak ezagutu, horien edukia argitu eta ulertu, eta zalantzak sor ditzaketen esanahiak adostu.
- Pisten bidez kartak eta fitxak asmatu, sinonimoak eta antonimoak bilatu...
- Familien arabera multzokatu, sailkatu, zerrendak, taulak, kartelak, horma-irudiak egin...
- Karta eta fitxa berriak sortu eta gehitu, horien gainean idatzi, deskribatu, ipuin baten bidez elkarren artean lotu, irudikatu eta abar.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

1. UNITATE DIDAKTIKOA: ZAINZA

"ZAINKETA" JOLASA:

- 60 kartaz osaturiko 2 karta sorta. Karta sorta bakoitzean 4 kartaz osaturiko 15 familia daude: umeen zainketa; sendatzeko zainketa; pertsonen zainketa; elikadura, osasuna; osasuna; babesa, etxea; heziketa; larrialdiak; aisialdia, kultura; ongizatea; segurtasuna; erantzukizun-kidetzatza; parekotasuna; elkarren ardura eta konpainia; duintasuna, berdintasuna.
- Helburua: zaintzaren hainbat alderdi ezagutzea (adin txikikoen zaintzaz gain), esparru pribatua nahiz publikoan, esparru ordaindua nahiz ordaindu gabean, esparru pertsonalean nahiz sozialean...

"PIRAMIDEA" JOLASA:

- 5 mailatan (kolore desberdinak dituzte) kokatu behar diren 50 kartaz osaturiko 2 karta sorta, piramide bat osatuz.
- Helburua: zaintzaren hierarkizazioa ikusaraztea, gizartearen oinarria den heinean: lehen solairua (piramidearen oinarria), etxeko zainketa; bigarren solairua, gizartearen zainketa; hirugarren solairua, azpiegiturak; laugarren solairua, gizartearen kultura; bosgarren solairua, norberaren kultura.

"SENA ALA HEZIKETA?" JOLASA:

- Dominoko 54 fitxaz osaturiko 2 karta sorta. Fitxa bakoitzak genero-estereotipo bat jasotzen duen irudi bat eta esaldi bat ditu.
- Helburua: zainketa zaintzen, egiten... ikasten dela egiaztatzea, sexua dena dela. Era berean, gizonak eta emakumeak eginkizun jakin batzuetarako eta beste batzuk ez egiteko pre-determinazioarekin jaiotzen direla barne hartzen duten genero-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

2. UNITATE DIDAKTIKOA: ANIZTASUNA

"IPUINEN LOTERIA" JOLASA:

- Zenbaki eta 13 irudi desberdineko 32 loteria-kartoi eta 111 kartaz osaturiko karta sorta, horiek nahastu eta kartoietak irudiak izendatzen ("abesten") joateko.
- Helburua: ipuinetako eta haur-narrazioetako pertsonaiekin lotuta agertzen diren irudiak, objektuak, erremintak, lekuak, eginkizunak... ezagutzea. Emakumeekin lotuta eta gizonekin lotuta agertzen direnak identifikatzea. Egiten diren ikaskuntzak eta horiek eragiten dituzten ondorioak eta aukerak aztertzea.

"NESKEN ANTZARA. MUTILEN ANTZARA" JOLASA:

- Antzara-jokoaren bi taula: arrosa (antzara-laukietan ipuin klasikoetako nesken pertsonaiak agertzen dira) eta urdina (antzara-laukietan ipuin klasikoetako mutilen pertsonaiak agertzen dira). Horiek haur-narrazioek eta ipuinek gizonei eta emakumeei, neskei eta mutilei, esleitzen dizkieten genero-rolak eta -estereotipoak irudikatzen dituzte, narrazio horietan batzuekin eta besteekin lotzen diren objektuak erabiliz.
- Helburua: antzara-joko batean eta bestean aurrera egin ahala lortzen diren ikaskuntza desberdinak ulertzea. Antzara-joko arrosaren gisako ibilbidea hartzen duten eta antzara-joko urdinaren gisako ibilbidea hartzen duten pertsonak bereganatzen dituzten prestakuntza eta aukera desberdinak ulertzea. Hau da, azken laukira iristeko baliabide, estatus eta baldintza desberdinak ulertzea ("ezkondu eta zoriontsu izan ziren betiko"), ipuinaren amaiera oso bestelakoa izan baitaiteke neska eta mutilentzat.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

3. UNITATE DIDAKTIKOA: BERDINTASUNA

"BERDINTASUNAREN ANTZARA BERDEA,
NESKEN ETA MUTILEN ANTZARA" JOLASA:

- Antzara-jokoaren kolore berdeko 4 taula berdin (antzararen laukietan neskak eta mutilak agertzen dira). Antzara-joko urdineko eta antzara-joko arrosako elementuak agertzen dira, hau da, pertsona bat esparru guztietan autonomiaz eta modu integramean garatu ahal izateko beharrezkoak eta komenigarriak diren elementuak (ez dute laranja erdia izan behar, laranja osoa izanik, pertsona osoak).
- 53 kartako 4 karta sorta. Lauki bakoitzean egia edo gezurra motako probak barne hartzen dituzten kartak, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak jasotzen dituztenak.
- Helburua: ikasleei lauki zentral batera (hiri bat, ipuinaren amaiera) iristeko baliabideak eskainiko dizkion bizitzako ibilbide bat egitea (prestakuntza). Horietan pertsona autonomoak eta guztiz garatuak bizi dira, esparru guztietan elkarrekin harremanetan jarri daitezkeen herritar osoez osaturiko gizartea, hala nahi izanez gero, beren bizitza afektiboak eta beren familia-proiektuak baldintza, aukera eta tratu egokietan partekatu ahal izango dituztelarik.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

4. UNITATE DIDAKTIKOA: LANBIDEAK

"HITZ DEBEKATUAK" JOLASA:

- Erreminten bitartez irudikatutako lanbideez osaturiko 60 fitxako karta sorta. Karta bakoitzean lanbidearen izena adierazten da, femeninoz eta maskulinoz. Gainera, lanbidea asmatu behar den jolas honetan esan ezin daitezkeen hitz batzuk jasotzen dira.
- Helburua: gizon eta emakumeek gauzatzen dituzten eta/edo gauzatu ditzaketen lanbide guztiak ikusaraztea, ikasle guztiek beren burua lanbide desberdinetan irudika dezaten.

"LAUKOTEAK" JOLASA:

- 60 fitxaz osaturiko 4 karta sorta. Karta sorta bakoitzean, emakumeak, gizonak, lanbideak eta horiek gauzatzeko gaitasun edo trebetasun egokiak irudikatzen dira. Jolasaren helburua laukoteak osatzea da, familia horietako bakoitzaren karta bakoitzarekin (gizona, emakumea, lanbidea eta trebetasuna).
- Helburua: gizon eta emakume guztiak lanbide guztiak gauzatu ditzaketela ikusaraztea, horretarako ikasi eta prestatzen bada, dagozkion gaitasunak garatuz, horretarako ezagutzak bereganatuz eta behar adina praktikatuz.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 5. UNITATE DIDAKTIKOA: KOMUNIKABIDEAK

"PERTSONAIK" JOLASA:

- 4 jarduera-eremuko (kirola, kultura-aisialdia, politika-ekonomia, zientzia-ikerketa) pertsonaiak jasotzen dituzten 80 fitxa (40 emakume eta 40 gizon), 20 eremu bakoitzeko (10 gizon eta 10 emakume). Fitxa bakoitzean 6 galdera daude eta, horiek modu egokian erantzuten badira, pertsonaia identifikatzeko pistak ematen dituzte.
- Helburua: esparru guztietan ekarpenak egiten dituzten eta egin dituzten gizon-emakumeak daudela ikusaraztea. Adierazitako esparruetan eta beste informatika-atal batzuetan nabarmendu diren gizon eta emakume gehiago bilatzea. Berdintasunaren ikuspuntutik, gizonen izenak eta lorpenak emakumeenak baino gehiago zergatik ezagutzen ditugun aztertzea, horiek balio bera izan arren, baita batzuei buruzko informazioa lortzea zailagoa zergatik den, komunikabideetan gizonak bakarrik zergatik agertzen diren eta abar aztertzea ere.

"KOMUNIKABIDEEN PARTXISA" JOLASA:

- Kolore bakoitzak informazio-eremu bat (kirola, kultura-aisialdia, politika-ekonomia, zientzia-ikerketa) irudikatzen duen partxis-taula bat eta 48 kartaz osaturiko 4 karta sorta. Horiek egia edo gezurra diren hainbat albiste gaineratzen dituzte eta, horrela, komunikabideen hedapenean eragiten duten ezagutzarik eza, aurreiritziak eta genero-estereotipoak ikusiko dira.

- Helburua: komunikabideek emakumeak eta horiek gizarteari egiten dizkieten ekarpenak ezkutuan utzi eta gutxien dituztela konturatzea. Generoaren ikuspegitik albisteen traterak eta hedapena baldintzatzen duten mitoak eta estereotipoak apurtzea.

3. ETA 4. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 6. UNITATE DIDAKTIKOA: ELKARBIZITZA BERDINTASUNEZ

"ELKARBIZITZAREN ANTZARA BERDINTASUNEZ" JOLASA

- Zikloko 6 unitate didaktikoei buruzko probak (mimika, marrazketa, kantua, dantza...) gaineratzen dituzten 52 txartel. Txartel bakoitzak 6 proba gaineratzen ditu. Taldeka jolasten da, 3. unitate didaktikoko berdintasunaren antzara-joko berdearekin.
- Helburua: jolasak aurreko unitate didaktiko guztiak laburtzen eta txertatzen ditu, eta berdintasuneko elkarbizitza sinbolizatzen du.

3B. LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA:

3.3. DEIALDIA, DATUAK ETA PARTAIDETZA. 2007-2008 ETA 2008-2009 IKASTURTEETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen **deialdia** Lehen Hezkuntzako Bosgarren eta Seigarren mailetakoko esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxeetara bideratu zen. Haren bitartez, Lehen Hezkuntzako Hirugarren eta Laugarren mailetakoko NAHIKO! programaren esperientzia pilotuan parte hartzeko gonbidapena egin zitzaion. Deialdi hori egiteko, Emakunderen zuzendariaren gonbidapen-eskutitz bat, NAHIKO! programak hurrengo bi ikasturteetan izango zituen ezaugarrien dokumentu bat eta parte hartu nahi zuten ikastetxeen datuak jasotzeko partaidetza-eskaeraren orria bidali ziren.

Gonbidapenean argi eta garbi adierazten zen, esperientzia pilotuan parte hartu nahi zuten ikastetxeentzat doakoa izateaz gain, NAHIKO! programa Berdintasunean, Errespetuan eta Indarkeriarik Ezan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko Hezkidetzeta Programa bat dela eta, haren bidez, elkarrekin berdintasunez bizitzeko balio-hezkuntza irakasten dela, betiere giza eskubideak errespetatuz eta horiek egunerokotasunean aplikatuz, eta ikasleek bereganatzen dituzten genero-rolak aztertuz.

Plaza kopurua mugatua zenez, eskaeren aukeraketa egiteko orduan aniztasun-irizpideak hartu ziren kontuan, ikastetxeen ezaugarriak oinarritzat hartuta. Esperientzia pilotua 2007-2008 ikasturteko lehen hiruhilekoan abiarazi zen eta 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan zehar garatu zen.

Esperientzia pilotuaren ezaugarrien dokumentuan honako elementu, baldintza eta konpromiso hauek jaso ziren, funtsean, bi ikasturteetarako, Emakunderen nahiz ikastetxe parte-hartzaileen aldetik:

- Ikastetxeetan abian jarritako esperientziaren prestakuntzarako, ebaluaziorako eta jarraipenerako hiruhileko mintegi presentzialak esperientzian parte hartuko zuten irakasleentzat.
- Sei unitate didaktiko, hiru maila eta ikasturte bakoitzeko, bat hiruhileko bakoitzeko. Unitate bakoitzak gida bat du irakasleentzat, baita gelan lan egiteko materialak eta ikasle eta familientzako koadernoak ere.

- Unitate bakoitzerako materialak bi ikasturteetan zehar prestatu, erabili eta ebaluatu ziren, ikastetxe parte-hartzaileetako irakasleen laguntzarekin.
- Ikastetxe bakoitzari unitate didaktikoetako material guztiak eta ikasle eta familientzako koaderno guztiak helarazi zitzaizkion, guztiz doan.
- Ikastetxeentzako jarraipen-, koordinazio- eta aholkularitza-zerbitzua programaren edukiari, materialen erabilerari eta programako saio bereziekin eta prestakuntza-jardunaldiekin lotutako guztiari dagokionez.
- Emakundek diseinatu eta prestatutako hiruhileko saio bereziak ikasle eta familiekin, ikastetxeetatik kanpoko langileen aldetik.

Ikastetxei Emakundeko zuzendariaren **onarpenean eta ongietorri-eskutitza** bidali ostean, esperientzia pilotua inskribatutako irakasleak prestatzeko lehen mintegi batekin abiarazi zen. Mintegi horretan, edizio horretako xehetasun guztiak zehaztu ziren. Esperientzia pilotua Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin gauzatu zen 2007-2008 ikasturtean, eta ikasle berdinekin 4. mailan, 2008-2009 ikasturtean.

2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetako 3. eta 4. mailetako NAHIKO! esperientzia:

- Ikastetxeak: 11 ikastetxe.
- Taldeak: 21 ikasle talde.
- Irakasleak: 50 irakasle.
- Ikasleak: 468 ikasle.

Parte hartu duten Arabako ikastetxeak:

- IKASBIDEA IKASTOLA. Vitoria–Gasteiz.

Parte hartu duten Bizkaiko ikastetxeak:

- GEROA Ikastola LHI. Getxo.
- KAREAGA GOIKOA LHI. Basauri.
- KURUTZIAGA Ikastola. Durango.

- SAN PELAYO Ikastetxea. Ermua.
- SAN FELIX Ikastetxea. Ortuella.
- TXANTXIKU Ikastola. Oñati .
- URRETXU-ZUMARRAGA Ikastola. Urretxu.
- VDA. DE EPALZA LHI. Bilbo.
- ZALDUPE ONDARROAKO EP. Ondarroa.

Parte hartu duten Gipuzkoako ikastetxeak:

- DUNBOA HI. Irun.

3.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ikasturte bakoitzeko lau prestakuntza-mintegi egin ziren. Horien helburua irakasleei hezki-detzaren inguruko prestakuntza eskaintzea zen batetik, eta ziklo bakoitzeko unitate didaktikoen inguruko prestakuntza zehatza eskaintzea, bestetik (unitate didaktiko bakoitzaren gai nagusia, helburuak eta edukiak, eta material, jolas eta ipuinen deskribapena, helburuak, ariketak eta arauak), baita ikastetxeetan ikasleekin eta familiekin egindako lanaren jarraipena, trukea eta ebaluazioa egitea ere.

Gainera, ikasturte bakoitzaren amaieran NAHIKO! **programaren** ikasturteko esperientzia ebaluatzeko mintegi bat egin zen eta, bertan, hurrengo ikasturterako aurreikuspenak eta iradokizunak jaso ziren.

Programan parte hartu zuten ikasleen irakasleez gain, mintegi horretan parte hartu zuten, halaber, tutoreek, berritzeguneetako erreferentziako aholkulariek (irakasleentzako laguntza eta berrikuntzarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko zentroak) eta, batik bat, garaian garaiko (Lehen Hezkuntza) aholkularitzek edo ikastetxe parte-hartzailearen erreferentziako aholkularitzek.

Prestakuntza eta jarraipenerako mintegiak programa batean oinarrituz garatu dira. Hark hiruhileko aldaketa txiki batzuk izan ditu, unitate didaktiko bakoitzaren premien arabera, eta honako urrats hauetan laburbildu genezake:

- Dokumentazioa jasotzea.
- Jardunaldiaren aurkezpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Programa eta Prestakuntza Eremuko arduradunaren eta zuzendari nagusiaren aldetik.
- Hurrengo hiruhilekoan landuko den unitate didaktikoaren gai nagusiari buruzko txostena, hezkidetzan eta dagokion gaian adituak diren txostengileen aldetik.
- Mahai-ingurua txostengileekin.
- Atsedenaldia.
- Aurreko hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren eta hiruhilekoan zehar ikasleekin eta familiekin egindako saio berezien laburpena, ikaskuntzak eta ondorioak.
- Ikastetxe parte-hartzaileen laburpena, ebaluazioa eta ondorioak, taldekako bilera eta lanen bitartez. Horrela, horien esperientziak eta praktika egokiak ezagutu daitezke, baita aurreko hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren inguruko ebaluazioak eta ondorioak ere.
- Atsedenaldia.
- Orebe aholkularitzaren aurkezpena. Izan ere, hura arduratu da NAHIKO! programaren garapenez eta koordinazioaz, eta hurrengo hiruhilekoan landu beharreko unitate didaktiko berriko helburuez, edukiez eta materialez (jolasak, ipuinak, koadernoak, saio bereziak, egutegia...).
- Jardunaldiaren amaiera.

Hiruhileko mintegi horiek hezkidetzaren, genero-ikuspegiaren eta berdintasunerako hezkuntzaren ikuspegitik unitate didaktikoekin lotutako edukiekin zerikusia duten honako **TXOSTENGILE ETA TXOSTEN** hauek izan zituzten:

1. UNITATE DIDAKTIKOA: "ZAINKETA"

Elena Simón Rodríguez andrea: "Tratu txarrei ikastetxetik aurea hartzea"

- Tratu txarrak, genero-sozializazioaren icebergaren tontorra.

- Genero-identitateen sozializazio- eta eraikuntza-prozesua. Nortasun pertsonalak eta harreman sozial hierarkizatuak.
- Genero-identitateak eta -harremanak bikote-harremanetako indarkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriarenganako gizarte-permisibitatearen oinarri gisa.
- Ikastetxearen eginkizun igorlea eta aldatzailea. Hezkidetzako esku-hartzea. Ikastetxeak egin dezakeena: berdintasunerako hezkuntza integrala.

Elena Simón Rodríguez andrea: "Zainketaren eta hezkuntzaren alternatiba"

- Eredu maskulinoaren balioak unibertsalizatzeak neska eta mutilentzat dituen arriskuak: pertsona, gauza eta naturaren nagusitasuna eta indartsuenaren legea.
- Eredu femeninoaren balioen premia neska eta mutilentzat: pertsona, gauza eta naturaren nagusitasuna eta bizikidetzaren legea.
- Gaur egungo ikastetxeetan eskaintzen den zainketa. Zainketetarako eta baterako erantzunkidetasunerako hezteak.

2. UNITATE DIDAKTIKOA: "ANIZTASUNA"

Amparo Tomé González andrea: "Berdintasuna eta aniztasuna versus genero-rolak"

- Neska izatearen onena. Mutila izatearen onena.
- Nola eta non ikasten da neska izaten? Nola eta non ikasten da mutila izaten? Familia-ereduak. Ikastetxe-ereduak.
- Norberaren nortasuna eta genero-harremanak neska eta mutilen aldetik. Lotura eskolako indarkeriarekin, etorkizuneko bikote-harremanekin eta emakumeen aurkako indarkeriarenganako gizarte-permisibitatearekin.
- Berdintasunaren eta aniztasunaren alternatiba ikastetxean. Nola hezi berdintasunerako? Ikastetxeak egin dezakeena.

3. UNITATE DIDAKTIKOA: "BERDINTASUNA":

M^o Ángeles Espinosa Bayal andrea: "Berdintasunerako eta giza eskubideetarako hezte"

- Berdintasuna funtsezko giza eskubide gisa. Berdintasunaren eskubidea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean.
- Berdintasunik ezak hezkuntza arloan dituen ondorioak. Eskolaren antolamendua. Curriculum inplizitua eta esplizitua. Eskola-baliabideen erabilera.
- Nola hezi ikastetxean berdintasunean oinarrituz? Balioetan oinarritutako hezkuntza oinarritzat hartuta. Hezkidetzaren eredia oinarritzat hartuta. Hezkidetzaren emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko estrategia gisa.

4. UNITATE DIDAKTIKOA: "LANBIDEAK"

Elena Simón Rodríguez andrea: "Handitzean zera izango naiz... Neska eta mutilen itzaropenak eta aukerak: Berdintasunerako orientazioa eta hezkidetzaren."

- Eskola-sexismoa: Non ikusten da? Eta non ez? Bizitzarako orientazioa eta lanbiderako orientazioa.
- Gizon eta emakumeen genero-rolak, genero-identitatea eta eginkizun sozialak: rol hornitzailea eta rol adierazkorra, ama-eginkizuna eta aita-eginkizuna, agente-eginkizuna eta zainketa-eginkizuna, itzarote-rola eta atxikimendu-rola, eta ekimen-rola eta kontrol-rola. Genero-estereotipoak.
- Genero-esleipenak: eremu pribatua eta eremu publikoa.
- Hezkidetzaren eta orientazioaren generoaren ikuspegitik. Iradokizunak eta proposamenak.

5. UNITATE DIDAKTIKOA: "KOMUNIKABIDEAK"

María Antonia Moreno Llana andrea: "Berdintasuna eta komunikabideak: arrakastaren narrazioak"

- Komunikabideak eta gizartea: Kontatzen dena eta kontatzeko modua, baloratzen eta igortzen dena, alde batera uzten dena eta azpimarratzen dena.

- Neskentzako narratiba eta eredu arrakastatsuak komunikabideetan. Mutilentzako narratiba eta eredu arrakastatsuak komunikabideetan.
- Gizon eta emakumeentzako eredu mediatikoak. Neska eta mutilen bizitzetan eragiten dituzten ondorioak. Ondorioak tratu txarrei dagokienez.
- Ondorioak eta egoera ikastetxean. Alternatibak hezkidetzaren ikuspegitik.

6. UNITATE DIDAKTIKOA: "ELKARBIZITZA BERDINTASUNEZ"

Rosa Pulido Valero andrea: "Berdintasunean oinarritutako elkarbizitza"

- Elkarbizitza ulertzeko gakoak: ikastetxeen garrantzi bikoitza. Elkarbizitza zailtzen duten jarrerara disruptiboak. Zer dago jarrera horien oinarrian? Zergatik da beharrezkoa diziplina elkarbizitza egokia izan dadin?
- Eskolako indarkeriari buruz eta horiek generoaren aldagaiarekin duten loturari buruz egindako azterketak, nortasunaren eraikuntza sexistaren inguruko azterketa: genero-desberdintasunak jarrera oldarkorretan. Egindako azterketetatik ateratako ondorio garrantzitsuenak: pentsamendu maskulinoa, ezaugarri femeninoen versus maskulinoen autoesleipena, genero-rola eta abar.
- Prebentziorako esku-hartzeak: indarkeriarik ezaren curriculum. Ezkutuko curriculumaren esplizitazioa. Curriculumean indarkeriaren eta sexismoaren aurkako borroka gaineratzea. Berdintasuna eraikitzea eta ikasgelako harremanak hobetzea ahalbidetuko duten estrategia metodologikoak gehitzea. Berdintasuna eraikitzeke programa eta proiektu zabalagoetan txertatzea.

OHARRA: Txosten horiek guztiak Emakunderen web-orri honetan aurkitu daitezke (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde → Nahiko! → Irakasleen formakuntza → Ponentziak:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahikcon/es/contenidos/informacion/nahiko_materialak/es_ponencia/ponencias_presentadas.html

3.5. SAIOAK IKASLEEKIN. ONDORIOAK

Jarraian, Nahiko! programako begiraleek esperientzia pilotuan parte hartu duten ikasleekin egindako saio berezietatik jasotako ohar, ondorio eta ikaskuntza esanguratsu batzuk azpimarratu nahi ditugu, ikasleen nahiz begiraleen hitzez hitzeko aipamenak kakotx artean gehituz.

3.5.1. 1. UNITATE DIDAKTIKOAREN (ZAINZTA) SAIO BEREZIA: ZAINZTEN TAILERRA

Pertsonen zainketari buruzko tailer bat egitea izan zen helburua, horretarako, jolas sinbolikoz osaturiko hainbat jarduera burutuz: haur baten zaintza (panpina bat erabiliz), janari baten prestaketa (prestatu, mahaian jarri eta garbitu), etxearen zainketa (arropa garbigailuan garbitu, lehortu eta lisatu) eta pertsona heldu baten zaintza (beste ikaskide baten laguntzarekin, hark menpeko pertsonaren edo elbarriaren papera bereganatuz). Era berean, hainbat mimikariketa egin zituzten "Piramidea" jolasaren bertsio erraldoi bat erabiliz (jolas hori 1. unitate didaktikoko material didaktikoen laburpenean deskribatzen da).

Zaintzarekin lotutako jolas sinbolikoen zatia neska eta mutilen talde berezietan gauzatu zen, bi gune berezitan eta elkarren artean ikusteko aukerarik gabe. Horrek helburu bikoitza zuen. Batetik, neska eta mutilen zaintzarako portaera, aurretiazko zaintza eta trebetasuna modu independentean aztertzea. Eta bestetik, mutilek izan dezaketen ezagutza eta ohitura txikiagoa konpentsatzea. Horretarako, lehenengo antzeko egoeran dauden pertsonen taldeetan ikasteko aukera jasotzen da, nesken aurrean egiteak eragin diezaiekeen ondoeza, lotsa edo gaitzespena saihestuz, ustez, neskek mutilek baino gehiago jakin edo hobeto egin baitezakete.

Oro har, saio **gehienak** oso positiboak izan ziren ikasle eta irakasleentzat, eta denek ikasi zuten, hasierako errezeloei aurre eginez eta hasi zirenean baino hobeto amaituz. Saio guztietan nolabaiteko jarrera-aldaketa nabarmendu zen, ikasleen ibilbidea oso positiboa izan baitzen (kasu batzuetan oso nabarmena izan zen). Agertutako erresistentziak erraz gainditu ziren. Ez zen muturreko jarrerarik izan (boikota jolasari, haserreak eta abar).

Pertsona heldu bat zaintzearen jolas sinbolikoa izan zen (garbiketa, pixoihal-aldaketa, ohe-aldaketa...), zalantzarik gabe, neska zein mutilentzako ariketarik ezezagunena eta hunkigarriena. Kasu honetan nahiz gainerakoetan, ikasleek behar bezala egiaztatu eta esplizitatu ahal izan zuten zaintza beharrezkoa dela eta egiten ikasten dela, "entrenatuz", alegia.

Beren sexu bereko begiraleak izan zituzten **neska eta mutilen** talde bereziei eta begirale mistoak izan zituzten talde mistoei dagokienez, honako hauek nabarmendu ziren saioko jarduera desberdinetan:

- Oro har, neskak erosoago eta lasaiago sentitu ziren ariketekin. Bakarrik jolasten zuten (modu autonomoan), modu ordenatuan eta garbian, eta horien jarrera oso kolaboratzailea izan zen.
- Mutilak mesfidatiago agertu ziren, beldur edo lotsa gehiagorekin hasieran, gelakideei eta beren sexu bereko begiraleei behatuz, jolasa saihestu zezaketen haztatuz eta abar. Hasieran "nesken jolasak" zirela zioten mutil batzuek gainerakoek bezala jolastu zuten gero.
- Taldeak egin eta jolasa abiarazi ostean, mutilek nahiago zituzten janariarekin eta garbiketarekin lotutako zaintzak haurren (panpinak) edo helduen (gelakideak) zaintzak baino, baita erreminta edo makinen jolasak pertsona fisiko edo panpina bidez ordezkaturako jolasak baino. Oro har, begiraleen presentzia eta arreta handiagoa eskatu zuten saioan zehar.

Zainketa unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Jolas sinbolikoa sexuaren arabera eta fisikoki bereizitako taldetan garatu zenez, mutilek beste zerbaitetan jolastu behar zutela uste zuten neskek, "mutilen" beste zerbaitetan, alegia. Egia jakitean, neskek mutilak ikusi eta bakoitzari zein jolas egokitu zitzaion jakin nahi izan zuten. Baina mutilek ez zuten neskek jolasten ikustea nahi.
- NESKEK elementu eta lanen, etapa edo faseen, zaintza-lanen ordena eta prozesuen eta abarren sinonimoak eta terminologia hobeto ezagutzen zituztela ikusi zen. Gainera, etxean eginkizun horiek egiten direnean presenteago daudela eta adi egoten direla ikusi genuen, irakatsi egiten zaiela, alegia.
- Era berean, aberastasun eta arintasun handiagoa antzeman zen jolas sinbolikoan eta jolasten zuten bitartean, eta elkarrekiko komunikazioan eta solasaldietan. Benetako egoera bat zela eta jarduera gauzatzen gozatu egin zutela zirudien. Zentzu horretan, neska batzuk asko harritu ziren beste batzuek panpinekin jolasten ez zekitela ikustean.
- MUTILEK zaintza-lan bakoitzaren terminoei, urratsei, prozesuei, xehetasunei eta abarrei buruzko ezagutza txikiagoa zutela antzeman zen. Etxean lan horiek egiten direnean adi egoten ez direla edo bertan ez daudela hauteman zen. Ez zaie irakasten. Askotan, zentzu horretan dituzten ezagutzek telebista-iragarkietan dute jatorria, eta ez errealitatean.
- Horrez gain, mutilen jolas sinbolikoa mugatuagoa eta zurrunagoa zela ikusi zen, komunikazio gutxiarekin, hitzik gabe eta keinuak bakarrik erabiliz. Egin beharreko ariketa edo eginkizun baten gisa hartu zuten, eta ez jolas atsegin baten gisa. Zentzu horretan, oso mutil gutxi agertu zuten samurtasuna panpina edo ikaskideak zaintzeko jolasean, eta mutil batzuek neskak parodiatu zituzten jolas sinbolikoa egitean, estereotipoz, femeninoak diren keinuak, ibilerak... handizkatuz eta horiek irrigarri utziz.

3.5.2. 2. UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIO BEREZIA: MAKILLAJE TAILERRA

Saioak makillajeari eta karakterizazioari buruzko hainbat jarduera hartu zituen barne: pertsonaia baten txartel-gidoia aukeratu (makillajea, jantziak, osagarriak...), gelakideen laguntzarekin aukeratutako gidoiaren arabera makillatu eta jantzi, eta taldearen aurrean pertsonaia hori aurkeztu-antzeztea. Azken zati hori talde osoa elkarrekin zegoela gauzatu zen, baina pertsonaiak aukeratu, makillatu eta ezaugarritzeko zatian bereizi egin ziren neskak eta mutilak, elkar ikusteko aukerarik gabe.

Irakasleen eta begiraleen ebaluazioetan honako hau hauteman zen, oro har: saio **gehienak** oso positiboak izan ziren ikasle nahiz irakasleentzat, eta saioak asko landu eta gozatu ziren (barrak, festa, umorea...); gainera, aurrerapen garrantzitsua egin zen hiztegiari, hitz egiteko moduari, eta unitatearen eta programaren ezagutzari dagokionez. Era berean, ikasleek inplikazio eta interes handiagoa agertu zuten, galdera gehiago egin zituzten eta abar.

Saioko jardueren arabera taldetan bereizita edo talde mistoetan egon ziren **neska-mutilei** dagokienez:

- Makillaje-materiala (benetako materiala zen, ez imitaziozkoa) sekulako aurkikuntza izan zen neskentzat eta, batez ere, mutilentzat. Haren erabilera oso erreala eta neurritsua izan zen. Modu naturalean aukeratutako pertsonaiaren gisa ezaugarritzeko erabili zuten, makillaje gehiegi erabili gabe, muturrera joan gabe, inauteririk edo karikaturarik egin gabe.
- Neskak oso gustura eta lasai sentitu ziren makillatzen, orrazten... Pazientzia eta gustu handia erabili zuten, presarik gabe eta gauzak ondo eginez. Material gehiena ezagutzen zuten, baita hura erabiltzeko modua ere.
- Mutilek asko gozatu zuten tailerrean, oso gustura parte hartu zuten. Ez zituzten materialak ondo ezagutzen, eta ez zekiten horietako asko nola erabili. Gehiago lan egin behar izan zen horiekin.
- Neska eta mutilen partaidetza antzekoa izan zen ikuspuntuak partekatu, eztabaidatu eta hausnartzeko orduan, baina nesken esku-hartzek eduki kualitatibo eta gogoetatsu handiagoa izan zuten.

Aniztasuna unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- NESKEK lasaitasun eta konfiantza osoz utzi zieten beren gelakideei orrazten, makillatzen... Ez zuten elkar ukitzeko inolako zailtasunik agertu.

- Halere, zailtasunak agertu zituzten beren ilea edo orrazkera aldatu eta aukeratutako pertsonaiarena jartzean, "nire amak ez baitit uzten".
- Karakterizazio gehienak elementu femeninoen arabera (mototsa, ile luze eta lisoa, gantxoak, gomak... begi, ezpain eta azazkal margotuak... telefonoa...) aukeratu ziren. Ez zituzten bizarrak, biboteak, gomina... jarri nahi izan.
- Beren pertsonaiei esleitutako lanbideen artean honako hauek gailendu ziren: ikasleak, abeslariak, dantzariak, ile-apaintzaileak, arropa-saltzaileak, zaintzaileak, irakasleak, bulegariak, sendagileak, albaitariak, etxekoandreak... Eta bizitzari dagokionez: gurasoekin bizi dira, bikotekidearekin, mutil-lagunarekin, lagunekin... oso gutxi bizi dira bakarrik, askok seme-alabak dituzte (izenak ematen dituzte) eta zaletasunen artean, telefonoz hitz egitea, dendaz denda ibiltzea eta lagun eta senitartekoekin hitz egitea daude.
- MUTILEI gehiago kostatu zitzaizen beste batzuek makillatzea, orraztea... Nolabaiteko tentsioa eta beldurra agertu zuten. Mutil askok presa eta azkartasunez makillatu eta orraztu zuten.
- Askok esan zuten moduan, ez zuten gauza bera egingo saiotik kanpo, beste ikaskide batzuen aurrean, eta aurpegia garbitu eta hura inolako aztarnarik gabe uzteko premia agertu zuten saioa amaitzean ("garbitu egin behar dut, gero futbol-entrenamendua dut eta"). Saioa amaitzean, batzuek ez zuten ondo pasatu zutela aitortu nahi izan.
- Elkar ukitzeko, garbitzeko, orrazteko... zailtasun handiak hauteman ziren.
- Gehien aukeratu ziren karakterizazioek elementu maskulinoei erantzuten zieten (bizarra, bibotea, burusoiltasuna, gomina, galdorra... talkie-ak, mp4, telefonoa...). Ile luze leuna, ezpain eta begi margotuak... saihestu zituzten.
- Beren pertsonaia maskulinoei esleitutako lanbideen artean honako hauek gailendu ziren: ikasle gutxi, langile asko (lantegian, kooperatiban...), futbolariak, kirolariak, hippyak, rock-zaleak, raperoak, lapurrak, gaizkileak, langabeak... Pertsonaia femeninoen kasuan: etxekoandreak, irakasleak, estilistak, sukaldariak... denak ezkonduak. Eta beren bizitzari dagokionez: gehienak bakarrik bizi dira, bikotekiderik gabe, batzuetan neska-lagunarekin (izenik gabe), oso gutxi dituzte seme-alabak, eta beren zaletasunik handiena kirola da, futbola bereziki.

3.5.3. 3. UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIO BEREZIA: JOLASEN TAILERRA: BERDINTASUNAREN ANTZARA

Saioa unitate didaktikoan erabilitako jolasaren bertsio baten gisa planteatzen da, taula erraldoi bat eta talde mistoetan bete beharreko bizitzako esparru desberdinekin lotutako probak erabiliz: pertsonaien karakterizazioa (gizon eta emakumeen aniztasuna), jolas sinbolikoa (haurren zaintza eta mahaia), egia edo faltsua probak (lana eta enplegua) eta mota askotako jolas ezagunak (aisialdia, gustuak eta zaletasunak).

Oro har, saioek oso garapen egokia izan zutela eta ikasturtearen, hiru unitate didaktikoen eta aurreko bi saioen berrikuspena eta laburpena egiteko oso intuitiboak eta aberatsak izan zirela ikusi zen eta, bide batez, zainketa, aniztasuna, estereotipoak, berdintasuna eta abar jorratzeko balio izan zuten. Helburua ez zen jolasa amaitzea, jolastea, jolasa ezagutzea eta taula, hark proposatzen duen ibilbidea eta osagaiak ulertzea baizik.

Saio gehienetan, **neska eta mutilen** arteko kontraesanek jarraitzen dutela ikusi zen, hau da, esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko, unitatearen eta saioaren bitartez ikasitakoaren eta ateratzen denaren arteko, izan beharko lukeenaren eta benetan denaren arteko desberdintasuna. Hitzen (ikasitako hitzaldia) eta ekintzen (bizipenak eta naturalizatutako jarrerak) arteko desfaseak behar bezala islatzen ditu ikasleekin hezkidetzatik garatu behar diren esparruak eta lan-ildoak.

Saio osoan zehar elkarrekin egon ziren eta talde mistoetan jolastu zuten neska eta mutilei dagokienez:

- Jarrera desberdinak hauteman ziren aurreko saioekin alderatuta, hau da, sexuaren arabera banatutako taldeetan egon ziren saioekin alderatuta, mutil batzuen kasuan bereziki, horietako batzuek uko egin baitzioten ileordeak eta poltsak... janzteari. Neska batzuek ere lotsa agertu zuten kasu batzuetan, karakterizatutako lehen neskek baziren edo oraindik karakterizatutako jende gutxi bazegoen batez ere.
- Oro har, neskek mutilek baino arreta eta partaidetza handiagoa agertu zuten ondorioetan, eztabaidetan, hausnarketetan...
- Talde mistoek ez dute, bere horretan, berdintasuna lortzen laguntzen. Aitzitik, aurretiaz berriazko lanik egin ez bada, neska eta mutil askorengan estereotipoak aktibatzen dira eta beren sexuari dagokiola uste duten papera bereganatzen dute.

Berdintasuna unitate didaktikoaren edukiari dagokienez:

- Oro har, NESKEK aurreko saioetan baino inplikazio eta naturaltasun gutxiago agertu zuten, eta egitea tokatzen zitzaiena eta esaten zitzaiena bakarrik egiten zuten, modu urriagotan, "mutilek bezala". Bestalde, saio askotan, neskak bigarren planoan geratu dira momentu askotan: dardoak jaurtitzean, txandak zehaztean, jolasetan lehen aldiz jolastean...
- Panpinaren jolas sinbolikoan ez zen inolako erresistentziarik agertu nesken artean, baina bai estereotipoak: "nesken kontua da" (ekimena hartu, aurrea hartu, mutilei aukerarik eman gabe egin...). Hau da, "neska batzuk, neskagoak ziren". Beste batzuek, aldiz, "mutilek bezala" egin zuten (hitz egin gabe, ekarpenik egin gabe, jolastu gabe, modu mekanikoagotan...). Hau da, "neska batzuk, ez ziren horren neskak (mutilagoak)".
- Neska gehienek nahiago dute antzara berdea (berdintasunaren antzara) antzara arrosa baino (generoarena).
- MUTILEK bakarrik zeudenean baino erresistentzia handiagoa agertu zuten jardueren aurrean, panpinaren jolas sinbolikoan batez ere. Mutil askok bakarrik zeudenean baino distantzia eta hoztasun handiagoa agertu zuten ("hau ez da gure kontua"). Oro har, aurreko saioetan baino pasiboago agertu ziren, gogo gutxiagorekin, deserosoago ("aspertuta"). Batzuek barre eta txantxa gehiegi egin zituzten. Laburbilduz, mutil askok beren jarrera aldatu zuten neskekin zeudelako ("mutilak mutilago").
- Mutilen artean erresistentzia bereziki handia eta estereotipo ugari hauteman ziren panpinaren jolas sinbolikoan: zakarrak, arreta eta zaintza gutxiago, azkarrago... Adibide esanguratsu gisa, honako hauek ditugu: "panpina bat da, ez haur bat" (kolpeka, hatza begian sartuz, ukabilkada, barreak...), "nesken kontua da" (panpina neska bati eman eta hark egin zezala eskatu zioten edo ez zuten ezer egiten...).
- Era berean, mutil batzuen artean nolabaiteko erresistentzia hauteman zen jolas ezagunetan, horiek "nesken jolas" gisa hartzen baitzituzten (kordan salto egin, pilota orkatilan lotuta dantza egin...). Batzuek, behar bezala jolasten ez zekitenean, gaizki eta gogorik gabe egiten zuten, jolasari garrantzia eta balioa kentzeko. Beste batzuk, "mutilen artean mutilenak", lehenak izaten saiatzen ziren, fitxak jaso, boloak jarri, gelakidearen jolasa eten, bi aldiz jolastu...
- Mutil askok ez dute uste antzara berdea behar dutenik (berdintasunaren antzara), eta deseroso sentiarazten ditu. Antzara urdina oso eroso da mutilentzat. Baina badira aldatzen ari diren mutilak, hau da, saioan zehar beren jarrera aldatu zuten mutilak: barre egitetik errespetua agertu eta parte hartzera, zalantzetatik inplikaziora ("guk ere egin dezakegu hori").

3.5.4. 4. UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIO BEREZIA: ERREMINTEN TAILERRA, LAN EGITEKO GAITASUNAK

Saioaren helburua familia bat nola antolatu behar den ikustea zen, jolas sinboliko baten birtarte (zentroan, "fabrika"; etxetik kanpo, lana, enplegua; eta izkinetan, "etxeak", etxeko lanak eta aisialdia), hala, familiako kide guztiek lanbide bat eta atsedena izateko aukera berdina izan ditzaten, betiere familiaren elkarrekiko zaintza alde batera utzi gabe. Zentzu horretan, parraren zaintza izan zen elementu esanguratsuenetako bat.

Jolas sinboliko horretan, lanbide baten garapena osatzen duten elementuak islatzen zituzten hainbat zati txertatu ziren: lanbide bat ikasi (erreminta-panela), lan-testuinguru batean lan egiten ikasi (hiria eraiki), beste pertsona batzuekin komunikatzen eta taldean lan egiten ikasi (komunikazio-jolasak) eta enplegu bat eskuratzeko beharrezko alde aurretiko baldintzak bermatzea (baterako erantzukizuna).

Saioan, neskek eta mutilek elkarrekin jolastu zuten, talde mistoetan (famiak). Jolasean zehar jarrera bereziak eta estereotipatuak hauteman ziren, beren roletan nahiz harremanetan.

Saio osoan zehar elkarrekin egon ziren eta talde mistoetan jolastu zuten **neska eta mutilei** dagokienez:

- Neskak mutilak baino arduratsukoak izan ziren jolasaren bilakaera egokia izan zedin. Horretarako, familia antolatu eta gauzak ongi egiten saiatzen ziren, modu serioagoan jolasten zuten eta, beharrezkotzat joz gero, amore eman eta beren txanda iritsi arte itxaroten zuten...
- Mutilek, oro har, gutxiago parte hartzen zuten jolasean (gehiago "aspertzen ziren"): bakoiak berea egin nahi zuen, lehenengoak izan nahi zuten eta, ahal izanez gero, gustukoa zutena errepikatzen zuten, asko kostatzen zitzaie amore eman eta beren txanda iritsi arte itxarotea... taldearen desoreka eragiten zuten (familia). Oro har, burugorragoak agertu ziren eta arreta gehiago eskatzen zuten (ni, ni, ni...).

Unitate didaktikoaren edukiari dagokionez, **lanbideak**, ikasle gehienek etxeko erantzukizunak, enplegua eta aisialdia orekatu beharrez konturatu ziren, argi eta garbi.

- NESKA gehienek etxeari eta etxeko lanei ematen zieten lehentasuna jolas sinbolikoan. Oro har, neskek etxea aukeratu eta handik hasten ziren, oso gogoko baitzuten. Batzuek gauzak nola egin azaltzen zieten mutilei, "beren lekua" zela sentitzen baitzuten.
- MUTIL gehienek etxetik kanpoko lanari ematen zieten lehentasuna jolas sinbolikoan, eta horretan etxeko lanen zatian baino modu serioagoan eta motibazio gehiagorekin jolasten

zuten, etxeko lanetan "txorakeria" gehiago egin (panpina lisatu, adibidez) eta amaierarako uzten baitzuten. Batzuek jolasaren zati hori ez egiten ere saiatzen ziren. Askok etxetik kanpoko lanean pentsatuz egiten zituzten etxeko lanak (erreminta-panela, eraikuntzak...).

- Oro har, lehenengoak izaten eta gauzak azkar egiten saiatzen ziren. Erreminta gehiago jarri eta eraikuntza errepikatu, kontrolatu eta zuzentzen saiatzen ziren (beraiek esaten zuten bezala egin zedila), baita argibideak ematen ere. Mutil batzuk atzetik joan eta ondoan jartzten ziren, besteen lana kontrolatu eta, batez ere, nesken lana kontrolatzeko. Batzuek aurretiaz egindakoa desegin eta beraiek nahi bezala berreraikitzen zuten.
- Mutil batzuek aldaketa positibo nabarmena agertu zuten saioaren hasieratik amaierara: panpina hartu eta jolasteko beste modu bat, saiatu eta gozatzeko beste modu bat. Beste batzuek, aldiz, amaierara arte agertu zuten erresistentzia: panpina jo, lurrera bota, hura kolpatu...

3.5.5. 5. UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIO BEREZIA: PRENTSA TAILERRA, PUNTU BERDEAK ETA PUNTU GRISAK

Neska eta mutilez osaturiko talde mistoetan (benetako irudiak oinarritzat hartuta), ikasleek prestatutako albisteez osaturiko albistegi bat sortu eta igortzea eta gero albiste horiek aztertea zen saioaren helburua, hala, nesken puntu grisak (berdintasunik eza) eta puntu berdeak (berdintasuna) identifikatzeko.

Horretarako, albisteak eta elkarrizketak aukeratu, albisteak eta elkarrizketak prestatu, albistegia eta publizitatea antzeztu, eta albisteak eta iragarkiak baloratu (puntu grisa edo puntu berdea eta zergatik) behar izan zituzten. Azterketa eta balorazio horrek sekulako arrakasta izan zuen eta, ikastetxe askotan, puntuak etxera eraman zituzten, familian, telebista-programetan aplikatu zituzten.

Saio osoan zehar elkarrekin egon ziren eta talde mistoetan jolastu zuten **neska eta mutilei** dagokienez:

- Oro har, albisteetan eta protagonistetan beren sexua identifikatu zuten (neskak emakumeekin eta mutilak gizonezkoekin).
- Askotan, mutilek erabakitzen ("inposatzen") dute: zein pertsonaia, zein galdera, nola eszenaratu... Talde batzuetan, neskek beren ikaskideen jarreraz kexatu dira. Beste batzuetan, aldiz, oso pasibo edo berritsu agertu ziren elkarrekin.

- Talde batzuetan, mutilek jarrera "axolagabea" eta astuna (atzealdeko zarata) agertu zuten eta, batzuetan, dinamika eten behar izan zen.

Komunikabideak unitate didaktikoaren edukiari dagokionez, ikasle gehienek komunikabideen garrantzia azpimarratu eta horietan erreproduzitu ohi diren genero-estereotipoak eta -aurreiritziak hauteman zituzten.

- Paperak estereotipoen arabera eta ikus-entzunezko bitartekoen arabera banatu zituztela hauteman zen: neskek elkarrizketatzaileen papera hartu zuten eta mutilek, berriz, elkarrizketatuen (protagonistak, kirolariak, jende ospetsua...). Hau da, neskek nolabaiteko idazkaritza-lana eta mutilek amaierako protagonisten papera ("kameren aurrean") bereganatu zuten.
- Albisteak puntu berdea edo grisa merezi zuen baloratzeko orduan, hasiera batean kantitatearen inguruko ohiko nahasketa sortu zen: neskek eta mutilak agertzen baziren puntu berde bat ematen zioten, nola agertzen ziren, zer neska eta mutil mota irudikatzen zuten aztertu ere egin gabe; azterketa hori saioan zehar egin zuten, eta eztabaida aberats eta interesgarriak piztu zituen gainera.
- Neskek albisteak prestatzearen aldeko aukeraketa egin zuten. Mutilek, aldiz, elkarrizketak aukeratu zituzten, pertsonaia ospetsuak. Mutil batzuk haserretu egin ziren ("nesken albisteak dira denak", "ez dago mutilen albisterik"), eta ustekabea eta deserosotasuna agertu zuten oso ohikoak ez diren protagonistak eta edukiak barne hartzen zituzten albistegien aurrean.
- Argazkietako gizonak emakumeak baino gehiago ezagutzen zituztela eta emakumeak horren ezagunak ez zirela eta zer galdetu ez zekitela egiaztatu genuen. Interneteko bilaketetan eta fikziozko pertsonaien kasuan ere gauza bera gertatzen dela azpimarratu zen (Harry Potter, Asterix, Tintín, Indiana Jones...).
- Batzuek uko egin zioten horiek antzetzeari ("kaka bat da", "ez dut makillatu nahi, maritxua deituko didate bestela"), eta saioan asko gozatu zuten mutil askok ere uko egin zioten amaieran.

3.5.6. 6. UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIO BEREZIA: BIZIKIDETZA TAILERRA, MUNDU GRISETIK MUNDU BERDERA

Saioan benetako ibilbide fisiko bat planteatu zen jolas modura, mundu gris erraldoi batetik mundu berde erraldoi batera, Twister moduko bat. Ibilbidea talde guztiak egin behar zuen, be-

reizi gabe eta espaziorik ezara egokituz, eskura zuten espazioa partekatuz, elkarri lagunduz eta landutako unitate guztiekin lotutako probak elkarrekin eta berdintasunean gaindituz.

Saioa amaitzean, hau da, mundu berdera iristean, mundu berdea (zirkulu fisikoa) zabalagoa zela eta grisean baino hobeto sartzen zirela sentitu zuten ikasle askok. Zirkuluak tamaina berekoak ziren, baina mundu grisetik mundu berdera joateko ibilbidean espazioa behar bezala partekatzen ikasi zuten.

Saio osoan zehar elkarrekin jolasten aritu ziren **neska eta mutilei** dagokienez:

- Neskek lankidetzan jarduteko joera handiagoa agertu zuten: hobeto moldatzen ziren, elkarri laguntzen zioten, kontaktu fisikorako erraztasun handiagoa zuten, arreta gehiago jartzen zuten eta ondorio eta ekarpen sakonagoak egin zituzten.
- Mutilak iskanbilatsuagoak eta hiztunagoak izan ziren, elkarri bultza eginez, aztoratuta, eskutik eusteko edo kontaktu fisikoa izateko erresistentzia handiagoa agertu zuten, arreta gutxiago jarri zuten eta ondorio sinpleagoak atera zituzten.

Elkarbizitza berdintasunez unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Neskak laguntzaileagoak izan ziren. Elkarri lagundu eta harremanetan jartzeko erraztasun handiagoa agertu zuten. Gustura egon ziren saioarekin. Askotan, arreta gehiago jarri zuten.
- Kasu batzuetan, mutilak lehian sartzen saiatzen ziren. Talde-egitura txikiagoa eta ados jartzeko zailtasun handiagoa agertu zuten, gainerako iritziak kontuan hartu gabe eta gainerakoek aurrera egin zezaketen kontuan hartu gabe jarraitzen zuten, eskutik eusteari uko eginez ("ze nazka!").
- Jolastu ostean, elkarrekin bizitzeak eragiten dituen zailtasunez eta hura aurrera ateratzeko moduez jabetu ziren (ados jarri, entzun, hitz egin, lagundu, errespetatu, arazoak konpondu, gozatu...).
- Amaierako besarkada kolektiboan, mutil eta neska batzuk bereiz besarkatzen zirela ikusi zen, beren sexu bereko beste ikaskide batzuekin, alegia. Elkartzea ahalbidetzen ez dien nolabaiteko "alergia" diotela aitortu zuten (dena den, jolastean, hau da, horretan pentsatzen ez zutenean, inolako arazorik gabe elkartzen ziren).

3.5.7. ZIKLO AMAIERAKO TOPAKETA (2009KO EKAINA): NAHIKO! TOPAKETA

Lehen Hezkuntzako Hirugarren eta Laugarren Mailetako esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxe guztien topaketa Donostiako Kurasaalean egin zen, 2009ko ekainaren 4an. Topaketa horretan, bi ikasturteen laburpena eta etorkizunerako konpromiso komuna jaso ziren, ikastetxe parte-hartzaile guztien ekarpenaren eta protagonismoaren bitartez. Topaketan aitorten, festa eta balorazio instituzionalaren giroa gailendu ziren, eta bertan izan ziren, halaber, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria eta Emakundeko zuzendaria.

Topaketa horretara gonbidatu ziren, parte hartu zuten ikasle eta irakasleez gain, ikasleen familiei, berritzeguneetako aholkulariei eta saio berezietan parte hartu zuten begiraleei.

Topaketa honako **programa** honi jarraiki garatu zen:

- Agurra. Ongietorria.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren eta Lehendakariaren aurkezpena.
- Ikastetxe bakoitzak UD batekin lotutako jarduera-saio bat egin zuen: antzerkia, ppt, dantza, bertsoak, abestiak...
- Jarduketa bakoitza amaitzean, Emakundeko zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak taula oroigarri bat eman zien ikastetxe parte-hartzaileko ikasle eta irakasleen argazkiarekin, talde bakoitzarekin argazki bat atera zutelarik.
- Parte-hartzaileei "berdintasunerako puntu berdeak", hondartzarako palak eta disko hegalarri berdeak eman zitzaizkien programaren oroigarri gisa, bereganatutako konpromisoa hedatzeko.

Ikastetxe parte-hartzaileek 1etik (puntuaziorik txikiena) 6ra (puntuaziorik handiena) ebaluatu zuten topaketa, programako gainerako elementuak bezala:

2009ko ekainaren 4ko TOPAKETA

1 eta 6
bitartan

Aldez aurretiko antolakuntza, informazioa, materialak eta koordinazioa	5,6
Topaketan zehar eskainitako harrera eta tratua	5,8
Topaketan zehar izandako antolakuntza eta koordinazioa	5,9
Ikastetxe parte-hartzaileek egindako ekarpenen edukiak	5,8
Ikastetxe parte-hartzaileek egindako ekarpenen edukiak	5,3
Topaketaren balioa NAHIKO! programari dagokionez	5,3
Topaketaren, panelen... NAHIKO! programari buruzko power point aurkezpenak	5,4
Ikasleei eta ikastetxe parte-hartzaileei emandako panel oroigarria	6
Partaide bakoitzari entregatutako palak ("puntu berdeak")	5,1
Ikastetxeetako ikasleek Topaketan zehar izan duten partaidetza	5,6
Ikasleen asebetetze maila Topaketari dagokienez	5,3

3.6. SAIOAK FAMILIEKIN. ONDORIOAK

Esperientzia pilotuan parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako Hirugarren eta Laugarren Mailetako ikasleen familiekin egindako sei saioetako **batez besteko bertaratzea** ikastetxe guztietako familia guztien % 20koa izan zen. Saioetara bertaratu ziren pertsona horien artean, % 86 emakumeak izan ziren eta % 14 gizonak. Jarraian, saio hauek gauzatu zituzten Nahiko! programako begiraleek egindako ebaluazioetan jasotzen diren behaketa, ondorio eta balorazio kualitatibo batzuk laburbiltzen dira, saioetan izan ziren pertsonen hitzez hitzeko adierazpen batzuk komatxo artean jasoz.

Oro har, **saio gehienak** giro onean garatu ziren, saioak partaidetza onarekin, arreta eta interes handiarekin animatu ziren eta bertaratu gehienen gogobetetze maila oso altua izan zen.

Saioetako partaidetza aktiboak gora egin zuen hiruhilekoz hiruhileko, baita aurretiaz gerturatu ez ziren pertsona berrien kopuruak ere. Bestalde, ikastetxe guztietan talde bat egonkor mantendu zen bi ikasturteetan zehar.

- Familia askok beren seme-alabengan aldaketak hauteman zituztela berretsi zuten: interes, jarrera eta hiztegi berriak, baita etxeko jarrera berriak ere, baterako erantzukizun handiago batez ere ("orain ulertzen dut nire alaba/semea esaten/egiten hasi dena").
- Familia gehienak bat etorri ziren programako gaiak eta kontzeptuak baloratzeko orduan (berdintasuna, estereotipoak, gizon eta emakumeen bizimodua, indarkeria...), eta horiek oso egoki eta beharrezkotzat jo zituzten beren seme-alaben adinerako eta hezkuntzarako. Erabiltzen ziren materialak, jolasak eta koadernoak, eta horien ikuspegia, tonua eta edukia ezagutu ostean batez ere.
- Familiek oso egokitzen baloratu zuten familiaren koadernoak ikasleek hura etxera eraman aurretik prestatu ahal izatea, baita aurretiaz egindakoak komentatu ahal izatea ere. Gehienek oso egokitzen baloratu zuten familiaren koadernoekin izandako esperientzia: "dibertigarria", "a zer nolako gauzak deskubritzen diren seme-alabengan", "mota honetako galderak egiten dituzte: lehen zergatik aukeratzen zuten emakume guztiak etxekoandre izate?". Hiruhilekoak igaro ahala, errazagoa gertatzen zitzaizela eta gusturago egiten zutela adierazi zuten, aurrekoetan baino gehiago gozatuz eta probetxu gehiago ateraz.
- Ikastetxe batzuetan, NAHIKO! programa ikastetxe osoan aplikatu zedila eskatu zuten familiarek, hau da, ikastetxeko eremu eta jarduerak guztietan: patioan, kirol-jardueretan... eta ez gelan bakarrik. Programaren aldeko iruzkin ugari egin ziren eta gogobetetze maila altua agertu zuten. Gainera, hurrengo ikasturtean ere jarraipena izango ote zuen galdetu zuten.
- Beren seme-alabek "puntu grisa" eta "puntu berdea" etxera eraman zituztela berretsi zuten familia askok; gainera, orain telebista edo aldizkariak ikuspuntu horrekin ikusten eta komentatzen zituztela adierazi zuten, genero-ikuspegitik, alegia.

Saio batzuetan, bertaratuek gizon eta emakumeen arteko berdintasunik ezaren eta berdintasunaren nahiz hezkidetzaren programen premiaren eta hezkidetzaren inguruko beren **zalan-zak, erresistentziak eta premiak** agertu zituzten; izan ere, NAHIKO! programaren gisako programek berdintasuna lortzen eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzen laguntzen dute:

- Saio askotan, berdintasunaren nolabaiteko irudikeria hauteman zen, mota honetako oharren bitartez: "hori lehen gertatzen zen, duela urte asko, dagoeneko ez da horrelakorik gertatzen", "gaur egun berdintasuna dago gizon eta emakumeen artean, gure seme-alaben artean eta ikastetxean batez ere", "gaur egun erreibindikazio zaharkitua da, ez da beharrezkoa, bazuen zentzua gure gurasoen garaian, baina ez gure alaben garaian". Gertuko

zirkuluan, behintzat, mota honetako oharrak egin ziren: "nire etxean ez da horrelakorik gertatzen", "gure ikastetxean erabateko berdintasuna dago".

- Era berean, familia askok uko egiten jarraitzen dute, beren seme-alabak adingabeak eta inuzenteak direla uste baitute: "oso txikiak dira oraindik mota honetako gai eta kontzeptu konplexuak ulertzeko", baita hizkuntza sinbolikoa eta sinplea erabiliz jorratuta ere. Beren adinagatik babestu beharko lituzketen errealitateak balira bezala.
- Nolabaiteko ustekabea eta zailtasuna identifikatu zen gure gizarteko gizon eta emakumeen arteko egiturazko berdintasunik eza tratu txarrekin lotzeko orduan: "Benetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunik eza emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuta dagoela?". Errazago hautematen zuten komunikabideetako indarkeria gizarteko, egunerokotasuneko berdintasunik eza eta diskriminazioa baino.
- Berdintasunik eza justifikatzen zuten argudioak hauteman ziren, berezko desberdintasun biologikoen ondorioz: "zerbait genetikoa egongo da", "genetikoa edo hormonala, burmuinaren funtzionamenduari lotua...", "bada ama eta aita sena ere...", "begira sexuen arteko gerra".
- Berdintasunarekiko eta programarekiko erresistentzia handiagoa hauteman zen saioetan zehar zertxobait deseroso sentitu ziren gizon batzuen kasuan, programa "mutilak ematen ari zela", "dena nahasten duela", "mareatu egiten dituela", "gizonen aldetik nork bere buuruari harrika ematea bezala dela" uste baitzuten.
- Saio batzuetan, hasieran batez ere, irakasle batzuen zailtasunak esplizitatu ziren, horien ezagutzarik eza eta gaiarekiko eta programarekiko aurretiazko prestakuntzarik ezagatik, hain zuzen, baita denbora gabeziagatik ere, ikasleekin parte hartzen zuten ikastetxeko beste jarduera eta programa batzuen eraginez.

3.7. BARNE- ETA KANPO-EBALUAZIOA. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Programaren esperientzia pilotuan zehar, ikastetxeek haren barne sartutako elementu guztiak erabili eta ebaluatu zituzten, modu jarraituan: materialak, saio bereziak, txostenak, txostengileak... Batetik, eta mintegi bakoitzaren aurretik, landutako unitate didaktikoaren ebaluazioa bidaltzen zen ikastetxeetara, eta ebaluazio hori partekatu egiten zen kasuan kasuko mintegian. Bestalde, ikasturte bakoitzaren amaieran dagokion ebaluazioa egiten zen eta, Lehen Hezkuntzako laugarren mailaren bukaeran, aldiz, ziklo osoarena. Programa irakasle parte-har-

tzaileek eta Berritzeguneetako aholkulariek ebaluatu zuten; horiek irakasleen berrikuntza eta babeserako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren zentroak dira.

Mintegiei dagokienez, honako hau izan zen irakasleen batez besteko ebaluazioa:	1 eta 6 bitartean
Mintegiaren balioa, oro har	5,3
Mintegiaren edukia, oro har	5,3
Txostenen eta txostengileen kalitatea	5,4
Landutako unitate didaktikoaren laburpena eta analisia	5,3
Unitate didaktiko berriaren aurkezpena	5,4
Talde-lana eta esperientzien trukea ikastetxeen artean	5,3
Mintegien antolaketa	5,4
Helarazitako dokumentazioa eta materiala	5,6

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako NAHIKO! programaren materialak	IRAKASLEAK 1 eta 6 bitartean	BERRITZEGUNEAK 1 eta 6 bitartean
Materialen batez besteko balorazioa	5,4	5,5
1. Unitate Didaktikoko ("Zainketa") materialak	5,7	5,7
2. Unitate Didaktikoko ("Aniztasuna") materialak	5,1	5,3
3. Unitate Didaktikoko ("Berdintasuna") materialak	5,4	5,5
4. Unitate Didaktikoko ("Lanbideak") materialak	5,6	5,7
4. Unitate Didaktikoko ("Komunikabideak") materialak	5,3	5,4
6. Unitate Didaktikoko ("Elkarbizitza berdintasunez") materialak	5,3	5,4

Saio bereziak honela baloratu ziren:	IRAKASLEAK 1 eta 6 bitartean	BERRITZEGUNEAK 1 eta 6 bitartean
Ikasleekin egindako saio bereziak	5,8	5,8
Familiekin egindako saio bereziak	4,6	4,8
Saio bereziek ikastetxerako duten balioa (ikasleak, irakasleak...)	5	5,1
Saio bereziek NAHIKO! programarekin duten lotura	5,9	5,6
Ikasle taldearen eta dinamikaren ezagutza eta ulermen hobearrekin lotutako balioa	5,1	5,3

Beste balorazio batzuk:	IRAKASLEAK 1 eta 6 bitartean	BERRITZEGUNEAK 1 eta 6 bitartean
3. eta 4. mailetako NAHIKO! programaren planteamendu orokorra	4,9	5
Talde-lanera egokitzapena eta ikasle guztien partaidetza	4,9	5
Programaren balorazioa irakasleei dagokienez (prestakuntza, pertsonalki...)	5,3	5,3
Lankidetzeta eta laneko giroa programan zehar	5	5,1
Hasieran aurreikusten zenarekiko gogobetetze maila	5,1	5,1
Familiei eskainitako informazioa eta prestakuntza	5,1	4,9
Familiekin egindako saioetan izandako komunikazioa eta laneko giroa	4,8	4,8
Ikastetxearentzako balioa, oro har	4,3	4,5

Neskengan izan zuen inpaktuak honako balorazio hau izan zuen:	IRAKASLEAK 1 eta 6 bitartean	BERRITZEGUNEAK 1 eta 6 bitartean
Neskentzat oro har izan duen balioa	5,4	5,5
Neskek sentitu duten aitordpena, konfiantza, babesa...	5,4	5,5
Neskek izan duten espazioa, hitza, aukerak...	5,6	5,5
Nesken alaitasuna, ahalegina, esker ona...	5,5	5,5

Mutilengan izan zuen inpaktuak honako balorazio hau izan zuen:	IRAKASLEAK 1 eta 6 bitartean	BERRITZEGUNEAK 1 eta 6 bitartean
Mutilentzat oro har izan duen balioa	5	5
Mutilek sentitu duten aitordpena, konfiantza, babesa...	4,9	5
Mutilek izan duten espazioa, hitza, aukerak...	5,2	5,3
Mutilen alaitasuna, ahalegina, esker ona...	5,3	5,2

3.7.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK 2007-2009 IKASTURTEETAN EGINDAKO KANPO EBALUAZIOA

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak NAHIKO! programaren kanpo-ebaluazio bat egin zuen Lehen Hezkuntzako Hirugarren eta Laugarren Mailetako NAHIKO! esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikastetxeetan (200 neska eta 225 mutil) eta esperientzia pilotu horretan parte hartu ez zuten ikastetxeetako kontrol talde batean (77 neska eta 77 mutil), horien familia eta irakasleez gain.

Ebaluazio horren **helburua** Programan bertan esplizitatutako printzipioak neurtzea izan zen, baita, ikerketa batzuen arabera, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko garati behar diren gaitasun pertsonalak eta sozialak ere.

Hau da, ikasleek honako hauek zer neurritan lortu zituzten ezagutzea:

- Unitate didaktikoetan jorratutako oinarrizko kontzeptuen inguruan hausnartu, ulertu eta horiek bereganatzea.
- Gizartean nagusi den genero-eredua ikusaraztea.
- Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen arrazoiak identifikatzea.
- Gizartean nagusi den genero-eredua ezbaian jartzea eta berdintasunaren aldeko aldarrikapenak egitea.
- Emakumeak eta emakumeek gizaritari egindako ekarpenak ikusaraztea.
- Genero-estereotipoak eta –urreiritziak deuseztatzea eta berdintasunaren aldeko eta indarkeriarik gabeko gizarte-eredu bat hautatzea.
- Neska-mutilengan autokontzeptu positiboago bat eraikitzea eta haien autoestimua handitzea.
- Mutilen jarrera oldarkorrak -fisikoak eta ahozkoak- murriztea.
- Mutilen jokabide antisoziala murriztea.
- Hurbileko harremanetarako interesa handitzea mutilengan eta enpatiarako gaitasuna.
- Gizarte-onarpena hobetzea, lidergoa neskengan.
- Neska-mutilen arteko lankidetzeta eta elkarlanerako harremanak handitzea.
- Nagusitasun-mendekotasun ereduak ezabatu edo murriztea.

Lortutako **emaitzei eta ondorioei** dagokienez, NAHIKO! programan parte hartu duten ikasleek lortutako honako emaitza hauek laburbildu eta gailendu ditugu:

- Ikasleen emaitzetan ezagutza, hausnarketa, zehaztasun, aberastasun eta aniztasun handiagoa hauteman zen programako unitate didaktikoekin lortutako eduki eta kontzeptuei dagokienez. Kontrol taldeko ikasleek ezagutza estandarizatuagoa zuten, xehetasun gutxiagorekin eta haren prestaketa pertsonalean.

- Pertsona, harreman, ezaugarri sozial eta kultural eta abarren berdintasunarekin, zaintzarekin, aniztasunarekin eta abarrekin lotutako kontzeptuak eta terminoak erabiltzen zituztela egiaztatu zen. Dena den, kontrol taldeko ikasleek animalia-espezieei, naturako ezaugarri biologikoei, planetaren egoerari eta abarrei dagokienez erabiltzen zituzten.
- Berdintasuna pertsonentzako eskubideak eta betebeharrak sortzen dituen printzipio baten gisa ulertzen zutela egiaztatu zen, hau da, jarduteko eta bizitzeko moduak sortzen dituen printzipio baten gisa, eta harreman pertsonalei dagokienez, tratatu onak sortzen dituen printzipio baten gisa. Bestalde, kontrol taldeak antzekotasuna... sortzeko printzipio baten gisa ulertzen zuten berdintasuna.
- Ikasleek gizon eta emakumeekin, neska eta mutilekin, lotutako genero-rolak eta estereotipoak hobeto ezagutzen zituztela egiaztatu zen, baita horien gizarte-ondorioak ere, estereotipo eta rol horiek jarraitu ala ez. Alderdi horiek guztiz ezezagunak ziren kontrol taldeko ikasleentzat.
- Berdintasuna eta giza eskubideak bizitza pertsonalerako eta sozialerako funtsezko elementu gisa aldarrikatu zituzten, oso garrantzitsuak baitira eta zuzenean esku hartzen baitute pertsonen egunerokotasunean.
- Baterako erantzukizuna eta etxeko erantzukizun eta lanen banaketa gaur egun gure gizartean falta den eta familian, gizartean, lanean... ondo antolatzeko lehentasuna duen alderdizat jotzen zutela egiaztatu zen, baita familien bizikidetzaz arazoak konpondu edo murrizteko ere; izan ere, kontrol taldeko ikasleek ez zuten hala egiten.
- Argi eta garbi bereizten zituzten desberdintasunak eta berdintasunik eza, eta oso nabarmen lotzen zituzten berdintasuna eta aniztasuna; kontrol taldeko ikasleek, aldiz, ez zuten horrelakorik egin.
- Programako bi ikasturteen amaieran, ikasleek hasierako puntuazioak hobetu zituzten (programaren hasieran egindako testak), norberaren kontzeptuari (orokorra, akademikoa eta fisikoa) nahiz autoestimuari dagokionez.
- Programan parte hartu zuten ikasleek nabarmen murriztu zituzten hasierako puntuazioak (programaren hasieran egindako testak), oldarkortasun fisikoari eta ahozko oldarkortasunari dagokionez, bi ikasturteen amaierako ebaluazioan.
- Hasierako eta amaierako emaitzak alderatuta, neskek eta, bereziki, mutilek nabarmen hobetu zituzten beren enpatia mailak.



**4. | AHIKO! 5-6, LEHEN
HEZKUNTZAKO BOSGARREN
ETA SEIGARREN MAILAK**

4A. NAHIKO! PROGRAMA 5-6:

4.1. UNITATE DIDAKTIKOEN PLANTEAMENDUA ETA IBILBIDEA. HELBURUAK ETA EDUKIAK

Hiruhileko bakoitzean unitate didaktiko baten inguruan garatzen dira NAHIKO materialak. Horregatik, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloari dagokion materialak sei unitate didaktiko hartzen ditu barne, hiru ziklo horretako maila bakoitzeko. Unitate didaktiko horiek astero eta modu sistematikoan landu behar dira ziklo bakoitzeko bi ikasturteetan, ordena aldatu gabe eta horietako bakar bat ere ezabatu gabe. Batetik, unitate didaktikoak adin bakoitzaren bilakaera-momentura eta interesetara eta heldutasunera egokitzen direlako. Eta bestetik, diseinuan zehar emakumeen kontrako tratu txarraren errealtatea, horien arrazoiak eta aukerak faseka jorratzea programatu delako, eta hori ezinezkoa litzateke beste modu batera jorratzea.

Lehen Hezkuntzako **5. eta 6. mailetako NAHIKO! logoak** emakume baten aurpegiaren bi erdiak irudikatzen ditu.

Ezkerreko aldeak, kolore gorrikoak, aurpegi triste bat irudikatzen du eta minaren malko bat du, tratu txarren, diskriminazioaren, berdintasunik ezaren eta emakumeen giza eskubideekiko errespeturik ezaren eraginez. Gizon eta emakumeen arteko harreman afektiboak eta garapen pertsonalari aplikatutako genero-rolen, estereotipoen eta aurreiritzien emaitza da.

Eskuineko aldeak, kolore berdekoak, aurpegi alai eta irribarretsua irudikatzen du, tratu onen, zuzentasunaren eta justiziaren, berdintasunaren eta emakumeen giza eskubideengana-ko errespetuaren eraginez, bizitzako esparru guztietan. Gizon eta emakumeen arteko harreman afektiboak eta garapen pertsonalari aplikatutako errespetuaren, berdintasunaren eta indarkeriarik ezaren emaitza da. Genero-mandatu homogeneizatzaileak gabeko aniztasun pertsonal askearen aurpegia da, hau da, harreman afektibo eta familiar osasuntsu, sendatzaile eta egokien aurpegia.

Bi aurpegi erdian, NAHIKO! programa dugu, berdintasunik ezatik berdintasunera eta giza eskubideetara aldaketa bilatzen duena, aurpegi gorritik aurpegi berdera igarotzea ahalbidetzen duena. Horretarako, azterketa egitea planteatzen du genero-ikuspegitik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspegitik, "Ni eta nire familia, nire familia eta ni" ikuspegitik. Hau da, bikote- eta familia-harreman afektiboak errespetuan, gizon eta emakumeek harreman horietan dituzten giza eskubideekiko errespetuan eta gizon eta emakumeek beren bizitzako proiektu pertsonala izateko duten errespetuan oinarrituz definitzea eta eraikitzea, bizitzako esparru guztietan, harreman sentimentalak barne, baita proiektu hori nahi dutenean aldatzeko aukera izatea ere.

Ziklo honetako jolasek eta materialek beren **bizitza osoko eta autonomoko proiektu pertsonala** eraikitzen laguntzen diete ikasleei, bizitzako esparru guztietan (pertsonala, familiarra, soziala eta lanekoa). Horretarako, gure gizartean gizonak eta emakumeak mugatu, estereotipatu eta klonatzen dituzten etiketak ohartarazten zaizkie, eta ikasleei beren izaera, ezaugarriak, nahiak, proiektuak eta abar ezagutu, onartu eta estimatzeko gonbidapena egiten zaie, baita nahi duten eta erabakitzen duten modukoak izateko eta nahi duten bezala aldatu eta bizitzeko duten eskubidea (gizon eta emakume guztien kasuan) bera ere. Jolasen bitartez, familiako eta maitasunezko harremanen ereduak berdintasunetik aztertu ditzatela gonbidatzen zaie ikasleei. Horrela, neska-mutilek maitasun erromantikoaren mitoak eta horien alternatibak ezagutu eta ulertu ditzakete, betiere berdintasunean eta tratu onetan oinarrituz eta giza eskubideak errespetatuz.

Lehenengo unitate didaktikoan, “Nor naiz ni?”, giza aniztasunarekin eta elkarrekiko errespetuarekin, norberaren estimuarekin eta norberaren nortasunarekin zerikusia duten kontuak landu nahi dira, horiek baitira berdintasunean oinarritutako harremanak lantzeko oinarritzko zutabeak. Horregatik, honako hauek dira lehen unitate didaktikoaren helburuak:

- Ikasleek gizon eta emakumeen arteko aniztasun aberatsa ezagutu dezatela. Aniztasun hori babestu eta sustatu egin behar dugun altxor preziatu bat balitz bezala baloratzea, pertsona guztiak errespetatuz, guztiok estatus, askatasun, duintasun eta eskubide berberak baititugu. Banakotasun guztiak, hau da, gizon eta emakume guztiak positiboki onartu eta balo- ra ditzatela, horiek guztiek osatzen baitute giza aniztasun plurala, horien sexua dena dela.
- Ikasleei norbere ezagutzari dagokionez proposatu, sustatu eta laguntzea, alderdi positibo- ei nahiz hobetu daitezkeen alderdiei dagokienez, betiere norbere nortasunean oinarrituz, inguruko pertsonekin berdintasunezko harreman zuzenak egin ditzaten. Norberaren eza- gutza benetakoa eta osoa izan dadin, ikuspegi introspektiboaz gain, behar-beharrezkoa da premia ulertu eta gure ingurune- ko ispiluan begirada praktikatzea, inguruan ditugun per- tsonen (senitartekoak eta lagunak) nahiz bizi garen errealitate ekonomiko, sozial eta kultu- ralarari dagokionez.
- Autoestimua eta pentsamendu positiboa sustatzea, norberaren ezagutza posibilista, proiektibo eta eraginkorrerako baldintza gisa, denok diren bezalakoak izateko eskubidea dugula aitortuz, hau da, giza aniztasunaren pluraltasunaren zati bat garela aitortuz eta nor- bere ezaugarriekin eta potentzialtasunekin onartuz. Neska eta mutil bakoitzak den bezala- koa eta nahi duen bezalakoia izateko eskubidea duela ulertu eta defendatzea, gizarteak sexu bakoitzerako ezarri dituen muga, adierazpen, aukera edo etiketa guztien gainetik. Zentzu horretan, eta Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren arabera, pertsona guztiek, hau da, gizon eta emakume guztiek bizitzeko, libre izateko eta segurtasunez bizitzeko es- kubidea dutela ulertu eta haren ondorioak aplikatu behar ditugu, bikotean, familian nahiz gizartean.

Bigarren unitate didaktikoan, “Bizitza-proiektua”, bizitzako arlo guztiak garatu beharraz hitz egiten da: pertsonala, familiarra, soziala eta profesionala. Unitate horretan adierazten denez, lau eremu horiek zenbat eta orekatuago egon, gure bizitza-proiektua orduan eta atsegina- goa izango da, eta horrek errazago ekarriko du harremanak berdintasunean oinarritzea. Horregatik, honako hauek dira bigarren unitate didaktikoaren helburuak:

- Pertsona bakoitzak bere bizitza metodologikoki lau esparru handitan irudikatzen diren eremu askotan eraiki eta bizitzen duela erakustea: ni (pertsona bakoitzaren nortasuna, gaitasunak, zaletasunak, sentimenduak...), familia (gure gizartean, etxe berean bizi diren eta egunerokotasuna partekatzen duten lotura afektibo bidez lotutako pertsonak), lana (pertsona bakoitzaren jarduera profesionala edo sozioekonomikoa) eta gizartea (pertsona bakoitzaren adiskidetasun-harremanak eta bizitza soziala eta komunitarioa).
- Lau eremu horiek elkarrekin lotuta daudela frogatzea. Esparru horietako batean jarduten dugunean beste hiru esparruak ere hartu behar ditugu kontuan, baita hark lehentasuna badu eta arreta gehiago eskaini behar bazaio ere. Are gehiago, batzuetan, eremu horietako bati eman behar diogu lehentasuna, eta ez aurkitzen garen eremuari. Lanean gaudenean, adibidez, familia zaindu behar dugu, eta alderantziz, familian gaudenean lana izan behar dugu gogoan; batzuetan, beharrezkoa izanez gero, lehentasuna eman behar diogu gainera.
- Eremu horietako bakar batean garatzen edo bizitzen den pertsona bat pertsona orekatua, osoa eta autonomoa izan ez daitekeela frogatzea, besteen mendeko pertsona bat baizik. Errealitate hori arestian aipatutako lau eremuetan da aplikagarria, baina egoera are gehiago larriagotzen da beren bizi-proiektua familiara mugatzen den pertsonen kasuan. Gaur egun, gure gizartean, lan-eremuan bizi ez den, ekonomikoki independentea ez den eta, beraz, enplegurik ez duen pertsona bat mendeko pertsona bihurtuko da seguruenik. Bere bizitzaren kontrola galdu eta bere proiektu pertsonala inguratzen dituztena mugatu dezake, berea alde batera utzita.
- Pertsona bakoitzaren lau eremu horietako bizimodua bi elementu nagusitan oinarritzen da: bizitzak pertsona bakoitzari eman diona (bakoitzaren egoerak eta baldintzak) eta pertsona bakoitzak erabakitzen eta egiten duena. Suertatzen zaiguna eta bizitzan aukeratzen duguna. Lortu nahi dugun proiektua bizitzak ematen digunarekin eta gure ahaleginarekin lortzen dugunarekin eraikitzen dugu. Zentzu horretan, ez dugu gure bizi-proiektua egiteko askatasun absoluturik. Bizitzako loteriak baldintzatzen gaitu eta ondo jakin behar dugu hark zer eman digun, gero, ahal den neurrian, nahi ditugun proiektuetan erabiltzeko gai izan gaitezen.
- Pertsona bakoitzak bere proiektua egiteko eskubidea duela ulertzea. Bizitzaren loteria ez da helmuga itxi bat, askatasunerako erreminta eta material bat baizik. Bizitzan suertatzen zaigunaz gain, beste gauza asko egin, bilatu, lortu, eskatu eta sor ditzakegu. Gure bizitza

nahi dugun bezala eraikitzeke eskubidea eta aukera dugulako. Norberaren proiektua egin eta aldatzeko eskubidea pertsona bakoitzarena dela ulertu behar dugu, eta ez taldearena edo familiara. Eta hura errespetatu egin behar da pertsona hori familian dagoen bitartean eta, bereziki, hura uztea eta beste bide bati ekitea erabakitzen duenean. Familia-proiektuak pertsonen eta proiektuen zerbitzura egon behar du, eta ez alderantziz. Pertsona bakoitzak norbere bizi-proiektua erabaki, egin eta aldatzeko eskubidea baitu.

Hirugarren unitatean, “Konpromisoa” izenekoan, nor bere bizitza publikoan zein bizitza pribatuan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko konpromisoa hartzea aipatzen da. Hirugarren unitate didaktikoak hiru helburu ditu: aurreko bi unitateak gogoratu, sakondu eta laburbiltzea, proiektu pertsonal hori aurrera eramateko konpromiso eta ahalegin pertsonal garrantzitsua behar dela azpimarratzea (aukera pertsonala bere burua eramaten uztearen erosotasunaren eta ohitura, agindu eta genero-baimenetan enkajatzearen aurka) eta pertsonaren eta familiararen konpromisoak arrakasta-aukerak izan ditzan gizarte-ekintza eta konpromiso publikoa eta instituzionala falta direla azpimarratzea. Horretarako, honako hauek lortu nahi dira:

- Errealitatea ikusi eta interpretatzeko, elkar ikusi eta ulertzeko modua eta gure nortasuna, bizitzako proiektua eta harreman pertsonalak, familiarrak eta sozialak eraikitzeke gure modua etengabe baldintzatzen duten genero-roleri eta estereotipoei buruz hausnartu eta horiek identifikatu eta aztertzea. Gure ideiak, sentimenduak, jarrerak eta portaerak etengabe aztertzea genero-ikuspegitik, nahi dugun pertsona izan eta gure bizi-proiektua eraiki dezagun.
- Bizitzako lau esparruetan proiektu pertsonal autonomo, integral eta orekatu bat lortzea erraza ez dela ulertzea, konpromiso eta ahalegin pertsonal handiak egin behar baitira. Askotan, korrontearen kontra joan behar da. Joera nagusiari ez jarraitzeko eta generoan oinarritutako gizarteko mandatu, baimen eta txaloetan ez sartzeko aukera pertsonal bat izan behar da. Gure bizi-proiektua aurrera eramateko konpromiso sendoa izan behar dugu harekin. Eta horrek zera esan nahi du nesken kasuan, esparru profesionala bereziki lantzea eta, mutilen kasuan, familia-eremua lantzea, generoan oinarritutako eredu estereotipatuek batzuen eta besteen ikaskuntzetatik kanpo uzten baitituzte eremu horiek.
- Bikoteari eta familiari dagokion eremuan konpromisoa, ahalegina eta generoarekiko kontzientzia sustatzea. Pertsona bakoitzaren bizi-proiektuak errespetatu, horiei lehentasuna eman eta babesteko konpromisoa. Tratu onen, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eta errespetuan oinarritutako harreman afektibo eta etxeko harremanen aldeko konpromisoa, eta ez gizonaen eskubideei dagokienez bakarrik, baita emakumeen eskubideei dagokienez ere. Era berean, gizarte osoaren konpromiso sozial handiagoa behar da gizon eta emakumeen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, erakundeen aldetik batez ere.

Laugarren unitate didaktikoak, "Ez naiz bakarrik bizi", maitasuna gure eguneroko bizitzako jarreraren eta portaeren bidez agerian jartzen den zerbait dela agerian jartzea du helburu. Horrela, benetako maitasun-adierazpenak identifikatzen saiatu eta mingarriak eta suntsigarriak izan daitezkeen harremanetatik aldentzea lortu nahi da. Unitate didaktiko honek bi pertsonen arteko maitasun-harremanak aztertu eta landu nahi ditu. Alde batetik, maitasun-harremanak zentzu zabalean, lagunen eta lankideen arteko adiskidetasuna eta senideen arteko maitasuna, adibidez. Eta bestetik, ohiko zentzu estuan, bikoteen arteko maitasun-harremanak. Horretarako, honako hau proposatzen zaie ikasleei:

- Maitasuna beren buruari galderak eginez aztertu dezatela, maitasuna ikusi, nabaritu eta ezagutu egiten dela uler dezaten. Baita maitasunik eza ere. Maitasuna adierazten duten jarrerak eta giza harremanak dauden bezala, maitasunik gabeko jarrerak eta harremanak daude. Esaterako: bestea norberarena dela pentsatzea eta gure kontrolpean bizi behar duela pentsatzea, beste pertsonak norberak nahi bezala izan eta jokatu behar duela sinestea, beste pertsona baino gehiago garela sentitzea, besteari askatasuna ukatu eta kentzea, bestea gure zerbitzaritzat hartzea, bestea norberaren interes eta beharrak betetzeko bitartekotzat hartzea, bestearikiko errespetu falta, irainak, mehatxuak, tratu txarrak... maitasunarekin bat ez datozen jarrerak dira.
- Beren familian maitasuna eta maitasunik eza islatzen duten jarrerak azter ditzatela. Nola dakite norbait maite dutela? Zertan nabaritzen dute? Zer jarrera dute pertsona horrekin? Zer jarrera eta portaerak islatzen dute maitasuna eta adiskidetasuna? Eta zeintzuk ez? Zer da maiteminduta egotea? Zertan nabaritzen da? Zein harreman dira positiboak eta egoikiak? Eta zein ez? Zertan nabaritzen da? Zer lotura dago harreman afektiboan eta giza eskubideen artean?
- Benetan maite dituzten pertsonen sare bat osatu nahi dute norberaren inguruan, behar dutenean laguntza eske joateko sare bat, beren giza eskubideak errespetatzen ez dituen norbaitekin topo egiten dutenean (bikotean, familian, lagunen artean, ikastetxean, lanean edo herrian), horiei laguntza inolako beldurrik eta lotsarik gabe eskatzeko (pertsona hori da lotsa sentitu behar duena).

Bosgarren unitateak, "Giza eskubideen proiektua nire familian" izenekoak, zuzenean lotzen ditu giza eskubideak eta tratu txarrak. Horretarako, bi eremuak eszenatoki berean jartzen ditu: bikotearen eta familiaren egunerokotasuna eta etxea. Unitate didaktiko honek zuzenean lotzen ditu giza eskubideak eta tratu txarrak. Horretarako, bi errealitateak eszenatoki berean jartzen ditu: etxea eta egunerokotasuna bikotekidearekin eta familiarekin. Gure bikote-harremana giza eskubideekin bat etorri garatzen bada, bikotekidearekin eta familiarekin mantentzen dugun bizitza familiako kide guztien tratu on eta zorientasunetik gertuago egongo da. Eta alderantziz, bikotekidearen funtsezko eskubideak errespetatzen ez badira, egoerak tratu txarren bidea hartuko du. Horregatik, hainbat alderdi aztertu behar dira:

- Ibilbide hori bikote bakoitzak egin behar du bere etxean eta egunerokotasunean, baina egoera ez da bikotearen araberakoa soilik, erantzukizuna ez da bikotearena bakarrik. Gertuko pertsona askok eta gizarteak berak eta hura osatzen duten erakundeek etxeko intimitatean gertatzen denaren gaineko erantzukizuna dute. Unitate didaktiko honetako "Familiako giza katea" jolasean irudikatzen den moduan, pertsona, presio, egoera eta aldaketa asko sartzen dira familia-etxean, eta horiek guztiek bikotekideak bide batean edo bestean garatzea eragin dezakete, tratu txarren edo tratu onen aldera.
- Bikotearengandik gertu gauden pertsonak, isiltasun pisutsu baten pean ezkututzen dugu gertatzen den guztia, eta beste aldera begiratzen dugu, ezjakintasun-itxurakeriak eginez. Beste batzuetan, ontzat eta normaltzat edota ohizkotzat ematen ditugu jokabide eta portaera onartezinak, gurean ere antzeko zerbaitek gertatzeko bidea irekiz. Edozein kasutan, mota horretako gauzak soilik etxekoenak direla esan, inor ezin dela hor sartu aldarrikatu eta lasai geratzen gara. Oro har, gizarteak berak ere tratu txarretarako giro egokia eragiten du jarri horiek ahalbidetuz, ulertuz eta, batzuetan, justifikatuz eta/edo egiturazko berdintasunik eza mantenduz (lanbidea eskuratzeko aukerak eta autonomia ekonomikoa, adibidez); izan ere, horiek nagusitasun- eta mendekotasun-baldintzak sortzen dituzte, tratu txarrak erraztuz.
- Gizarteko erakundeek eta elkarteek ere berdintsu jokatzeko dute askotan, eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeekiko duten erantzukizuna ahazten dute. Guk horrela aginduta eta emanda, beraiena da gutako bakoitzaren giza eskubideak bermatu eta delituen aurka babesteko ardura eta biktimen zaintza, gaizkileen atxilotze-lanak barne. Hau guztia erasoak kalean, tabernan, lantegian edota etxean gertatzen diren kontuan hartu gabe.
- Unitate didaktiko honetako jolasek eta koadernoek behar bezala islatzen dituzte bikoteak berak, gertuko pertsonak, gizarteak eta gizarteko erakundeek egunerokotasuneko giza eskubideen aplikazioan modu batera ala bestera jokatu, beren erantzukizunak bete ala ez bete, gertatzen den horretan esku hartu ala ez hartu, horiek dituzten ondorioak. Hainbat egoera, faktore eta aldaketa agertzen dira, bai bikotean bai inguruan, eta jolasen bidez elementu horiek bizi eta horien inguruan hitz egin eta hausnartu daiteke, koadernoaren bidez aztertu eta barneratzeko.

Seigarren unitateak, "Familiaren berdintasunez bizitzea" izenekoak, ixten du programa; berri ere lantzen ditu programan zehar dagoeneko landu diren funtsezko auzietako zenbait, eta ikasleak "tratu onen" defentsan konprometitu nahi ditu. Unitate didaktiko honek bi helburu ditu: giza eskubideak egunerokotasunera aplikatuz, gaur egungo nahiz etorkizuneko familia eta bikoteko harremanak berdintasunez eta kidesunez bizi daitezkeela helarazi eta, bi ikasurte hauetan egindako bidea jaso, tratu txarren kontrako eta emakumeen eskubideen aldeko ibilbide honi amaiera ematea. Unitateak tratu onetara eta bizitzeko egokira garamatzaten jarre-ak azpimarratu eta gailentzen ditu, gure ikasleentzat erreferentzia positiboak bilduz. Horrela,

modu onean tratatzen dituzten gauzak eta pertsonak gehiago baloratu, zaindu, maite eta defendatu ditzaten. Horretarako, honako helburu hauek ditu unitateak:

- Unitate didaktiko honetako jolasetan eta koadernoetan bosgarren eta seigarren mailetan landutako hainbat kontzeptu eta jolas gogoratu eta txertatzea. “Familiako Giza Katea-2: hitzen katea” jolasak, adibidez, 5. unitate didaktikoan erabilitako etxebizitza-taula giza eskubideak errespetatuz bizitzen laguntzen duten hitz positiboekin betetzea proposatzen du. Eszenatoki hori tratu txarren eszenatokia den eta izan daitekeen bezala, tratu onen eta zoriontasunaren eszenatokia izan daitekeelako gu horretan saiatzen bagara, guk horrela nahi eta egiten badugu. Beste jolasak, berriz, “Bihotz minez” aholkularitza sentimentalari buruzkoak, beraien adineko neska-mutilen harremanak ezagutu eta baloratzeko aukera eskaintzen die neska-mutilei, beraientzat nahi dituztenak eta saihestu nahi dituztenak erabaki ditzaten eta zergatik adierazi dezaten. Horrela, kasua iristen denean, baliabideak eta erreferentziak izango dituzte nahi duten bikote-harremana bilatu eta eraikitzeko.
- Zentzu horretan, beren gaur egungo familiari eskutitz bat eta beren etorkizuneko bikotekideari maitasun-abesti bat idazteko eskatu zaie ikasleei. Beren gaur egungo bizitza baloratu eta etorkizuneko bizitza eraikitzen has daitezela da helburua, aurrera jarraitu nahi duten esparrua, arauak eta norabidea finkatuz. Zentzu baikor eta eraginkor horrekin, gurasoei edo familiako beste gizon eta emakume batzuei beren bikotekideari maitasun-eskutitz bat idatz diezaiotela eskatu zaie. Horrela, adierazitako maitasun hori erreferentzia positibo eta ispilu bat izan daiteke ikasleentzat, familietan esplicitua izaten dena berariaz baloratuz.
- Eguneroko bizitzaren bandera olinpikoak berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzarako beharrezkoak diren aldaketak irudikatuko ditu. Uztai beltza txuri bihurtu genuen, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko sinboloa (zero tolerantzia tratu txarrei dagokienez, hau da, emakumeen giza eskubideak urratzen dituztenei dagokienez). Uztai horiko gizonen sinboloak (familia-eremua) zera adierazten du, gizonek etxean duten erantzukizunik gabe tratu onen olinpiada hauek ezin izango lirатеkeela irabazi (familiako arduren bidezko banaketa). Hiru eremuetako gizon eta emakumeen sinboloek (ni, lana-enplegua eta gizartea) gizon eta emakumeen bizitzako esparru guztietako bidezko eta beharrezko berdintasuna irudikatzen dute.

4.2. LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! MATERIAL DIDAKTIKOAK

Orebe hezkuntza-aholkularitzak Emakunderentzat sortu eta garatutako ziklo honetako jolasak eta materialek beren **bizitza osoko eta autonomoko proiektu pertsonala** eraikitzen laguntzen diete ikasleei, bizitzako esparru guztietan (pertsonala, familiarra, soziala eta lanekoa). Horretarako, gure gizartean gizonak eta emakumeak mugatu, estereotipatu eta klonatzen dituzten etiketak ohartarazten zaizkie, eta ikasleei beren izaera, ezaugarriak, nahiak, proiektuak eta abar ezagutu, onartu eta estimatzeko gonbidapena egiten zaie, baita nahi duten eta erabakitzen duten modukoak izateko eta nahi duten bezala aldatu eta bizitzeko duten eskubidea (gizon eta emakume guztien kasuan) bera ere.

Jolasen bitartez, familiako eta maitasuneko harremanen ereduak berdintasunetik aztertu ditzatela gonbidatzen zaie ikasleei. Horrela, neska-mutilek maitasun erromantikoaren mitoak eta horien alternatibak ezagutu eta ulertu ditzakete, betiere berdintasunean eta tratu onetan oinarrituz eta giza eskubideak errespetatuz.

Gainerako zikloetan bezala, ziklo honetako NAHIKO! materialak **hiruhileko unitate didaktiko** baten inguruan egituratzen dira. Horregatik, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloari dagoen materialak sei unitate didaktiko hartzen ditu barne, hiru ziklo horretako maila bakoitzeko.

UNITATEAK

JOLASAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILA

1. Unitate didaktikoa: Nor naiz ni?

"Nor da nor?"
"Hitzez hitz"
"Etiketen jolasa"

2. Unitate didaktikoa: Bizitza-proiektua

"Bizitzaren loteria"
"Bizitzaren jolasa"

3. Unitate didaktikoa: Konpromisoa

"Bizitzaren lau hankak"
"Beti aurrera!" abestiak

LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA

4. Unitate didaktikoa: Ez naiz bakarrik bizi	"Nork bere bidea" "Maite al nauzu?" "Pertsonai bikainak, zineman bakarrik?" "Kanta bizi-biziai"
5. Unitate didaktikoa: Giza eskubideak	"Familiako giza katea 1: pertsonak" "EMA.S.O.S. telefonoa"
6. Unitate didaktikoa: Familian berdintasunez bizitzea	"Familiako giza katea 2: hitzak" "Bihotz minez"

Material horiek guztiak Emakunderen web orri honetan aurkituko dituzu (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde → Nahiko! → Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (5. eta 6. mailak), unitate didaktikoak:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahikcon/es/contenidos/informacion/nahiko_materialak/es_unidades/tercer_ciclo_primaria.html

Jolas horietan guztietan, adierazitako dinamikekin **jolastu aurretik** (dominoa, puzzlea, familiak, memory eta abar), ikasleekin taldeka jarduera batzuk egitea gomendatzen da, esate baterako:

- Kartak eta fitxak ezagutu, horien edukia argitu eta ulertzea.
- Pista, sinonimo, antonimo eta abarren bidez kartak eta fitxak asmatzea.
- Familien arabera multzokatu, sailkatu, zerrendak, taulak, kartelak, horma-irudiak egin...
- Karta eta fitxa berriak sortu eta gehitzea, horien ganean idaztea, deskribatzea, ipuin baten bidez elkarren artean lotzea...

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

1. UNITATE DIDAKTIKOA: NOR NAIZ NI?

"NOR DA NOR?" JOLASA:

- Pertsonaia desberdinak dituen 54 kartako karta sorta, familietan, loterian, "nor da nor?" jolasean eta abarretan jolasteko. Kartetan hiru belaunaldiko gizon eta emakumeak jasotzen dira: aitona-amonak, gurasoak eta haurrak. Askotan, genero bidez estereotipatu gabeko jardueretan agertzen dira gizon-emakumeak, hala nola, emakume kamioilariak, gizon zaintzaileak, emakume enpresariak, gizon erizainak eta abar.
- Gizabanakoen aniztasuna islatzea eta beste arraza, adin, sexu, ohitura, lan eta ezagutza batzuetako pertsonetako errespetua sustatzea da helburua.

"HITZEZ HITZ" JOLASA:

- Familien arabera banatutako 72 kartako karta sorta (neska eta mutilen irudiak, esaldi positiboak eta negatiboak), domino-puzzean jolasteko. Horrela, lagun eta esaldi positiboen sareak osatu behar dira neska eta mutilen irudiak oinarritzat hartuta.
- Autoestimua eta adiskidetasuna lantzea da helburua, babeserako esaldiak, aintzatespena eta abar identifikatuz. Zoritxarretan eta egoera eta jarrera negatiboetan babesa eta laguntza jasotzeko sare pertsonal bat sortzeak duen garrantzia azpimarratu nahi da.

"ETIKETEN JOLASA":

- Hainbat familietan banatutako 72 kartaz osaturiko karta sorta: gizon eta emakumeak, etiketa gorriak emakumeentzat, etiketa gorriak gizonentzat, etiketa berdeak emakumeentzat eta etiketa berdeak gizonentzat. Etiketa gorriek eta berdeek gizon eta emakumeei esleitu ohi zaizkien hainbat esaera, estereotipo eta genero-rol jasotzen dituzte.
- Jolasak helburu hirukoitza du: gure gizartean gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien genero-estereotipoak eta -aurreiritziak ikustea (negatiboak eta positiboak); etiketa horiek (positiboak eta negatiboak) batzuen eta besteen garapen integralean eta berdintasunezko harremanetan eragiten duten efektu negatiboa ulertzea; eta benetako gizon eta emakumeak (kartetan jasotako pertsonak) horrelakoak ez direla eta estereotipo eta rol horien aurkakoak direla ikustea (etiketak).

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 2. UNITATE DIDAKTIKOA: BIZITZA-PROIEKTUA

"BIZITZAREN LOTERIA" JOLASA:

- 32 kartoiz osaturiko loteria- edo bingo-jolasa. Kartoi bakoitzak lau lerro ditu eta lerro horiek bizitzako 4 eremu irudikatzen dituzte (ni, familia, gizartea eta lana), pertsona baten bizitzako eremu guztiak, elegia. Jolasak fitxa batzuk ditu eta kartoietan testuak idatzita daude, partidari zehar irakurtzen ("abesten") joateko.
- Bizitzak pertsona bakoitzari gauza onak eta txarrak ematen dizkiola ulertzea da helburua, bakoitzak egoera eta baliabide horietan oinarrituz hasi behar baitu bere bizitzako proiektua eraikitzen. Era berean, egoera eta baliabide horiek gizonak eta emakumeak izateagatik bakarrik jasotzen ditugun aztertu behar da, baita horiek batzuen eta besteen bizitzako aukeretan eragiten dituzten ondorioak ere.

"BIZITZAREN JOLASA":

- Jolasak bizitzako 4 eremuak irudikatzen dituen taula bat du (ni, familia, gizartea eta lana). Horiek pertsona baten bizitzako eremu guztiak irudikatzen dituzte metodologikoki, horretarako 4 kolore eta 54 galdera-txartel erabiliz (egia ala gezurra), taulako laukitxoetan erabiltzeko. Txartel bakoitzak kolore eta bizitzako eremu bakoitzeko 4 esaldi ditu, eta horiek estereotipo-aurreiritzi eta genero-rol arruntenen ingurukoak dira.
- Taula guztia zeharkatu eta lau eremu horietako bakoitzaren erdiko laukitxora iristea da helburua, bizitza osoa eta orekatua eta garapen pertsonal autonomo eta integrala lortzeko. Hau da, pertsona autonomoak eta askeak izateko, zoriontsu izateko eta elkarrekiko errespetuan eta tratu onetan oinarritutako harremanak izateko, lau hanka horiek, taulako lau eremuak, bizitzako lau eremu horiek garatu behar direla ulertzea.

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

3. UNITATE DIDAKTIKOA: KONPROMISOA

"BIZITZAREN LAU HANKAK" JOLASA:

- Jolasteko, aurreko unitate didaktikoko taula eta 56 txartel berri erabili behar dira. Txartel horietako bakoitzak 4 proba ditu (mimika, definizioa, marrazketa eta hitz debekatuak) eta horiek aurreko bi unitate didaktikoak gogoratu, sakondu eta laburbiltzeko balioko dute.
- Bizitza autonomia eta orekatua lortzeko eta hura berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako harreman egokietan oinarrituta egoteko egin behar den norbanakoaren nahiz gizartearen konpromisoa eta ahalegina azpimarratzea da helburua (ikastetxetik bertatik hasita).

"BETI AURRERA!" DISKO-FORUM JOLASA:

- 20 abestiren letrak (10 euskaraz eta 10 gaztelaniaz) jasotzen dituen disko-foruma, autoestimarekin eta elkarrekiko babesarekin lotutako alderdiak lantzeko. Abestiekin lan egiteko jarraibideak, jolasak eta ariketak adierazten dira: letra berri bat gehitu edo asmatu, abestiaren edukiari erantzun edo beste alternatiba bat eman, dantza edo koreografia bat asmatu, abesten den istorioa antzeztu, hasiera horrekin ipuin bat idatzi...
- Mezu positiboak azpimarratu eta ikasle guztiek beren burua hobeto ezagutu eta onartzea da helburua, baita gainerako gelakideak ere.

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

4. UNITATE DIDAKTIKOA: EZ NAIZ BAKARRIK BIZI

"NORK BERE BIDEA" JOLASA:

- Lau palo edo koloretako 56 kartaz osaturiko karta sorta, txintxonean jolasteko; horiek bizitzako lau eremuak irudikatzen dituzte (ni, familia, gizartea eta lana). Eremu bakoitzeko kartak 1etik 12ra zenbatuta daude eta jarraibideak ematen dituzten beste horrenbeste esaldi dituzte, pertsonak bakoitzak bere bidearekin jarraitu dezan.

- Testuekin, pertsona bat bere bizitzaren jabe izan eta bere bidea benetan egin ahal izateko funtsezko kontzeptuak erakustea da helburua: norbere buruarekiko konfiantza, askatasun pertsonala izateko eskubidea, babesen bilaketa, ez esaten ikastea eta abar.

"MAITE AL NAUZU?" JOLASA:

- Elkarrekin lotuta dauden 12 pertsonaiari buruzko diptiko itxurako 12 txosten jasotzen dituen jolasa. Pertsonaia bakoitzaren txostenak 26 galdera eta gainerako pertsonaien erantzunak ditu. Galdera bakoitzari bai (diptikoan, +) edo ez (diptikoan, -) bakarrik erantzun behar zaio. Galderak eta erantzunak maitasun-adierazpenei buruzkoak eta maitasuna eta maitasunik eza islatzen dituzten giza jarrerai buruzkoak dira: elkarri eskaintzen zaion denbora, interesa eta entzutea, maite den pertsonaren arrakastekiko poztasuna, harekiko konfiantza eta abar.
- Bakoitzak nor maite duen (bakoitzak nor maite duen eta nor ez) eta hori zertan nabarmentzen den (zergatik dakigu hala dela edo ez dela) topatzea da helburua, maitasunarekin eta maitasunik ezarekin lotuta dauden eta hura islatzen duten jarrerak, portaerak eta harremanak identifikatuz eta jorratuz (beste pertsonaren kontrola, zeloak...).

"PERTSONAIK, ZINEMAKOAK SOILIK?" JOLASA:

- Ohiko genero-estereotipoei erantzuten ez dieten pertsonaiak agertzen diren 5 pelikulaz osaturiko zine-forumerako koadernoak. Kasu guztietan, istorioa eta pertsonaiak aurkeztu eta galdera batzuk eranstean dira, baita aztertu beharreko gaiak, ariketetarako jarraibideak eta abar ere.

"KANTA BIZI-BIZIAK" JOLASA:

- Tratu txarrekin edo horien gertuko harremanekin lotutako egoerei erreferentzia egiten dieten letra duten 8 abestiz osaturiko disko-forumerako koadernoak. Abestiaren letra osoa eta abestien letra berdintasunaren, giza eskubideen eta tratu onen ikuspegitik jorratzeko galderak eta jarraibideak gaineratzen dira.

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN 5. UNITATE DIDAKTIKOA: GIZA ESKUBIDEAK

"FAMILIAKO GIZA KATEA-1: PERTSONEN KATEA" JOLASA:

- Jolasa etxe baten planoan irudikatzen duen taula batean jolasten da (sukaldea, pasilloa, logelak, balkoia, auzoko eskailerak, kalea...), tratu txarrei aurrea hartzeko faktore positiboak edo negatiboak irudikatzen dituzten koloretako fitxekin eta horiei aurrea hartzeko egoera positiboak jasotzen dituzten 64 txartelekin (harremanak beste pertsonekin, senitarteko eta auzotarren interesa, etxetik atera, lana izan eta abar), baita egoera negatiboak edo arriskutsuak ere (harremana bikotekidearekin bakarrik, isolamendua etxean, mendekotasun ekonomikoa, bakardadea, lotsa, isiltasuna eta abar).
- Giza eskubidea, tratu onak eta tratu txarren prebentzioa errazten dituzten egoerak, jarrerak eta portaerak identifikatzea da helburua, horiek gure bizitzetara txertatzeko; baita faktore arriskutsuak ezagutzea ere, neurriak hartu eta horiek saihesteko.

"EMAS.O.S." JOLASA:

- Beste gidoi batzuen hasiera jasotzen duten 20 txartel, babeserako edo laguntzeko gizarte-zerbitzu bat balitz bezala azertu, jarraitu, prestatu eta antzetzeko. Gidoi bakoitzak zerbitzuarekin mantendutako elkarrizketa, dei edo kontsulta baten hasiera jasotzen du, eta hari jarraipena eta erantzun bat eman behar zaio.
- Tratu txarren maila desberdinekin edo tratu txarren arrisku-egoerekin lotutako egoerak eta jarrerak aztertzea da helburua, baita aurrea hartu edo laguntza behar duen pertsona indartzeko jarduketak ere, arriskuak saihestu eta haren egoera hobetzeko.

5. ETA 6. MAILETAKO NAHIKO! PROGRAMAREN

6. UNITATE DIDAKTIKOA: FAMILIAN BERDINTASUNEZ BIZITZEA

"FAMILIAKO GIZA KATEA-2: HITZEN KATEA" JOLASA:

- Jolasa aurreko unitateko taula bera erabiliz garatzen da (etxebizitzaren planoak); hura oinarri gisa erabili behar da hitzak idazteko, gurutzegrama erraldoi bat balitz bezala. Horretarako, hitzak euskaraz (atzealde zuria) eta gaztelaniaz (atzealde koloretsua) osatzeko hainbat fitxa hizkidun daude.
- Etxe-laukia berdintasunean, errespetuan, giza eskubideetan eta tratu onetan oinarritutako bizikidetzan adierazten eta ahalbidetzen duten hitzekin eta hitz-kateekin osatzea da helburua. Esate baterako, jolaseko hizkiak honako hitz hauetatik atera dira: autonomia, babesak, lagunak, elkarrizketa, besarkadak, musuak, maitasuna, prestakuntza, enplegua, adiskideak eta abar.

"BIHOTZ MINEZ" JOLASA:

- Irrati-gidoiak jasotzen dituzten 28 txartel, irrati bidezko aholkularitza sentimental batera bideratutako eskaera edo kontsultetan oinarrituz. Taldearen aurrean aztertu, eztabaidatu eta erantzuteko, prestatu eta antzetzeko kontsultak dira. Gidoi bakoitzak egoera eta jarrera bat jasotzen du haren larritasunaren, motibazioaren, egoeren eta abarren arabera. Ikasleek argudioekin erantzun behar diete egoera horiei.
- Neska-emakumeen eta mutil-gizonen arteko harreman afektiboen eredu desberdinak aztertzea da helburua; horrela, jasotako kontsultak antzeman eta kasu bakoitzean jasotzen den egoerari, nahastutako pertsonen jarrerei, inguruneko faktore positiboak buruzko hausnarketa egin daiteke, prebentzioaren, arrisku-faktoreen edo faktore arriskutsuen ikuspuntutik, edo tratu txarren... ikuspuntutik.

4B. LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILETAKO ESPERIENTZIA PILOTUAK :

4.3. DEIALDIA, DATUAK ETA PARTAIDETZA. 2003-2004 ETA 2004-2005 IKASTURTEETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA

2003. urtean egindako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen deialdia Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara bideratu zen, NAHIKO! programaren lehen esperientzia pilotuan parte hartzera gonbidatuz. Deialdi hori egiteko, Emakunderen zuzendariaren gonbidapen-eskutitz bat, NAHIKO! programak hurrengo bi ikasturteetan izango zituen ezaugarrien eta baldintzen dokumentu bat, eta parte hartu nahi zuten ikastetxeen datuak jasotzeko partaidetza-eskaeraren orria bidali ziren.

Gonbidapenean argi eta garbi adierazten zen, esperientzia pilotuan parte hartu nahi zuten ikastetxeentzat doakoa izateaz gain, NAHIKO! programa Berdintasunean, Errespetuan eta Indarkeriarik Ezan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko hezkidetzaprograma bat dela eta, haren bidez, elkarrekin berdintasunez bizitzeko balio-hezkuntza irakasten dela, betiere giza eskubideak errespetatuz eta horiek gizon eta emakumeen egunerokotasunean aplikatuz, eta ikasleek bereganatzen dituzten genero-rolak aztertuz.

Esperientzia pilotuaren ezaugarrien deialdi-dokumentuan honako elementu, baldintza eta konpromiso hauek jaso ziren, funtsean, bi ikasturteetarako, Emakunderen nahiz ikastetxe parte-hartzaileen aldetik:

- Ikastetxeetan abian jarritako esperientziaren prestakuntzarako, ebaluaziorako eta jarraipenerako hiruhileko mintegi presentzialak esperientzian parte hartuko zuten irakasleentzat.
- Sei unitate didaktiko, hiru maila eta ikasturte bakoitzeko, bat hiruhileko bakoitzeko. Unitate bakoitzak gida bat du irakasleentzat, baita gelan lan egiteko materialak eta ikasle eta famulientzako koadernoak ere.
- Unitate bakoitzerako materialak bi ikasturteetan zehar prestatu, erabili eta ebaluatu ziren, ikastetxe parte-hartzaileetako irakasleen laguntzarekin.
- Ikastetxe bakoitzari unitate didaktikoetako material guztia helaraziko zaie, doan.

- Ikastetxeentzako jarraipen-, koordinazio- eta aholkularitza-zerbitzua programaren edukiari, materialen erabilerari eta programako saio bereziekin eta prestakuntza-jardunaldiekin lotutako guztiari dagokionez.
- Emakundek diseinatu eta prestatutako hiruhileko saio bereziak ikasle eta familiekin, ikastetxeetatik kanpoko langileen aldetik.

Hiru ikastetxe aitzindarik bakarrik agertu zuten proposatutako esperientzia abiarazteko interesa, borondatea, ausardia eta konpromisoa. Emakundek aurreikusitako esperientzia eskara egin zuten hiru ikastetxe horiekin gauzatzea erabaki zuen, eta hiru ikastetxe parte-hartzaile-etara xedatu zuen programaren garapenerako aurreikusitako laguntza eta dedikazio osoa. Horrela, NAHIKO! programaren lehen materialak eta ariketak prestatzen eta esperimendatzen hasi zen hiru ikastetxe parte-hartzaileen lankidetzan estu eta ordainezinean oinarrituz. Esperientzia pilotua 2003-2004 ikasturteko lehen hiruhilekoan abiarazi zen eta 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetan zehar garatu zen.

2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetako NAHIKO! esperientzia

- Ikastetxeak: 3 ikastetxe.
- Taldeak: 6 ikasle talde.
- Irakasleak: 6 irakasle.
- Ikasleak: 103 ikasle.

Parte hartu duten Bizkaiko ikastetxeak:

- KAREAGA GOIKOA LHI. Basauri.

Parte hartu duten Gipuzkoako ikastetxeak:

- AITA IPARRAGIRRE H.E. Idiazabal.
- DUNBOA HI. Irun.

4.4. DEIALDIA, DATUAK ETA PARTAIDETZA. 2005-2006 ETA 2006-2007 IKASTURTEETAKO ESPERIENTZIA PILOTUA

2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetako esperientzia arrakastatsuaren eta hiru ikastetxe parte-hartzaileek egindako balorazio bikainaren ostean, Emakundek esperientzia errepikatzea erabaki zuen Lehen Hezkuntzako ziklo berean, baina ikastetxe-aniztasun handiagoarekin, beste zikloetarako programaren materialak prestatzen hasi aurretik.

2005. urtean egindako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen deialdia Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara bideratu zen, NAHIKO! programaren esperientzia pilotuan parte hartu zezaten. Deialdi hori egiteko, Emakunderen zuzendaria ren gonbidapen-eskutitz bat, NAHIKO! programak hurrengo bi ikasturteetan izango zituen ezaugarrien eta baldintzen dokumentu bat, eta parte hartu nahi zuten ikastetxeen datuak jasotzeko partaidetza-eskaeraren orria bidali ziren.

Esperientzia pilotuaren ezaugarrien dokumentuan eta gonbidapenean, 2003. deialdian jasotako Emakunderentzako eta ikastetxe parte-hartzaileentzako elementu, baldintza eta konpromiso berberak jasotzen ziren. Esperientzia pilotua 2005-2006 ikasturteko lehen hiruhilekoko anbiarazi eta 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetan zehar garatu zen.

2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetako 5. eta 6. mailetako NAHIKO! esperientzia:

- Ikastetxeak: 37 ikastetxe.
- Taldeak: 67 ikasle talde.
- Irakasleak: berritzeguneetako 100 irakasle eta aholkulari inguru.
- Ikasleak: 1.312 ikasle.

Parte hartu duten Arabako ikastetxeak:

- ADURTZA IKASTOLA. Vitoria-Gasteiz.
- ARANTZABELA IKASTOLA. Vitoria-Gasteiz.
- CEP PADRE ORBISO LHI. Vitoria-Gasteiz.
- IBERNALO IKASTOLA. Kanpezu.
- IKASBIDEA IKASTOLA. Durana.

- INMACULADA CONCEPCIÓN IKASTETXEA. Vitoria–Gasteiz.
- UMANDI IKASTOLA. Vitoria–Gasteiz.

Parte hartu duten Bizkaiko ikastetxeak:

- ALTZAGA IKASTOLA. Leioa.
- ANDRA MARI IKASTOLA. Zornotza.
- BETIKO IKASTOLA. Leioa.
- CEP ROMO LHI. Getxo.
- CEP SAN BARTOLOMÉ. Leioa.
- CEP SRA. VDA DE EPALZA LHI TIBOLI. Bilbo.
- SAN PEDRO APOSTOL IKASTETXEA. Bilbo.
- SAN PELAYO IKASTETXEA. Eibar.
- CP. LAMIAKO. Leioa.
- CP. SAN LORENZO. Ermua.
- GEROA IKASTOLA. Getxo.
- GORONDAGANE IKASTETXE PUBLIKOA. Sondika.
- KURUTZIAGA IKASTOLA. Durango.
- LH SAN ANTONIO IKASTETXEA. Etxebarri.
- SAN FELIX IKASTETXEA. Ortuella.
- ZALDIBAR HI. Zaldibar.
- ZALDUPE ONDARROAKO EP. Ondarroa.

Parte hartu duten Gipuzkoako ikastetxeak:

- AITA IPARRAGIRRE HE. Idiazabal.
- AMASORRAIN IKASTOLA. Donostia.
- DOMINGO AGIRRE ESKOLA PUBLIKOA. Legazpi.
- DUNBOA LHI. Irun.
- EGAPE IKASTOLA. Urnieta.
- ELGOIBARKO HERRI ESKOLA. Elgoibar.

- J.A.MOGUEL IKASTOLA. Eibar.
- LUZARO LHI. Deba.
- PLAENTXI LHI. Soraluze.
- TXANTXIKU IKASTOLA. Oñati.
- UGARO HERRI IKASTETXEA. Legorreta.
- URKIZU HERRI ESKOLA. Eibar.
- URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA. Urretxu.

4.5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ikasturte bakoitzeko lau prestakuntza-mintegi egin ziren. Horien helburua irakasleei hezkidetzaren inguruko prestakuntza eskaintzea zen batetik, eta ziklo bakoitzeko unitate didaktikoen inguruko prestakuntza zehatza eskaintzea, bestetik (unitate didaktiko bakoitzaren gai nagusia, helburuak eta edukiak, eta material, jolas eta ipuinen deskribapena, helburuak, ariketak eta arauak), baita ikastetxeetan ikasleekin eta familiekin egindako lanaren jarraipena, trukea eta ebaluazioa egitea ere. Gainera, ikasturte bakoitzaren amaieran NAHIKO! programaren ikasturteko esperientzia ebaluatzeko mintegi bat egin zen eta, bertan, hurrengo ikasturterako aurreikuspenak eta iradokizunak jaso ziren.

Programan parte hartu zuten irakasleez gain (gehienak tutoreak), mintegi horretan parte hartu zuten, halaber, berritzeguneetako erreferentziazko aholkulariek (irakasleentzako laguntza eta berrikuntzarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko zentroak) eta, batik bat, garaian garaiko (Lehen Hezkuntza) aholkularitzek edo ikastetxe parte-hartzailearen erreferentziazko aholkularitzek.

Prestakuntza eta jarraipenerako mintegiak **programa** batean oinarrituz garatu ziren. Hark hiruhileko aldaketa txiki batzuk izan zituen, unitate didaktiko bakoitzaren premien arabera, eta honako urrats hauetan laburbildu genitzake:

- Dokumentazioa jasotzea.
- Jardunaldiaren aurkezpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Programa eta Prestakuntza Eremuko arduradunaren eta zuzendari nagusiaren aldetik.
- Hurrengo hiruhilekoan landuko den unitate didaktikoaren gai nagusiari buruzko txostena, hezkidetzan eta dagokion gaian adituak diren txostengileen aldetik.

- Mahai-ingurua txostengileekin.
- Atsedenaldia.
- Aurreko hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren eta hiruhilekoan zehar ikasleekin eta familiekin egindako saio berezien laburpena, ikaskuntzak eta ondorioak.
- Ikastetxe parte-hartzaileen laburpena, ebaluazioa eta ondorioak, taldekako bilera eta lanen bitartez. Horrela, horien esperientziak eta praktika egokiak ezagutu daitezke, baita aurreko hiruhilekoan zehar landutako unitate didaktikoaren inguruko ebaluazioak eta ondorioak ere.
- Atsedenaldia.
- Orebe aholkularitzaren aurkezpena. Izan ere, hura arduratu da NAHIKO! programaren garapenez eta koordinazioaz, eta hurrengo hiruhilekoan landu beharreko unitate didaktiko berriko helburuez, edukiez eta materialez (jolasak, ipuinak, koadernoak, saio bereziak, egutegia...).
- Jardunaldiaren amaiera.

Hiruhileko mintegi horiek hezkidetzaren, genero-ikuspegiaren eta berdintasunerako hezkuntzaren ikuspegitik unitate didaktikoekin lotutako edukiekin zerikusia duten honako **TXOSTENGILE ETA TXOSTEN** hauek izan zituzten:

2003-2004 ETA 2004-2005 IKASTURTEAK

Amparo Tomé González andrea: Emakumeen aurkako indarkeria: maskulinitateak"

Amparo Tomé González: "Hezkidetzak kritikoak gizarte-kohesiorako erreminta gisa. "Genero-kultura berri baterantz"

M^a José Urruzola Zabalza andrea: "Indarkeria sexistaren prebentzioa ikastetxetik"

Irene Zubizarreta Anguera andrea: "Etxeko tratu txarrek emakumeengan eta seme-alabengan dituzten ondorio psikologikoak"

Elena Simón Rodríguez andrea: "Berdintasunik eza eta desberdintasunak"

Elena Simón Rodríguez andrea: "Demokrazia, boterea eta herritartasuna gizartean eta ikastetxean"

M^a Ángeles Espinosa Bayal andrea: Tratu txarrak jaso dituzten emakumeen seme-alabak: horien garapenerako eta eskolan integratzeko ondorioak"

M^a Angeles Espinosa Bayal andrea: "Generoaren eraikuntza hezkuntza-esparrutik: estrategia prebentibo bat"

2005-2006 ETA 2006-2007 IKASTURTEAK

1. UNITATE DIDAKTIKOA: "NOR NAIZ NI?"

Amparo Tomé González andrea: "Tratu txarrei ikastetxetik aurrea hartzea"

- Genero-identitateen sozializazio- eta eraikuntza-prozesua. Hierarkizatutako harremanak eta nortasunak. Maskulinitasunaren eta nagusitasunaren arteko loturak, feminitatearen eta mendekotasunaren arteko loturak.
- Genero-identitateak berdinen arteko ikastetxe-harremanetako indarkeriaren oinarri gisa, eta emakumeen aurkako indarkeriaren gizarte-permisibitatearen eta etorkizuneko bikote-harremanen oinarri gisa.
- Ikastetxearen eginkizun igorlea eta aldatzailea. Esku hartu edo ez. Hezkidetzako esku-hartzea. Ikastetxeak egin dezakeen guztia.

2. UNITATE DIDAKTIKOA: "BIZI-PROIEKTUA"

M^a Ángeles Espinosa Bayal andrea: "Genero-rolak eta hezkuntza-ereduak"

- Nola ikasten da emakumea edo gizonezkoa izaten? Non ikasten da?
- Familia-ereduak. Ikastetxe-ereduak.
- Genero-ereduen erreprodukzioa eta emakumeen aurkako indarkeria.
- Hezkidetzak: Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko modu eraginkorra.

3. UNITATE DIDAKTIKOA: "KONPROMISOA".

Elena Simón Rodríguez andrea: "Demokrazia, boterea eta herritartasuna gizartean eta ikastetxean"

- Tratu txarrak: harreman-eredu baten eta boterea gauzatzearen ondorioa. Gizarte, familia eta ikastetxeko eredia.
- Printzipio demokratikoak eta hezkuntza-helburuak: askatasuna, justizia eta berdintasuna. Eguneroko errealitatea ikastetxean.
- Generoaren estereotipoak, eginkizunak eta harremanak: emakumeen herritartasun osatugabea. Bigarren mailako herritarrak gizartean eta eskolan.
- Herritartasun osoa: aukera-, tratu- eta baldintza-berdintasuna emakume eta gizonen artean. Gizonak eta emakumeak gizartean eta eskolan.
- Hezkidetza: tratu txarrekin amaitzeko berdintasunez heztea, demokrazia eta herritartasun osoa lortzeko berdintasunez heztea. Eguneroko alternatibak ikastetxean.

4. UNITATE DIDAKTIKOA: "EZ NAIZ BAKARRIK BIZI"

Xavier Bonal jauna: "Ikastetxea aldatzea: hezkidetza ikastetxeko eremuetan"

- Ikastetxeko eremuen erabilerarekin lotutako azterketa eta alternatibak, hezkidetzaren ikuspuntutik.
- Espazioa eta adibide gakoa: hezkidetza jolas-patioan. Azterketa xehatua eta jarduteko esperientziak.
- Eskolako espazio guztietan ikertu eta jarduteko, aztertu eta esku hartzeko jarraibideak eta galderak, irizpideak eta metodologia: gela komunak, gela espezializatuak, ekipamenduak eta mantenua, espazio korporatibo esanguratsuak...

5. UNITATE DIDAKTIKOA: "GIZA ESKUBIDEAK"

Mercedes Bengoechea Bartolomé andrea: "Hizkuntzaren erabilerak eta komunikatzeko moduek nortasun pertsonalaren osaketan eta autoestimuan duten eragina"

- Izendatu eta ez izendatu; erabilerak eta ondorioak. Ikusgaitasuna eta ikusezintasuna.
- Hizkuntzaren erabilera eta dominazio-sumisio sistemaren ikaskuntza; ahozko indarkeria eta indarkeria sinbolikoa hizkuntzaren erabileran.
- Eskolan egiten den hizkuntzaren erabilera aztertzea: ikasleak, irakasleak...
- Ikasleen komunikazio-estiloak; irakasleen posizionamendua eta neska eta mutilengan eragindako ondorioak.
- Bi estilo daudela aitortzea, eta estilo maskulinoak neskek ahuldu ez ditzala eta estilo femeninoak mutilak lotsatu ez ditzala lortzea.

6. UNITATE DIDAKTIKOA: "FAMILIAN BERDINTASUNEZ BIZITzea"

Sara Acuña Franco andrea: "Handitzen naizenean zera izango naiz... aukera-berdintasunean oinarrituz aukeratzea"

- Ibiltzean bidea egiten da: neska eta mutilen bizi-proiekturako bideak.
- Baina denek gauza berak al daramatzate motxilan? Igaro behar diren oztupoak: hezkuntzan eta lan-esparruan.
- Nik aukeratzen dut, berak aukeratzen du... uste faltsua. Eraginak erabakiak hartzerakoan.
- Eta orain, institutura! Curriculum- eta antolaketa-desberdintasunak.
- Proposamen bat: bizitzak, eskolak eta lanbideak eskainitako hezkidetza-orientazioa.

OHARRA: Txosten horiek guztiak Emakunderen web-orri honetan aurkitu daitezke (www.emakunde.euskadi.net): Emakunde → Nahiko! → Irakasleen formakuntza → Ponentziak:

4.6. SAIOAK IKASLEEKIN. ONDORIOAK

Jarraian, Nahiko! programaren begiraleek Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetan garatutako esperientzia pilotuan parte hartu duten ikasleekin egindako saio berezien ebaluazioetatik jasotako ohar, ondorio eta ikaskuntza esanguratsu batzuk azpimarratu nahi ditugu, ikasleen nahiz begiraleen hitzez hitzeko aipamenak kaxatuz artean gehituz.

4.6.1. 1. UNITATE DIDAKTIKOAREN (NOR NAIZ NI?) SAIO BEREZIA: BIZITZAREN CASTINGA

Ikasleek norbere buruarekiko ikuspegia aldatzeko saio bat egitea izan zen helburua, "itxura perfektuaren", "nortasun perfektuaren" gisako generoan oinarritutako aurreiritziak eta estereotipoak uxatuz, hau da, "mutil perfektua" eta "neska perfektua" motakoak.

Horretarako hainbat jarduera egin zituzten: neska eta mutilen silueta perfektua, norbere siluetekiko konparazioa, elkar ezagutzeko jolasa estereotipoen betaurrekoak erabiliz eta antzerki-antzezlanak agertokiaren hasiera bakarrik ematen zuen gidoi txiki bat erabiliz. Jarduera horiek guztiek genero-estereotipoen inguruko hausnarketak, oharrak eta eztabaidak eragin zituzten, gizartean pasatzen diguten "castingari" buruzkoak alegia, eramaten diren edo neska eta mutilengandik espero diren neurriak ditugun ala ez ikusteko. Baita eskakizun horien eta gure benetako izaeraren, gure benetako neurrien eta ezaugarri pertsonalen arteko gatazkari dagokionez ere.

Silueta perfektuen zatia sexuaren arabera bereizita egin zuten eta saioko gainerako jarduerak guztiak talde mistoetan egin zituzten **neskak eta mutilei** dagokienez:

- Oso jarrera ona eta interes handia agertu zuten jardueretan. Nesken partaidetza eta lankidetzatza nabarmendu zen batez ere, horiek ahalegin handiagoga egin baitzuten talde osoa jolasetan txertatu zedin. Oro har, neskak eta mutilak oso kontentu agertu ziren saioarekin.
- Zenbait taldetan, norbere edo taldeko egoerei, bizitzari edo ikastetxeari buruzko oharrak eta erreferentziak egin ziren, eta horiek asko aberastu zituzten saioak. Momentu jakin batzuetan, mutil batzuek saioa oztopatu zuten jarrerak eta portaerak izan zituzten.

- Neska eta mutilen arteko talde bereizietan lan-erritmo desberdinak hauteman ziren. Neskek arreta handiagoa jarri zuten eta lasaiago eta laguntzaileago agertu ziren, gauza guztiei buruzko oharra eginez, murala modu egokian prestatuz... Mutilak geldiezin agertu ziren eta arreta gutxiago jarri zuten, begiraleen ardura handiagoa behar izan zuten, eta murala ere zikinagoa eta okerrago egin zuten...

Nor naiz ni? unitate didaktikoaren eta saioaren edukiari dagokionez:

- Argi eta garbi identifikatu ziren gizartean gailentzen diren genero-ereduak, gizon-mutilen kasuan nahiz neska-emakumeen kasuan. Zentzu horretan, bakoitzaren izaerak gizarte-arau horien gainetik egin beharko lukeela adierazi zuten denek.
- Neska zein mutilengan zailtasunak sortu ziren positiboki definitzean, eta hori negatiboki definituz konpontzen zuten, hau da, zer ez ziren esanez. Askok kostatu zitzaizkien autoestimuz eta norbere buruarekiko konfiantzaz definitzea.
- Talde gehienetan, neskek argiago zuten genero-eredu horiek existitzen direla eta horiek betetzeko presio handia dagoela, eta horrek beldurgarri bihurtzen zuen casting soziala. Identifikatutako ereduak honako termino hauek gaineratzen zituen itxurari dagokionez: mehea, altua, polita, depilatua, makillatua, ile asko, ezpain handiak, ile zoragarria, modaren arabera jantzia... modelo bat. Eta ezaugarri pertsonalei dagokienez: langilea, sentikorra, garbia, lasaia, lagun ona, zintzoa, etxeokandrea ona, dibertigarria, obediencia, mutilzalea, erromantikoa, haurtxoen zaintzailea, arduratsua, serioa, ordenatua, operatua, dieta, dotorea, sexya...
- Mutilek zailtasun gehiago izan zituzten modelo hori identifikatu eta haren ezaugarriak finkatzeko orduan. Batzuek modeloak beraiek zirela zioten eta ez zuten inolako beldurrik castinga egiteko... Honako modelo hau identifikatu zuten: sendoa, altua, kirolaria, gihartsua, abdominal markatuak, ez mehea ez lodia, alai, makillaje edo zaintzarik gabea... Eta ezaugarri pertsonalei dagokienez, honako hauek azpimarratu zituzten: neskazalea, ausarta, txistezalea, futbolaria, txulittoa, aberatsa, kotxe garestia, gogorra, lumarik gabea, dantzarik egiten ez duena, kirol arriskutsuak, erromantikoa, zintzoa, oldarkorra, sexya...
- Talde mistoetan garatu eta antzetzutako gidoiengan, hertsiki irudikatu zituzten familiako rolak, jolasekin, lanarekin eta etxeko lanekin lotutako egoeretan batez ere. Antzezpenean zehar, behin eta berriz agertu ziren kezkatu egiten zituzten eta egonezina eta eztabaida sorrarazten zieten gai batzuk: loditasuna, nesken kasuan batez ere; jantzeko modua; estereotipoen eta rolen hausteak ("mari-mutila", "marikoa", "panpinekin jolastea kaka bat da") edo areagotzea ("gizonek dirua eramaten dute etxera eta emakumeek trapuetan baino ez dute gastatzen").

4.6.2. 2. UNITATE DIDAKTIKOAREN (BIZITZA-PROIEKTUA) SAIO BEREZIA: BIZITZAREN LAU HANKAK

Saioan zehar "Bizitzaren jolasa" jolasaren bertsio erraldoi batekin jolastu ziren, 2. unitate didaktikoko materiala; dena den, gelan erabilitakoak ez ziren beste proba batzuk erabili ziren, talde mistoetan. Jolasaren helburua bizitzako eremu guztietatik igaro eta horietako bakoitzean beharrezko autonomia lortzea zen. Horretarako, hainbat jantzi lortu behar ziren (etxeko mantala, laneko eskularruak, norbere ileko zinta eta taldearen jaietarako musuzapia), horiek guztiek ondo bizitzeko eta bizitzako eremu guztietan modu autonomoan eta osorik bizitzeko beharrezko "ekipajea" osatzen baitzuten.

Saioko jarduerak talde mistoetan egin zituzten **neska-mutilei** dagokienez:

- Oro har, asko gustatu zitzaien jolasa, "bizitza bezalakoa" delako, hain zuzen. Oro har, errespetu handia eta jarduerak garapen egokia izateko gogoia agertu zuten, talde guztiek amaitu ahal izan zezaten. Hausnarketarako momentu ugari izan ziren, eta jolasa lehen eta bigarren unitate didaktikoekin lotu ahal izan zuten.
- Mutil dezentek ez zuten zinta buruan jarri nahi izan (zinta arrosak batez ere). Kasu batzuetan, nolabaiteko lehia agertu zuten. Saio batzuetan, mutilek talde mistoaren bozeramaile-papera aukeratu zuten.
- Talde batzuetan lotsa handia hauteman zen mimika-ariketak taldearen aurrean egiteko orduan. Kasu horietan, eta neskek batik bat, lotsa eta beldur gehiago agertu zuten gorputz-adierazpeneko ariketetan. Kasu batzuetan, ikastetxeren batek talde mistoak egiteko zailtasunak izan zituen.

Bizitzaren lau hankak izeneko unitate didaktikoaren eta saioaren edukiari dagokionez:

- Oso estereotipatutako jarrerak hauteman ziren mimikaren proban, batez ere neska-pertsonaiaren bat (ile luzea, aldaken kulunka, edertasuna, "aberaskumea", "lesbi"...), edo mutil-pertsonaiaren bat (sendoa, gihartsua...) irudikatzeko orduan. Etxeko mantalek eztabaida eta erresistentzia ugari piztu zituzten (mutil batzuek ez zituzten jantzi nahi).
- Familia beren bizitzetan oso garrantzitsua zela aitortu zuten gehienek eta oso kontzeptu positiboak agertu zuten harekiko (babesa, zaintza, laguntza, maitasuna...). Pena handia agertu zuten beren amek eta, batez ere, aitek berekin egoteko denborarik ez zutelako. Etxeko lanak eta erantzukizunak batik bat amaren gauza zirela aitortu zuten, "gurasoena", alegia, eta ez beraiena.

- Gehienek lana izatearen garrantzia azpimarratu zuten, pertsona askeak izan eta beren bizitza egin ahal izateko. Era berean, beren gustuko lan bat izatearen garrantzia azpimarratu zuten. Mutil batzuek beren lanera mugatzen zuten beren bizi-proiektua. Lana eta bizitza bateragarri egiteko zailtasunak izaten direla aitortu zuten eta, oro har, etxeko lanak eta erantzukizunak emakumeen gauza izaten direla adierazi zuten (ikastetxeren batean, amek etxean egiten duten lana aitek etxetik kanpo egiten dutena baino garrantzitsuagoa dela adierazi zuten). Ikastetxe gehienetan, emakumeek jasaten dituzten lan arloko diskriminazioak identifikatu zituzten: lanbideak, postuak eta karguak, soldatak...
- Amaierako ondorioetan, gehienek bizitzako lau eremuetan garatzearen garrantzia azpimarratu zuten, hala, hobeto bizi ahal izateko eta inoren menpe ez egoteko. Era berean, bizi pertsonaleko proiektu bat izatearen garrantzia gailendu zuten, denon eskubidea den heinean; gainera, ondo bizi eta zoriontsu izateko, senitarteko guztiek lau hankak garatuta izan behar dituztela adierazi zuten, eta ez horietako batzuek bakarrik.

4.6.3. 3. UNITATE DIDAKTIKOAREN (KONPROMISOA) SAIO BEREZIA: ELKAR EZAGUTU, LAGUNDU ETA GIZARTEAN ETA FAMILIAN BIZITZEA

Saioa talde mistoetan garatu zen, talde osoa elkarrekin zegoelarik, azken jardueran salbu, jarduera horretan neskek eta mutilek bakoitzak bere aldetik prestatu baitzituzten konpromisoaren kartelak. Lehen jolasean, elkarri ezagutzen eta gainerakoak ezagutzen jolas egin zuten (begiak bendatuta). Bigarren eta hirugarren jolasetan, beren mugimenduak talde, jarduera eta baldintza desberdinetan (eskutik eutsita, gerritik eutsita, begiak estalita...) koordinatu behar izan zituzten jolasean proposatutako helburuak taldeak hautsi gabe eta kiderik galdu gabe lortzeko.

Saioko jarduerak talde mistoetan egin zituzten **neska-mutilei** dagokienez:

- Oro har, saioa oso egokia izan zen ikasturte osoaren errebasoa egiteko, hau da, aurreko unitate eta saio guztiak berrikusteko. Batzuetan zailtasunak izan zituzten konpromisoak zehaztu, eta hitzetatik, ikasitakotik praktikara, konpromisora igarotzeko.
- Ia ikastetxe guztietan zailtasunak hauteman ziren taldeko estrategiak koordinatu eta adosteko, akordioetara iritsi eta lehia ekiditeko. Era berean, taldean lan egiteko ohiturarik eza eta agertu ziren zailtasunei aurre egiteko baliabide gutxi zituztela ikusi zen (neskek, lotsa, eta mutilek, aldiz, indarra). Hasieran, pertsonen katea maiz hausten zen (oihuak, elkarri errua botatzen...), baina gero, hura ez apurtzearen eta elkarrekin aurrera egitearen garrantzia ulertzen zutenean, benetan saiatzen ziren (elkartasuna, elkarrekiko zaintza, laguntza...).

Konpromisioa izeneko unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Oro har, zailtasunak eta lotsa hauteman ziren, ohitura faltagatik, beste sexuko pertsonak ukitzeko, baita laztanekiko beldurra... ere (begiak estalita, esku bakar batekin edo hatzen puntarekin bakarrik ukitzen zuten). Oro har, neskek errespetu eta erosotasun handiagoa agertu zuten. Mutil batzuek bultza egiten zuten... Oro har, elkarrekiko hurbilketa gertatzen zen.
- Konpromiso-karteletan, konpromisioa eta ondorioak hobeto ulertu zituzten horiek ikaste-txearekin eta beren bizitzekin lotzen zituztenean, baina asko kostatzen zitzaaien zehaztea. Denek irabaztearen garrantzia nabarmendu zuten, baita hitz egitearen balioa ere. Kasu gehienetan, neskek hobeto egin zituzten gaien arteko loturak.
- Neskek honako konpromiso hauek gaineratu zituzten beren muraletan: mutilei ahula ez naizela erakustea, egoera matxisten aurrean isilik ez geratzea eta horiek salatzea, gauzak bi aldiz pentsatzea, etiketarik ez jartzea eta bakoitza den moduan onartzea, aurreiritzirik ez izatea, naizen bezalakoa onartzea eta maitatzea, ez engainatzea, nire autoestimua handitzea, balio dudana horretan sinestea, balio dudana frogatzea, nire fisikoarekin gustura sentitzea, beldurrik ez izatea, kritikak onartzea, gauzak adostea, mutilei ni gaizki tratatzen ez uztea, besteen iritziak errespetatzea...
- Mutilek, aldiz, mota honetako konpromisoak gaineratu zituzten: inorenganako tratu txarrik ez onartzea, hitz atseginak erabiltzea, bakoitza den bezalakoa onartzea, ez diskriminatzea, entzuten ikastea, estereotipoen betaurrekoak kentzea, nesken gainetik ez jartzea, ez agintzea, etiketarik ez jartzea, nire akatsak onartzea, nire burua errespetatzea, nire sentimenduak ez gordetzea, laguntza eskatzen ikastea, konpromisoak betetzea, neskak eta mutilak modu berean tratatzea, aurreiritzirik ez izatea...

4.6.4. 4. UNITATE DIDAKTIKOAREN (EZ NAIZ BAKARRIK BIZI) SAIO BEREZIA: EMAKUMEEN JOLAS OLINPIKOAK

Saioan berdintasun-olinpiada batzuk antzestu ziren (dorsalak taldeka, zuzi olinpikoa piztu eta eskuz esku eramatea, bandera olinpiko aldatua, amaierako zeremonia) eta, horretarako, hainbat jarduera egin ziren tradizioz emakumezkoak izan diren jolasak erabilita: sokasaltza (erreleboak pasatuz eta taldean koordinazioa eta batasuna mantenduz) eta goma-saltza (malgutasunez, kontzentratuz eta behar bezala antolatuz, mundu guztia sar zedin). Jarduera fisiko horiek neska zein mutilentzat eragiten duten zailtasuna, meritua, ikaskuntza eta balioa ikusi, baloratu eta aitortzea zen helburua.

Saioko jarduerak talde mistoetan egin zituzten **neska eta mutilei** dagokienez:

- Oro har, hasieran neskek neskei eta mutilek mutilei bakarrik animatzen zieten. Neskak lasaiago eta jolasarekiko arreta gehiago eskaini zuten (baita beren txanda ez zenean ere), baita beldur gehiago eta konfiantza gutxiago ere ("hobe lehenengo mutilek egiten badute; horrela, nire txanda iristean ez didate begiratuko"). Oro har, mutilek kontu gutxiago izan zuten eta gehiago hitz egin zuten, baina errespetu gutxiago agertu zuten, "pailazoarena eginez".
- Azken probarako, indar gehiegirekin botaz gero apurtu egiten zen aro bat erabili zuten; proba hori izan zen guztietan konplexuena, ados jarri eta taldean lan egiteko zailtasunengatik, hain zuten. Komunikazioa eta koordinazioa eragin zuten jolasak izan ziren, hain zuten, konplexuenak.
- Oro har, mutilek gehiago apurtzen zituzten arauak eta neskek gehiago errespetatzen zituzten. Oro har, mutilek lehian jarduten zuten.

Unitate didaktikoaren eta saioaren edukiari dagokionez, **emakumeen jolas olinpikoetan** honako hau baloratu zuten begiraleek beren ebaluazioetan:

- Neskak trebeagoak izan ziren eta ondo egiten ez zekitenei lagundu zieten, gida gisa jardunez eta taldea koordinatuz. Mutilek jarrera positiboa agertu zuten, ikasteko prest. Batzuk haserretu egiten ziren ondo egiten ez zekitenean edo jolasaren protagonistak ez zirenean. Beste batzuek jolasa korapilatzen zuten, zailtasun edo erronka handiagoa bilatzen baitzuten, eta horrela, gero beren porrotak justifikatzeko erabiltzen zituzten.
- Aroaren eta sokaren azken proban, mutilak sokaren lehen postuak lortu eta neskak sokaren jolaseko azken tokian uzten saiatu ziren. Bestalde, mutilek indar gehiegi erabili eta aroa puskatzen zuten.
- Saiok eragindako hausnarketak eta eztabaidak honako hauekin lotuta egon ziren: gizon eta emakumeen kirol profesionala, emakumeen kirolaren ikusezintasuna eta hark baliabide ekonomikoei dagokienez jasaten duen diskriminazioa, ordutegiak, instalazioak, komunikabideak... Gainera, jolas-orduetan egiten den patioaren erabileraz eta ikastetxeetako eskolaz kanpoko jardueraz hitz egin zuten.
- Oro har, neskek gutxiago eta baxuago hitz egin zuten eta begiraleengana zuzentzen ziren, taldeari begiratu gabe. Ondoriorik zentzuzkoenak atera zituzten. Mutilek baino jolas gehiago ezagutu eta izendatzen zituzten. Gehienek "mutilen jolasak" defendatu zituzten, ozenki (futbola bereziki). Neska batzuk mutilen jarrerarekin aspertuta agertu ziren, "nesken gauzei" arretarik jartzen ez zietelako, alegia.
- Oro har, mutilek gehiago parte hartu zuten, baina horien ekarpenak hutsalagoak izan ziren. Gehienak harrituta agertu ziren izerditu egin zutelako, ahalegina egin behar izan zutelako...

Batzuek uko egin zuten, argi eta garbi ("Jolas hauek ez dira kirola!", "jolasak eta kirola gauza desberdinak dira"). Baloirik gabeko jolasen beren zerrendak oso laburrak ziren. Borroka eta iseka batzuk hauteman ziren, baita "matxitoen" jarrera batzuk ere.

- Futbolarekin lotutako kulturaren nonahiko presentzia hauteman zen: ia mutil guztiek parte hartzen zuten bertan, baita neska askok ere. Neska askok hor egon behar dutela uste dute, baita baloirik ematen ez badiete edo gustukoa ez badute ere, mutilek errazago onartu eta modu askeagoan hitz egin ahal izateko, hain zuzen. Mutil gehientzat nolabaiteko tragedia da jolas-orduan baloirik gabe geratzea (baloia kentzen badiete "dena" kentzen diete).
- Gainera, funtsezko gai batzuk azaleratu ziren: jolas hauek ia desagertuta baleude bezala gutxietsita zeudelako, neskenak zirelako, edo mutilek horiekin jolastu eta ongi pasatzen zuten, NAHIKO! saioan, baina ez zuten plazan jolasten, publikoan, han mutilen eta gizonen kirolak eta jolasak nagusitzen baitziren.

4.6.5. 5. UNITATE DIDAKTIKOAREN (GIZA ESKUBIDEAK) SAIO BEREZIA: ETXeko JOLAS OLINPIKOAK

Saioan berdintasunaren olinpiadak antzeztu ziren (dorsalak, zuzi olinpiarra piztu eta eskuz esku eramanez, bandera olinpikoa aldatu, amaierako zeremonia) eta hainbat jarduerak egin ziren etxeko ardura eta lanetan oinarrituta: etxeko lanen erlojupeko ginkana (etxeko hainbat eremutan betetzeko enkarguarekin), erlojupeko astea (baterako erantzukizunean oinarritutako antolatuta, denborekin banaketa eta astean zehar familiak dituen erantzukizunak) eta lana etxearrekin batera (baterako erantzukizunaren eta biak bateragarri egitearen oreka konplexua). Etxeko erantzukizunak eta lanak eta horiek neska nahiz mutilentzat duten balioa ikusi, baloratu eta aitortzea zen helburu nagusia.

Saioko jarduerak talde mistoetan egin zituzten **neska eta mutilei** dagokienez:

- Oro har, neskek mutilek baino interes handiagoa agertu zuten dinamikaren hausnarketari dagokionez, eta lasaiago eta mantsoago jolastu zuten. Lasaitu egiten ziren taldeen arteko lehiaketa bat ez zela eta talde guztiek irabazteko erronka bat zela ikustean. Gutxiago hitz egin arren, ondorio helduagoak eskaini zituzten. Jolasaren amaieran materiala jaso, mantalak eta musuzapiak tolestuta itzuli zituzten...
- Oro har, mutilek hausnarketarako baino gogo gehiago agertu zuten jolasteko. Kontzentrazio maila altuagoa agertu zuten probetan eta jolastera, egitera, lortzera... lehenengoak irten saiatzen ziren; irabazten saiatzen ziren, azkar amaitzen, lehian jarduten ("zangarteak jarri daitezke?"). Oro har, ez zuten materiala jasotzen eta, saioak aurrera egin

ahala, musuzapiak, mantalak... kentzen joaten ziren. Gehiago hitz egin arren, mutilen ekarpenak ez ziren horren helduak izan.

Etxeko jolas olinpikoen unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Oro har, talde guztiek oreka bikoitza lortzearen garrantzia eta zailtasuna ulertu zuten: eremu guztiei erantzutea eta hori modu orekatuan egitea, taldeko eta familiako kide guztiak kontuan hartuta.
- Askotan, neskek jardueraren, lortzen zutenaren, falta zenaren... idazkaritza, antolaketa eta plangintzarekin lotutako funtzioak betetzen zituztela ikusi zen, jolasean lehenengoak izateko interes gehiegirik gabe. Mutilen artean, aldiz, jolastera irten eta jarduteko interes handiagoa ikusi zen, baita diruarekiko obsesio handiagoa zutela ere ("hartu dirua, lehenengo gauza dirua...").
- Etxeko lanak asteko zazpi egunetan beren amek egiten zituztela aitortu zuten gehienek ("ama-Potter", "erabilera anitzeko ama", "funtzio anitzeko ama"...) eta harridura agertu zuten etxeko lanek hartzen duten deborarekin.
- Oro har, neskek hobeto ulertu zuten asteko ordutegiaren errealitatea, amaren erreferentzia argiago zutelako eta hura eredu gisa ikusten zutelako, hain zuzen. Azkarrago konturatu ziren etxeko lanak banatzearen aukeraz eta hori egin beharraz. Era beran, etxea bizkarrean hartuta lanera joateak eragiten duen zamaz konturatu ziren, arreta hori buruan hartuta.
- Oro har, mutilek etxetik kanpo lan egiteko gogoia agertu zuten (etxeko lanetarako gehiago "ezkutatzen" ziren) eta nolabaiteko deserosotasuna agertu zuten haur jaioberriaren zainketaekin ("ez dugu haurrik nahi"). Oro har, ez ziren asteko ordutegiarekin identifikatzen eta zeuden bezala jarraitu nahi zuten, egin behar zen guztia "jakin gabe". Etxeko lan bakoitzera xedaturiko orduak gehiegizkoak iruditzen zitzaizkien, eta beraien ustez, dena askoz errazagoa zen ("don Limpio", "el rascar se va a acabar"...).

4.6.6. 6. UNITATE DIDAKTIKOAREN (FAMILIAN BERDINTASUNEZ BIZITZEA) SAIO BEREZIA: GIZA ESKUBIDEEN OLINPIADAK

Saioan berdintasunaren olinpiadak antzeztu ziren (dorsalak, zuzi olinpiarra piztu eta eskuz esku eraman, bandera olinpiko aldatua, amaierako zeremonia) eta hainbat jarduera egin zituzten etxeko bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotuta: denon artean etxea gizatasunez erakitzea (adreiluz adreilu, giza eskubideetan oinarrituta eta denon artean) eta berdintasunez bizitzearen oreka konplexua (espazioa partekatuz, elkarrekin fidatuz eta baldintza- eta aukera-

berdintasunarekin). Elkarrekin modu zuzen eta egokiagoan bizi ahal izateko faktoreak identifikatzea eta adieraztea zen helburua.

Saioko jarduerak talde mistoetan egin zituzten **neska eta mutilei** dagokienez:

- Neskek modu autonomoagoan eta antolatua goan idatzi zituzten "adreiluak" beren etxemuralean, euren artean asko hitz egin ostean eta elementuak elkarrekin lotuz... Txartelek in etxea fisikoki eraikitzean ere arreta handiagoa jarri zuten, goiko solairuetan batez ere, atsekabetu egiten baitziren horiek eroriz gero...
- Mutilak neurrigabe eta alferragoak ziren, arreta gutxiago eta zikintasun handiagoa agertuz, txorakeria eta txantxa gehiago eginez, azkarrago... Txartelek in etxea fisikoki eraikitzean, arrisku gehiago hartu zituzten eta goiko solairuak ahalik eta azkarren jartzen saiatzen ziren, eta horiek erortzen baziren barre egin eta errua elkarri egozten saiatzen ziren...

Giza eskubideen jolas olimpikoen unitate didaktikoaren edukiari dagokionez:

- Neskek eta mutilek aukeratutako "adreiluek" hau da, giza etxea eraikitzeko elementuek antzeko edukiak zituzten. Honako alderdi hauek nabarmendu zituzten: "maite nauzu?", "familia", "lagunak", "haurrak", "ausardia eta konfiantza"... Mutilek zailtasunak agertu zituzten neskek zerbait irakatsi, gomendatu, bideratu... nahi zitetean.
- Kontaktu fisiko handiagoa eskatzen zuten jardueretan nolabaiteko erresistentzia haute-man zen elkarri ukitu, gerturatu, elkarri eusteko...
- Askotan, mutilek lehenengo hartzen zuten espazioa eta neskek gero sartzen ziren, libre geratzen ziren hutsuneetan.
- Oro har, neskek konplizitate eta partaidetza, heldutasun eta lankidetzat handia erakutsi zuten. Batzuek oso gutxi hitz egin zuten. Neskek gehiago eta sakontasun handiagoarekin hitz egiten zuten talde txikietan. Ondorio gehiago eta helduagoak egin zituzten, aurkikuntza gehiago eginez ("orain arte ez naiz konturatu mutilen jarreraz").
- Oro har, mutilek antzera jardun eta parte hartu zuten mutilen talde txikietan nahiz talde misto handian. Programari esker, lehen ezagutzen ez zituzten emakumeekin lotutako alderdiez konturatu zirela aitortu zuten gehienek. Baina, batzuetan, hitz ezatseginekin amaitzen zituzten ohar positiboak ("bai, nahi zaitut... hil egin nahi zaitut").
- Oro har, ikasle guztiek (eta irakasleek) NAHIKO! programarekiko poztasuna eta esker ona agertu zuten, eta beren bizitzetarako izan zuen balioa aitortu zuten. NAHIKO! programare-

kin asko ikasi izana aitortu zuten, zehaztea kostatu arren. Amaiera ez zen amaiera, hasiera baizik (ordura artekoa entrenamendua baino ez zen izan).

4.6.7. IKASTURTE AMAIERAKO TOPAKETAK: NAHIKO! TOPAKETAK

Lehen Hezkuntzako Bosgarren eta Seigarren mailetako bi esperientzia pilotuetan, ekaina hasieran ikastetxe parte-hartzaile guztien topaketa bat egin zen ikasturte bakoitzaren amaieran. 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetako esperientzia pilotuak Gasteizko Europa Jauregiko Auditoriumean egin ziren. 2005-2006 eta 2006-2007 ikasturteetako esperientziaren kasuan, aldiz, Donostiako Kursaal Auditoriumean egin ziren. Topaketa horietan guztietan, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria egon ziren eta horien aintzatespena jaso zuten ikastetxe parte-hartzaileei, programaren garapenari eta esperientziaz dagokionez.

Topaketa horietara gonbidatu zitzaizkien, parte hartu zuten ikasle eta irakasleez gain, ikasleen familiei, berritzeguneetako aholkulariei eta saio berezietan parte hartu zuten begiraleei.

Topaketak honako **programa** honi jarraiki garatu ziren:

- Agurra. Ongietorria.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren aurkezpena.
- Ikastetxe bakoitzak aurretiaz ikastetxean prestatutako unitate didaktiko batekin lotutako jarduera-saio bat egin zuen (antzerkia, ppt, dantza, bertsoak, abestiak...).
- Ikastetxe guztien artean, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako programako edukiarekin lotutako mural sinboliko handi bat egin zen: "Giza eskubideen zuhaitza, nire konpromisoa"; "Tratu txarren aurkako NAHIKO! puzzle-mural handia"; "Berdintasunaren eguzkia".
- Jarduketa bakoitza amaitzean, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta Emakundeko zuzendariak taula oroigarri bat eman zien ikastetxe parte-hartzailearen ikasle eta irakasleen argazkiarekin, eta argazki bat atera zuten talde osoarekin.
- Agurra. Programako opari eta oroigarrien entrega (ikastetxe bakoitzerako panel muralak, berdintasunaren argia (linterna), berdintasunaren olinpiadetako domina, tratu txarren aurkako NAHIKO! txapela...)

Topaketa horietan guztietan, ikastetxeek beren zentroan hezkidetzak garatzen jarraitzeko eta aurrerantzean NAHIKO! programa aplikatzen jarraitzeko bereganatutako konpromisoa aldarrikatu zen, mota honetako ekarpenak eginez:

- Orain nahiz etorkizunean, gure bikote-harremanetan tratu txarren bide okerra eta krudela baztertu eta emakumeenganako giza eskubideen eta tratu onen bidea hartu dezagun.
- Berdintasunik eza da emakumeen aurkako tratu txarren oinarria. Inork ez du jotzen bere parekotzat hartzen duen beste inor. Mendekotzat hartzen duguna jotzen dugu, hau da, gure ustez pertsona ez den hori, gure ikuspuntutik giza eskubiderik ez duen hori.
- Horregatik, emakumeen giza eskubideak eta giza duintasuna aldarrikatzen ditugu, gizonak dituzten berberak, gizartearen nahiz bikote-harremanetan, kalean nahiz etxean. Berdinak gara. Berdinei ez zaie tratu txarrik ematen. Berdinak gara.
- Bizitzako alderdi guztietarako prestatu nahi dugu. Bakoitzak nahi duen bizi-proiektua gauzatu dezan, nahi duen pertsonarekin. Bakoitzak, nahi duenean, bere bizi-proiektua nahi duenarekin aldatu dezan.
- Ez da erraza izango, eta horregatik hartu nahi dugu hemen konpromiso hau. Gure buruarekin hartzen dugu konpromiso hori, gure lankideekin, gure irakasleekin, gure ikastetxeekin, gure familiekin, gure auzoekin, herriekin eta hiriekin.

4.7. SAIOAK FAMILIEKIN. ONDORIOAK

Esperientzia pilotuan parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako Hirugarren eta Laugarren Mailako ikasleen familiekin egindako sei saioetako **batez besteko bertaratzea** ikastetxe guztietako familia guztien % 22koa izan zen. Saioetara bertaratu ziren pertsona horien artean, % 90 emakumeak ziren eta % 10 gizonak. Jarraian, saio hauek gauzatu zituzten Nahiko! programako begiraleek egindako ebaluazioetan jasotzen diren behaketa, ondorio eta balorazio kualitatibo batzuk laburbiltzen dira, saioetan izan ziren pertsonen hitzez hitzeko adierazpen batzuk komatxo artean jasoz.

Oro har, **saio gehienetan** parte-hartzaileen giro ona eta partaidetza altua nabarmendu ziren, balio handiko ekarpenak eginez. Arreta eta interes handia hauteman zen, askotan egiten baitzuten baietz buruarekin. Tonua barea izan zen eta informaziotik hausnarketara eta inplikazio pertsonalera bitarteko mugimendua erraza izan zen ("normalean hitz egiten ez denaz hitz egitea", "harira joatea", "txipa aldatzeak nolabaiteko kostua du pertsonalki nahiz bikotekideari

dagokionez"...). Oro har, bertaratuak kontentu agertu ziren ikastetxean honako gai hauek jorratuko zirela jakitean:

- Oro har, Familiaren Koadernoetako ariketak asko gustatu zitzaizkiela adierazi zuten ("beste gai batzuei buruz hitz egiteko aukera", "sorpresa bat", "familiar komunikatzeko ateak irekitzen ditu"). Kasu batzuetan nolabaiteko beldurra hauteman zen horietan eskatzen zen familiako intimitate maila gordetzeagatik.
- Gehienak harrিতa eta pozik agertu ziren programarekin eta beren seme-alabengan ikusitako emaitzekin ("harri eta zur geratu nintzen bere bizi-proiektuari buruz hitz egin zidanean. Nor da hau? Ziur nire semea dela?", "ez nuen uste jolas sinbolikoa, metafora eta unitate didaktikoak horren ondo ulertuko zituztenik eta beren bizitzarekin horrenbeste lotuko zituztenik").
- Askotan, kalean ikusten zen berdintasunak gizonezkoen itxura eta erantzukizunak zituztela adierazi zuten ("danbatekoak", "soldata irabazteko enplegua"...), baina ez emakumeen itxura eta erantzukizunak ("entzumena", "familiar zaintza"...). Zentzu horretan, komunikabideen eta gizartearen aurka joateko zailtasunak aitortu zituzten, eta pesimistak ziren zentzu horretan. Seme-alabek interneten eta mugikorren bitartez jasotzen dituzten irudiekiko kezka berezia agertu zuten. Etxean erakutsitako balioek gero kalean funtzionatzen ez dutela zioten, mutilen artean bereziki.
- Bikote gazteen artean ere berdintasunak lehen haurdunaldira arte bakarrik irauten zuela ikusi zuten, hau da, etxeko lanen berdintasunezko banaketak haurrik ez zegoenean irauten zuela, baina gero... gizonek ezikusiarrena egiten zutela. Zentzu horretan, gizonek nahiago dute ez jakin, etxeko zamaren eta lanaren zama bikoitzak eragiten duena ez ikusi, erosotasun hutsagatik. Horien arabera, aisialdiaren erabilera oso desberdina da gizon eta emakumeen artean, baina asko kostatzen da etxean hori aitortzea. Biek etxetik kanpo lan egiten dutenean, denbora hobeto banatzen dela adierazi zuten.
- Oro har, programaren balorazio onaren gainera baloratu zituzten maitasunarekin eta sentimenduekin lotutako materialak eta unitate didaktikoa. Maitasuna noiz dagoen eta noiz ez dagoen bereizi beharra beren seme-alabekin nahitaez jorratu beharreko gaia dela uste zuten. Testuinguru horretan, neskek eta mutilek beren sentimenduak adierazi eta bikoteko maitasuna bizitzeko dituzten modu desberdinak azpimarratu zituzten.

Saio batzuetan, bertaratuak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren nahiz hezkidetza-programen premiaren eta hezkidetzaren inguruko beren **zalantzak, erresistentziak eta premiak** agertu zituzten; izan ere, NAHIKO! programaren gisako programek berdintasuna lortzen laguntzen dute:

- Talde askotan, saio berezietako emaitzen laburpena oso esanguratsua eta erabakigarria izan zen: "oraindik horrela", "hori da ikusten dutena", "gizartearen isla da", "ez nuen uste gure seme-alabek"... Oro har, asko kostatzen zaie beren seme-alabek horrela pentsatu eta hitz egiten dutela aitortzea, hau da, horien arabera, etxeok ez diren balio horiek ezagutu eta dituztela aitortzea. Beren seme-alabak berdintasunez hezten dituztela uste dute.
- Saio askotan, gizartearen egiturazko indarkeria azpimarratu eta indarkeriagatiko kezka adierazi zuten, beren seme-alabak baino zertxobait zaharragoak diren neska-mutilengan bereziki. Nerabezaroarekiko nolabaiteko beldurra hauteman zen (beren seme-alabek ihes egingo dietela sentitzen dute). Era berean, beste sentimendu eta kezka batzuk dituzte beren seme-alabei dagokienez ("ez dut gauza bera sentitzen etxera lo egitera ez datorrena alaba edo semea bada"). Ama batzuek beren seme-alabek eskubide guztiak dituztela eta beraiek eskubiderik ez dutela sentitzen zuten (zailtasunak mugak jartzeko orduan).
- Erresistentziarik sendoenak berdintasunik eza beste garai bateko zerbait zela pentsatzearen inguruan azaleratu ziren ("datu horiek faltsuak dira, duela 15 urte edo gehiagokoak", "ezinezkoa da gure seme-alabek hori esatea", "hori primitiboa da, hori lehen gertatzen zen, emakumeek modu librean erabakitzen dute gaur egun", "zure ikuspegia oso ezkorra da"...); gainera, berdintasunik eza beste leku, etxe eta ikastetxe batzuetan bakarrik gertatzen dela ("gizartean gerta daiteke, baina gure etxean ez", "nire seme-alabek ez") eta emakumeen aurkako indarkeriak osagai indibidualak eta ez sozialak dituela ("pertsona zehatzak dira", "gaixorik dauden pertsonak edo harremanak") uste zuten.
- Saioetan izan ziren emakume etorkinek azaleratu ziren gaiei buruz hitz egin eta iritzia emateko errezelo gehiago izan zuten.
- "Familiekin egindako saioak ez dira amaitzen saioak amaitzean. Topiko guztiak azaleratzen dira, milaka ohar. Bere bizitzako pelikula berrikusten ari direla konturatzen zara eta, gero, pentsakor joaten dira. Denok joaten gara pentsakor. "Oso zaila da teoritik praktikara igarotzea".
- Gizonezkoen oso presentzia txikia berretsi zen, horiek oso gutxi izan baitziren. Batzuek taldeko beste guztiek bezala parte hartu zuten. Beste batzuk, aldiz, defentsiban jarri ziren ("aita gisa zuten eginkizuna zalantzan jarri eta epaitzen zela uste zuten"). Beste batzuk isilik eta deseroso sentitu ziren, beste batzuk hitza hartzen saiatu ziren, beste batzuk kontra agertu ziren, beste batzuk emazteak "aginduta" joan ziren, beste batzuk joan egin ziren bakkarrak zirela ikustean...

4.8. BARNE-EBALUAZIOA. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Programaren esperientzia pilotuan zehar, ikastetxeek haren barne sartutako elementu guztiak erabili eta ebaluatu zituzten, modu jarraituan: materialak, saio bereziak, txostenak, txostengileak... Batetik, eta mintegi bakoitzaren aurretik, landutako unitate didaktikoaren ebaluazioa bidaltzen zen ikastetxeetara, eta ebaluazio hori partekatu egiten zen kasuan kasuko mintegian. Bestalde, ikasturte bakoitzaren amaieran dagokion ebaluazioa egiten zen eta, Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren bukaeran, aldiz, ziklo osoarena.

Mintegiei dagokienez, honako hau izan zen irakasleen batez besteko ebaluazioa:	1 eta 6 bitartean
Mintegien prestakuntza-balioa	5,2
Edukia. Landutako gaiak	5,2
Txostenen eta txostengileen kalitatea	5,5
Landutako unitate didaktikoaren laburpena eta analisia	5,1
Unitate didaktiko berriaren aurkezpena	5,3
Talde-lana eta esperientzien trukea ikastetxeen artean	5,4
Mintegien antolaketa	5
Helarazitako dokumentazioa eta materiala	5,6

Irakasleek gehien baloratu zituzten alderdiak: txostenak eta txostengileak, giro orokorra, mundu osoaren jarrera, esperientzien trukea, ekarpenen tonu positiboa, materialak, plangintza, prestakuntza teorikoa, eguneroko lanerako baliotasuna, ikastetxeen taldekako lana, erabiltako partaidetza eta prozedura, parte hartzeko aukera, programaren jarraipena eta haren taldea, harrera eta tratua, ordutegiaren betetze maila, zehaztapena, antolakuntza eta eraginkortasuna, seriotasuna.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailtako NAHIKO! programaren materialak eta elementuak honela baloratu ziren irakasleen aldetik: **1 eta 6 bitartean**

Batez besteko orokorra	5,1
Unitate didaktikoetako jolasak	5
Ikasleen koadernoak eta familien koadernoak	5,1
Irakasleek ikastetxeetan materialarekin egindako saioak	5
Ikasleekin egindako saio bereziak	5,3
Familiekin egindako saio bereziak	5
Ikastetxe guztien Topaketa ikasturte amaieran	5,3

Oro har, **irakasleek** inplikazio eta ahalegin handia agertu zuten. Gehienek programan sine-tsi zuten eta ibilbide profesional eta pertsonal garrantzitsua egin zutela adierazi zuten (mundu berri bat, ikuspegi berri bat):

- Irakasleen prestakuntza eta inplikazioa ezinbestekoak izan ziren programarako, baita ikasleekin eta familiekin egindako saio berezietan ere.
- Ikastetxe askok zeharka erabili zuten programa curriculumeko hainbat eremutan, eta ikastetxeko hainbat irakaslek batasuna eta koherentzia eman zieten hezkuntza arloko beste programa eta esku-hartze batzuei.
- Irakasle batzuei luzea egin zitzaien programa eta nolabaiteko nekea nabaritu zitzaien amaiera aldera. Hori ohikoagoa izan zen NAHIKO! beste programa eta curriculumeko eremu batzuetatik modu isolatuan erabili zuten ikastetxeetan.
- Irakasle batzuek zailtasunak izan zituzten gizon eta emakumeen berdintasunarekin eta beren ikastetxeetan hezkidetzeta-programa bat garatzearen egokitasunarekin lotutako konzeptu eta/edo material batzuekin.

Familiek eta **irakasleek aldaketa** esanguratsuak nabarmendu zituzten NAHIKO! programan parte hartu zuten ikasleengan:

- Partaidetza handiagoa hauteman zuten etxeko lanetan, hitz egiteko gai eta moduetan, anai-arreben arteko harremanetan eta eskaeretan, hobekuntza sentimenduak adierazteko orduan, ikasleen arteko beste harreman batzuetan...

- Ikasleek beren amek familian egiten duten lanaz jabetu ziren eta hura berariaz baloratzen eta eskertzen hasi ziren. Kasu batzuetan, familiak berrantolatu egin ziren erantzukizunak eta lanak berdintasunez banatzeko helburuarekin.
- Ikasleek behar bezala ulertu eta barneratu zuten pertsona guztiek, hau da, gizon nahiz emakumeek, eskubide berdinak dituztela eta denok gure bizi-proiektu pertsonala egin eta hura aldatzeko eskubidea dugula.
- Ikasleek NAHIKO! programarekiko erreferentziak egin eta haren bidez ikasitako hizkuntza eta kontzeptuak, sinboloak eta baliabideak, metaforak eta irudiak erabili zituzten ikastetxe-ko, familiako... beste eremu batzuetan. Lehen nola jorratu ez zekiten gauza askori buruz hitz egiteko, gatazkei irtenbidea emateko, elkar ulertzeko...